

Zu hemen zaude.

goiena

"ULERTZEN DUT ARRASATEKO FEDEDUNEN HASERREA"

Arrasate utzi, eta aurrerantzean Oñatiko parrokoa izango da Horazio Argarate / 10

Horazio Argarate, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiatik irteten, martitzenean.

XABIER URZELAI



Filmeko zuzendariak eta protagonistak Seminararioan eguaztenean. MIREIA BIKUÑA

Txalo zaparrada Bergaran 'Agur, Etxebeste!'-ren estreinaldian / 49

Francoren beste sei biktimari aitortza egin diete Arrasaten

2003an jarri zuten monolitoari, sei izen berri gehitu zizkioten atzo; 122 izatera igaro dira / 2



Arizmendiarieta plazako ekitaldian, omenduen senitartekoak. ENeko AZKARATE



Frankismoaren errepresioa jasan zutenen izenekin, beste sei plaka jarri zituzten Arizmendiarieta plazan atzo. ENEKO AZKARATE

Frankismoaren biktimei omenaldi hunkigarria

Debagoiengan frankismoaren errepresioa jasan zutenei omenaldia egin zieten atzo, irailak 26, Arrasaten. Ekitaldi zabala bezain jendetsua izan zen; bertsolariak, dantzariak, abesbatzen emanaldia eta lore eskaintza izan ziren, besteak beste

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA Intxorta 1937 Kultur Elkartearen eta Debagoieneko udalen ekimenez, altxamendu militarren ondorioz diktadura frankista jasan zuten biktimek omendu zituzten atzo, irailak 26, Arrasateko Jose Maria Arizmendiarieta plazan.

19:00etan hasi zen ekitaldia. Iraitz Agirrek aurkezpen lanak

egin zituen, eta, jarraian, Ane Zuazubiskar eta Manex Agirre bertsolarien txanda izan zen.

Debagoiengan frankismoaren errepresioak erail edo desagerarazi zituenen omenez 2003an ezarri zen monolitoari sei izen berri gehitu zizkioten, 116tik 122 izatera igaro direlarik: Isidro Monge Alonso eta Victor Uribe-Echeverria Bengoa aretxabale-

tarrenak; Blas Unamuno Amuchastegi bergararrarena; Guillermo Ugarte Aeta oñatiarrarena; Dimas Aranzeta Etxezarreta elgetarrarena; eta Eusebio Menchaca Turiel arrasatearrarena.

Omenaldian zehar, sei pertsona horien senideek Iñigo Arregiren *Egiaren iturria* eskultura bana jaso zuten ibarreko alkateen

eskutik. Zazpigarren eskultura Francisca Garciak jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ion Gambraren eskutik –urtebeterekin, frankismotik ihesi egin behar izan zuen arrasatearrak–. Bailarako udal guztietako ordezkariak bertan izan ziren –alkateak eta zinegotziak–.

Ekitaldian, frankismoaren biktimei familiarren hitzartzeak izan ziren –Nati Roa, Maite Uranga eta Julio Monge–. Azkenik, Francisca Garciaren seme Eric Vermandek ere hartu zuen hitza, berak hala eskatuta.

"Erregimen frankistaren ondorioak oso latzak izan ziren. Gure bailaran, 700dik gora hil zituzten eta beste asko eta askori kristorenak pasarazi zizkieten: kartzela, tortura, kontzentrazio-eremuak, bortxaketak, erbestea, depurazioa, bombardaketak, euskararen debekua... zerrenda amaigabea", zioen Maite Urangak, esaterako.

Musika eta dantza

Arrasateko Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeko lagunek emanaldia eskaini zuten, aurrekoa eta ikurrin dantza egin baitzituzten; azken hau, *Eusko gudariak* abestiaren doinuarekin. Lore eskaintza ere egin zuten, eta, momentua girotzeko, bailarako musikari eta abeslariaren doinuak izan ziren entzungai, Izaskun Zubizarreta biolin-jotzaileak emanaldia eskaini baitzuen. Horretaz gain, Arrasate Musikaleko metal boskoteak, perkusio joleek eta Debagoieneko hainbat abesbatzak, guztiek elkarrekin *Internazionala* eta Pablo Sorozabalen *Gernika kantata* –Nemesio Etxanizen letrekin– abestu zituzten Xabier Barriolaren zuzendaritzapean. Bailarako abesbatza gehienek hartu zuten

parte; denera, 90 laguneko taldea osatu zuten.

Frankismotik ihesi

Francisca Garciak, urtebete zeukala, Arrasate, jaioterria, utzi behar izan zuen, frankismotik ihesi; geroztik, ez zen inoiz Arrasatera itzuli, eta atzo izan zen lehen aldia, 84 urterekin. Une bereziak bezain hunkigarriak bizi izan ziren.

Arrasate 1936-56. Gerra, erresistentzia eta frankismoa liburua gorderik daude Francisca Garciaren hitzak: "Gerra hasi zenean, gure aitak, Felipe Garcia Lumbrerasesek, esan zigun gerrak ez zuela luze joko, eta irten ginen ihesi.... Iritsi ginen Frantziara itsasontzi baten bodegetan. Lehenengo egon ginen Perpinyan-en, errefuxiatuen eremu batean. Hartu gintuen gure osabak eta joan ginen bizi izatera berarekin Luchon-era. Ordurako, hilda zeuden gure anaia Agapito, Espainian, eta gure arreba Angela, 5 urte zituela, Frantziara. Gure amak jakin zuen aita hil zutela. Oso gogorra izan zen denontzat. II. Mundu Gerra hasi zenean joan ginen bizi izatera mendietara...". Arrasateko Udalarekin kontaktuan jarri zen Garcia, bere aitaren hilketaz galdetzeko, eta Udalak Intxorta 1937 Kultur Elkartearengana jo zuen. Bere seme Eric Vermandek atzoko ekitaldian honela zioen: "Nire amaren historia familia askoren historia da, tamalez".

FRANCISCA GARCIA, 83 URTEREN ONDOREN, LEHEN ALDIZ ITZULI ZEN ATZO ARRASATERA

Klima larrialdia salatzen, geldialdiak Debagoiengan

Fridays For Future mundu mailako mugimenduak hilabeteak daramatza klima aldaketaz ohartarazten

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA Greta Thunberg gaztea buru duen Fridays For Future bezalako mundu mailako mugimenduen hilabeteak daramatzate klima aldaketa geldiarazteko gizartea eta, bereziki, politika-

riak erakusten ari diren "pasiotasuna" salatzen. Horren ondorioz, hainbat geldialdi, manifestazio eta protesta ari dira gauzatzen mundu osoan azkenaldian. Hain zuzen ere, protesta hauek iritsi dira De-

bagoienera, eta, gaurko, hainbat deialdi daude eginda.

Ikastetxe eta unibertsitateetako ikasleak dira mugimendu honetan aktiboak izaten ari direnak, eta, ondorioz, hainbat geldialdi daude deituta gaurko Debagoiengan. Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek, esaterako, elkarretaraztea deitu du, 12:00etarako, udaletxe aurrean, eta bailarako ikastetxe guztiei zabaldu diete deialdia.

Gero eta gehiago dira neurriak hartzen hasi diren enpresak

ere. Oñatiko enpresa bateko langileek, esaterako, bat egin dute mugimendu honekin, eta gaur, 11:00etatik 12:00etara, gaiari buruz hausnartzeko geldialdia egingo dute. GOIENARI azaldu diotenez, seme-alabak izan dira "gai honekiko kontzientzia" eragin dietenak eta hausnarketa hau egiteko "eskaera" egin dietenak. "Orain arte, arazoa, bai denboran eta geografikoki, urruti ikusten genuen, baina orain, ikusten dugu denbora agortzen ari dela,

ia-ia bueltarik gabeko puntuan gaudela eta gobernuek ez dutela ezer egiten, enpresek ez dutela ezer egiten. Hau ez da urruneko apokalipsi bat, jada beste batzuei gertatzen hasi zaie eta maite ditugunok sufrituko dute. Hau denon arazoa da", diote enpresa honetako kideek.

Horretaz gain, Aretxabaletako Plastikoa Buruan taldeak plastikoa bilketa antolatuta du gaur arratsalderako. 18:30ean Herriko Plazan elkartuko dira eta herritar guztiei dei egin diete.

Kataideko bidegorri zatia "hobetu" egingo dute

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu Rafaela Romerok eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak Kataideko bidegorria handitu, hobetu eta egokitze proiektua adostu dute. Proiektuak 227.199,19 euroko aurrekontua izango du

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu Rafaela Romerok eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak Kataideko bidegorria handitu, hobetu eta egokitze proiektua adostu dute.

Tarteak 690 metro ditu, Elorregitik Kataide industrialdera, eta funtsezkoa izango da Deba ibarreko foru-ibilbidearen barruan.

Proiektua onartu ondoren, Romero diputatuak honako hau adierazi zuen: "Azken urteetan, oso urrats handia egin da txirrindulari eta oinezkoentzako Gipuzkoako konexioetan, eta Debagoiengan txirrindulari eta oinezkoentzako sare garrantzitsua dago, herritar guztiek erabili dezaketena. Dena dela, sare hori handitzen eta hobetzen jarraitu nahi dugu, eskualdeko herritar guztiek mugikortasun jasangarri eta osasungarria modu eroso eta seguruan baliatzeko aukera izan dezaten".

Proiektuak 227.199,19 euroko aurrekontua izango du, eta Arrasateko Udalak Aldundiari egin dion eskaerari erantzuten dio.

"Azken finean, badakigu bidegorri zati hau ez dagoela batere ondo, nahiko zulo dauzkalako, eta herritar askok eskatu digu-

te behin eta berriro bidegorri zati hau konpondu beharra zegoela eta txukundu beharra zegoela; orduan, bada, eskakizun hori egin genion Aldundiari eta baiezkoa eman digu", adierazi du Ubarretxena.

Oso-osorik Arrasateko udalerrian dagoen eta Elorregiko eremua eta Kataide industrialdea lotzen dituen bidegorria egokituko dute, bai oinezkoen eta bai txirrindularien erabilerarako. Hura handitzeko obrak 2020. urtearen hasieran abiaraziko dituzte eta "sei aste inguru" iraungo dute.

Kataide eta Arrasateko ekialdeko tokiko bidegorria lotzeaz gain, zorua egokitu eta handitu, espaloiak eta zintarriak konpondu eta seinaleztapena eta argiztapena ere hobetuko dira.

Debagoieneko herriarteko bidegorri sarearekin amaitzeko Antzuola-Bergara bidegurutzetik Bergarako autobus geltokira arteko bidegorri zatia eta Eskoriatzatik Leintz Gatzagara arteko zatia falta dira oraindik.

Bidegorrien mapa berria

Aste honetan, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako De-



Rafaela Romero eta Maria Ubarretxena, Kataideko bidegorrian. AMAIA ZABALA

ANTZUOLATIK BERGARARA ETA ESKORIATZATIK LEINTZ GATZAGARA ARTEKO ZATIAK FALTA DIRA

partamentuak Gipuzkoako foru-bidegorrien mapa eguneratua kaleratuko du. Orain argitaratzen den mapa herritarren artean arrakasta handia izan zuen 2015ean editatutakoaren eguneratze bat da. Bertan, gaur egun Gipuzkoan dagoen bidegorrien sarea biltzen da –Aldundiaren zein udalen titulartasunekoak–. Bertan, bidegorri berriak sartu dituzte; adibidez, aurten inauguratutako Amutekoa, Txikierrikoa eta Lezokoa.

Material plastikoz egindako formatu erabilgarrian editatuko dira, urak eta erabilerak eragindako kalteak murrizteko. Turismo bulegoen eta beste ekipamendu publiko batzuen bitartez banatuko dituzte. Halaber, *Gipuzkoabizikletaz.eus* webgunean deskargatu ahal izango da.

Argitalpen horretan, Gipuzkoako bizikleta-bideen sarearen egungo egoeraren berri ematen da. Bidegorriz osatutako 353 kilometro zabalik daude; 126 kilometroren titularra Aldundia da eta 227 kilometrorena udalak.

Comfort Class
SUV

19.490
EUROTIK AURRERA



CITROËN C5 AIRCROSS
Motelgailu progresibo hidraulikoko suspentsioa

*KUS LEGE-BALDINTZAK ETA FINANTZAKETARI LOTUTAKO GASTUAK

DEBAGOIENEN KONTZESIONARIO OFIZIALA: TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

Nobel saridunen hitzaldiak Bergarako Laboratorium-en

Passion for Knowledge 2019 jaialdian, 10.000 pertsonak hartuko dute parte;

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA
Donostia International Physics Centerrek (DIPC) Passion for Knowledge (P4K) 2019 jaialdia antolatu du: 10.000 herritar inguruk parte hartuko duten zien-

tzia-jaialdi irekia, hain zuzen ere.

Zazpi Nobel saridunek eta mundu mailako hainbat adituk hitzaldi irekiak eskainiko dituzte Donostiako Victoria Eugenia

antzokian, Bilboko Guggenheim museoan, Iruñeko Baluartean eta Bergarako Laboratorium museoan.

Bergarari dagokionez, urriaren leian, martitzena, *Passion for Wolframium* jardunaldia ospatuko dute. Bertan arituko dira Dudley Herschbach fisikari-kimikari estatubatuarra eta Maria Vallet-Regi ikertzaile espainiarra.

Dudley Herschbach Harvard Unibertsitateko irakasle eta Ki-

mikako Nobel sariduna (1986) da. Herschbach hezkuntza eta kultura zientifikoaren defendatzaile handia da. Hitzaldiak ematen ditu adin guztietako ikasleen aurrean, eta zientziaren eta aurkikuntzen aldeko grina transmititzen die.

Maria Vallet-Regi, berriz, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, Biomaterial Adimendunen Ikertaldea gidatzen du eta hainbat estrategia ari dira garatzen hezurrei lotutako gaixotasunak

sendatzeko, hala nola minbizia, osteoporosia eta inplanteetan sortutako infekzioak.

Pedro Miguel Etxenike zientzialaria ere bertan izango da, jardunaldian, eta aurkezpen-lanak egiteaz eta hitzaldia gidatzeaz arduratuko da.

Hitzaldiaren ondoren, gerturatutako Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta herritarrek zientzialariekin solasaldian aritzeko aukera izango dute, beren galderak partekatuz.



Ardantza baserria, Aretxabaletan. E.A.



Okendo jauregia, Arrasaten. E.A.



Iturriotz kaleko 9. zenbakia. E.A.



Intxuzabal baserria. LUIS MARI ALBERDI



Bidekurutzeta kaleko 15. zenbakia. M.B.



Ibarraundi museoa, Eskoriatzan. E.A.

100.000 euro, bailarako ondarea zaharberritzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak 100.354 euroko laguntza emango du Debagoieneko kultur ondarea "zaharberritzeko eta sendotzeko"; sei eraikin eraberrituko dituzte, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Debagoieneko lau udalerritara bideratuko ditu laguntza hauek Aldundiak. Sei proiektu onartu ditu Kultura Departamentuak, eta, horien artean, Aretxabaletako Ardanza baserriaren teilatua eta egitura zaharberritzea dago. 47.235 euroko laguntza eman du Diputazioak. Baserri horren teilatua "oso interesgarria" da eta "ondare balio handia du", Diputazioaren esanetan.

Arrasateri dagokionez, Iturriotz kaleko 9. zenbakiko eraikinaren teilatua konpontzera 10.376 euro bideratuko dituzte eta Okendo jauregiaren teilatua konpontzera, bestalde, 17.363 euro. Eraikin hori barroko estilokoa da, XVII. mendekoa.

Bergaran, 7.275 euro emango ditu Aldundiak Bidekurutzeta kaleko 15. zenbakiko fatxada zaharberritzeko eta 16.715 euro, Intxuzabal baserriaren teilatua konpontzeko.

Eskoriatzako Udalak, azkenik, 1.390 euro jasoko ditu Ibarraun-

di museoko objektuak zaharberritzeko.

Kultur balio esanguratsua

Diputazioko Kultura Departamentuak jakinarazi duenez, dirulaguntza hauek "kultur balio esanguratsua duten eta kontserbazio, sendotze, errehabilitazio eta zaharberritze ekintzak behar dituzten" elementu materialeri zuzenduta daude.

Era berean, ohartarazi du ondasun higieziei dagokienez lehentasuna izango dutela "egitura sendotzeko obrek, teilatuen konponketek, eta ikuspuntu historiko eta artistiko batetik interes berezia duten elementu arkitektonikoen zaharberritzeak".

ONDAREA BABESTEKO ETA HEDATZEKO POLITIKEN BARRUAN KOKATZEN DIRA DIRULAGUNTZA HAUEK

Ondarea babestu beharraz

Denis Itxaso Kultura diputatuak garrantzia aitortu gura izan dio probintziako ondarea mantendu eta babesteari, daukan balio historikoa gal ez dadin. Azaldu du, hain zuzen, ildo horretan kokatzen direla laguntza hauek, ondarea babesteko eta hedatzeko politiken barruan, egungo eta etorkizuneko belaunaldiek ezagutu eta gozatzeko aukera izan dezaten. "Garrantzitsua da ondare hau zaintzea, gazteek ezagutzeko aukera izan dezaten; izan ere, Gipuzkoako kultura identitatearen funtsezko zati bat da. Hori dela eta, Aldundiari dagokio ondarea babestuz memoria berreskuratzea eta bizirik mantentzea", nabarmendu du.

Azkenik, kultura bateratu eta kohesionatua izateari eman dio inportantzia. "Laguntza hauekin, Gipuzkoako udalerritan dugun ondare garrantzitsua babestu eta gure lurraldeko gizarte eta kultura kohesioa sendotu nahi dugu".

'Salda badago!' jardunaldietan parte hartzeko dei egin dute

Euskal Herriko jardunaldi feministen bosgarren ediziorako izen-ematea urriaren 7ra arte dago zabalik

E.A. ARRASATE

Durangon egingo dute *Salda badago!* jardunaldi feministen bosgarren edizioa, azaroaren 1ean, 2an eta 3an, eta Debagoieneko mugimendu feministetako hainbat ordezkari dei egin dute horietan parte hartzeko. "Su motelean luze irakin dugun iraultza gara. Salda gara. Askotarikoak. Anitzak. Zahar bezain berriak. Handik eta hemendik datozenak. Doazenak. Ezagunak eta ezezagunak. Guztiak ongietorriak. Katiluz katilu, lapikoak gainezka egin arte", adierazi dute.

Maiatzean jardunaldi hauek aurkeztu zituztenetik, lanean ibili da buru-belarri Euskal Herriko sare feminista. Eta horren adibide dira egitaraua osatzeko jasotako proposamen guztiak: 38 ponentzia proposamen eta 70 tailer. "Hiru egunetan askotariko gaiak landuko ditugu. Norberak gustukoena aukeratu dezake. Egungo errealitateari eta premiei erantzuteko, ardatz ezberdinetan multzokatutako gaiak landuko ditugu", azpimarratu dute.

Bost ardatz nagusi

Bost ardatz landuko dituzte jardunaldi hauetan. Lehena, mugimendu feministak aurrera begira dituen estrategiei buruzko gogoeta; bigarrena, bizitzak erdiguneratzeko agenda adostea; hirugarrena, indarkeriarik gabeko bizitzaren eraikuntza; laugarrena, gorpuzak, burujabetzak

eta dekolonialitateak; eta bosgarrena, sexualitateak. Mahai-inguru ezberdinetan landuko dituzte gai hauek, eta ondoren, tailerrak ere egongo dira. Azkenik, batzar erraldoi batekin itxiko dituzte jardunaldiak.

Mugarri garrantzitsua

Azken jardunaldi feministak duela hamar urte egin zituzten, Portugaleten. "Mugarri garrantzitsua da guretzat. Elkarrekin bildu eta datozen urteetako lerro nagusiak marraztuko ditugu", azaldu dute.

Jardunaldien egitaraua

Bost mahai-inguru egingo dituzte hiru egunetan.

Azaroak 1, egubakoitza

- Dekolonitatea.
- Gure bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua eta burujabetzak.

Azaroak 2, zapatua

- Gorputzak eta sexualitateak.
- Indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzen.

Azaroak 3, domeka

- Mugimendu feministaren eraiei begira.

Bost urteko kartzela eskaera, Aizkorri-Aratzeko suteagatik

Abeltzain bat epaitu dute asteon, 2015eko abenduaren 28an Aizkorri-Aratz parke naturalean sutea eragin zuelakoan, eta fiskalak bost urteko kartzela eskaera mantendu du.

Akusatuaren defentsak abuzioa eskatu du, egun eta ordu horretan gizonzkoa etxean eta gaixo zegoela adieraziz, "sutearen lekutik ordubetera".

Epaitu duten gizonzkoa, gainera, Gipuzkoako baso-suteak itzaltzen jarduten duen boluntario taldeko kidea da.

Fiskaltzaren arabera, "baldintza meteorologikoak onak ziren sutea pizteko: %57ko hezetasuna, hego haizea, 14 graduko tenperatura eta euri falta". Ministerio Publikoak, berriz, uste du akusatuak pizgailu bat erabili zuela sutea pizteko. "Sutearen tokira matrikula gabeko motor batekin iritsi zen, kasko batekin aurpegia estalita zuela".



Elena Laka Kike Amonarriz lekukoa ematen, Bergaran. DANI SANCHEZ

Kike Amonarrizi emango dio lekukoa Elena Lakak

Euskaltzaleen Topaguneak batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, 17:30ean, Andoingo Martin Ugalde kultur parkean, eta lehendakari aldaketa izango da puntu nagusia; izan ere, azken bost urteetan karguan egon den Elena Lakak utzi egingo du

Eneko Azurmendi ARRASATE

2014ko apirilean hartu zuen lehendakari kargua Elena Lakak, urte luzez Bergaran bizi den elgoibartarrak, eta, bost urte baino gehiago karguan egon ostean, utzi egingo du. "Bost urte badira zerbait. Lagatzeko momentu bat badela uste dut. Ahal izan dudan neurrian, buru-belarri sartuta eta inplikaturatuta

aritu izan naiz urte hauetan", azpimarratu du Lakak.

Kike Amonarriz aurkeztuko da haren lekua hartzeko hautagai moduan, eta, ondo bidean, tolosarra izango da aurrerantzean Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria. "Ilusio handiz" hartuko du kargu berria. "Bost urte hauetan berak lideratu duen mugimendu guztia ikaragarria izan

da. Jauzi ikaragarria eman dela uste dut, ilusio handiz bizi izan dugun jauzi bat. Orain, nik ilusio berarekin hartuko dut kargua, baina baita erantzukizunarekin ere, oso puntu onean, gainera, sekulako lana egin delako urte hauetan guztietan. Lan horri beste urrats bat, beste salto bat eman behar zaio, eta mugimendua zabaltzearen

bidetik eta indartzearen bidetik ikusten dut nik", dio.

Lakak azpimarratu duenez, "sekulako lantaldea" dago topagunean, eta Amonarriz pertsona egokia da talde hori gidatzeko. "Sekulako lantaldea dago. Zuzendaritza batzordetik hasita, lantaldeak, euskara elkarteetako boluntario eta langileak, hainbat herritan sortu diren Euskaraldiko batzordeak... Jendetza ikaragarria dago momentu honetan, Euskal Herri osoan, gainera, sekulako lana egiten. Hau gizarte mugimendu bat da, eta jende asko mugitzen da norabide berean".

Orain arte lortutakoa, zaindu

Amonarrizen esanetan, azken urte hauetan aurrerapauso handiak eman ditu topaguneak, eta Euskaraldia da horren adibideetako bat. Lortutako hori zaintzearen garrantzia azpimarratu du. "Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da, eta horri, edukiak, eduki sakinak, eman behar zaizkio. Erronka, beraz, orain arte lortutakoa zaintzea izango da, eta horri etekina atera behar diogu".

Era berean, Lakak dio prozesu luze baten azkeneko begia izan dela Euskaraldia, eta aitortu du aurrera begira ere bada-goela lana egiteko. "Zerbait handia espero genuen, baina ikaragarria izan da eta ez da horretan bukatu. Orain, 2020ko Euskaraldia etorriko delako, entitate gehiagorekin, herri batzorde gehiagorekin, eta helburua, gutxienez, jende kopuru berak parte har dezala. Hori posible egitea 2020an, 1996an oraindik gure herrietako elkar-teak txoko batean zeuden mo-

mentuan... bada aurrerapausoa", adierazi du.

Bigarren Euskaraldi horri begira, beste aurrerapauso bat ematea da helburua, eta entitateetan zentratzea. "Entitate esaten dugunean, edozein talde egituratu da. Izan liteke enpresa handi bat, txaranga bat, ikastetxe bat edo yoga talde bat. Entitate horietan pertsonak daude, eta, orduan, bilatzen dena da euskaraz aritzen diren hari-guneak identifikatzea", nabarmendu du Amonarrizek.

Bi debagoiendar zuzendaritzan

Gaur egun, hamar laguneko zuzendaritza du Euskaltzaleen Topaguneak. Apirilean egindako batzar orokorrean, "asko" berritu zuten zuzendaritza taldea, eta kide bakarra geratzen zitzaizen aldatzeko: lehendakaria, hain zuzen ere.

Gaurko batzarreko lehen gaia izango da lehendakari aldaketarena, eta ondoren, topagunearen plan estrategiko berriari lotutako gaiak jorratuko dituzte. "Datozen lau urteetarako lan-ildo nagusiak zehazteari ekingo diogu, udazkenean egingo dugun plan estrategikoaren lehen urrats modura", azaldu dute Topaguneko ordezkariak.

Lakak zuzendaritza utzita, bi debagoiendar geratzen dira zuzendaritza taldean: Jasone Mendizabal zuzendaria, arrasatearra, eta langileen ordezkari modura aritzen den Johana Olabarria oñatiarra.

**JASONE MENDIZABAL
ARRASATEARRA ETA
JOHANA OLABARRIA
OÑATIARRA DAUDE
ZUZENDARITZAN**

Arantzazuren balio historikoa, dokumental batean jasota

'Arantzazu, harriz herri' ikus-entzunezkoa aurkeztu du aste honetan Nabarralde Fundazioak, Oñatin

E.A. OÑATI

Euskara batuaren oinarriak han finkatu izanaren eta basilikako lanen amaieraren 50. urteurren abiapuntu hartuta, *Arantzazu, harriz herri* izeneko dokumentala egin du Nabarralde

de Fundazioak, memoria-guneak ezagutzera emateko egiten dabilen lanaren baitan.

Jesus Iriartek errealizatu eta Miren Mindegiak eta Angel Rekaldek idatzi duten ikus-entzunezkoa da.

Arantzazuk hainbat alorretan duen garrantzia islatzen saiatu dira lan honekin. "Arantzazuk balio asko ditu: euskara, artea, musika, erlijioa, mendia edota artzaintza, besteak beste. Oso aberatsa da. Zaila da hau guztia dokumental batean jasotzea, baina saiatu gara sintetizatzen. Alde horretatik, zapore gazi-gozoa gelditu zaigu, ez dakigulako transmititu dugun tokiak transmititzen duen guztia, baina hori izan da gure apustua", azaldu du Rekaldek.

Pello Zabala eta Juan Inazio Larrea frantziskotarren eta Elena Martin kontserbatzailearen hitzak jaso dituzte, Arantzazuko eta inguruetako irudiei ere garrantzia emanda.


Jose Inazio Larreak eskerrak eman ditu dokumentala egin izanagatik, eta opari bat dela gaineratu. "Bagenituen liburu onak, baina bideoak beste zabal-tasun bat dauka, eta hori asko eskertzen dugu guk".

Oñatiko udaletxean aurkeztu zuten dokumentala, martitze-

nean, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Laboral Kutxako ordezkariekin batera, Oñatiko Udala da-eta proiektuaren babesle-tako bat.

Oñatin eskaintzeko asmoa

Behin aurkeztuta, atzo estreinatu zuten, Hernanin, eta Nabarralderen nahia da modu ezberdinetara ahalik eta zabal-kunde handiena ematea. Oraindik datza zehatzik ez dagoen arren, udazkenean Oñatin ematea ere bada asmoa.




15. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**421 argazki jaso ditugu.
Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

Irailaren 27tik urriaren 2ra arte, zure argazki gustukoena aukeratu ahal izango duzu **(PUBLIKOAREN SARIA)**. Sar zaitetz labur.eus/15 helbidean eta eman zure botoa! Pertsonako boto bakarra onartuko da.

Eta adi egon! **Urriaren 4an**, lehiaketako lau sarien irabazleen berri emango dugu! Zorte on!



CADIZKO ILUNABARRA LA BARROSA HONDARTZAN | Argazkia: Jon Ander Roman



FILIPINETAN | Argazkia: Garazi Perez de Arenaza eta Marta Lizarralde



ORKATZATEGI | Argazkia: Aitor Agirezabal



ASTURIAS | Argazkia: Jaime Acaso Lotti



IRLANDAKO TURISTA BERGARAN | Argazkia: Pedro David Rodriguez



BOLIVIA | Argazkia: Izaro Guridi Elorza



TOLOSA, FRANTZIA | Argazkia: Ana Bodes Fernandez

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK

BERGARA
EREIN DA JAN

GUTUNAK

Eskerrrik asko!

CRISTINA QUESADA

OÑATIKO HAURREN DANBORRADA
ANTOLATZAILA IZENEAN
OÑATI

Eskerrak eman nahi dizkizuegu haurren danborrada aurrera ateratzea posible egin diguzuen guztioi. Batez ere, irabazirik gabe buru-belarri laguntzen aritu zareten guztioi: aurreko urteko antolakuntzakoak, Musika Eskola, Ganbara, Gereta Ardoak, txorimaloekin aritu direnak, Miguelin eta Maider... eta, nola ez, Udaleko langileak, Kultur teknikaria, Oñatiko Musika Banda, Uhina, Kiku, Mizke, familia eta bestelakoak.

Bizitzekoa ateratzeko ahaleginetan hildakoen zerrenda

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Udako oporrak bukatu dira, eta, ondo esaten den bezala, zorrea

daukatenak lanpostuko egunerokotasunean murgilduta daude. Baina kontuz: 2018an, LAB sindikatuaren webgunean argiraturik dagoen zerrendaren arabera, 68 pertsona hil ziren lanean edo joan-etorrian; ezin esan zorterik eduki dutenik. Horien artean bi Debagoiengan. Zerrendan lehenengo azaltzen dena Aretxabaletakoa eta zerrenda berean azkena azaltzen dena Arrasaten gertatutakoa; aurtengo lehen zortzi hilabeteetan 31 pertsona dira bizitzekoa ateratzeko lanera joan direnak eta ez direnak etxera bueltatu.

Ezin dugu hitz egin zorritzarraz edo kasualitatez, baizik eta arazo hau errotik konpontzeko ganora faltaz.

Joan Vicenc Duranek esaten duen bezala, ez dago istripu arinik, denak hartu behar dira larritzat; berak frogatu duen bezala, posible da lan istripurik gabeko lantokia sortzea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Ura etxe atarian

JAKES GOIKOETXEA

HTTPS://LABUR.EUS/DF9YD
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Tentazioa izan daiteke, IPCCren txostenaren ondorioak ikusita, norberak bere zilborrari begiratzea.

Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak egindako ohararazpen larriak norberaren eguneroko bizimoduan izango lukeen eragin izugarritik mendreana baino ez irudikatzea: itsasoaren maila metro bat igoz gero, inguruko etxe eta eraikuntzak harrapatuko lituzkeen, zer neurritako hondartza geratuko litzatekeen... eta, glaziarrak desagertuz gero, zenbait mendi kutunetako igoerak nolakoak izango liratekeen. Ikuspegi mugatu, berekoi eta motz horretatik, jende askorentzat jasagarria izan daiteke itsasoaren maila metro bat igotzea eta glaziarrak desagertzea.

Klima aldaketa, ordea, fenomeno globala da, tokian tokiko gehiegikeriek saretua eta gizendua.

Ondorioak ere bai. Milioika herritarrek beren bizilekuak utzi beharko dituzte klima aldaketaren eraginez.

Egoera oso larria da. Aspalditik.

Zientzialarien eta adituen talde, ikerketa eta txosten guztiak munduaren eskela idazten ari dira urtea joan eta urtea etorri.

Euskal Herrian egindako ekintzek ondorioak dituzte

munduaren beste muturrean, eta, antipodetan gertatzen dena norberaren etxera eta bizimodura heltzen da.

Batzuek, nonbait, ez dira klima larrialdiaz jabetuko, ura etxe atariraino iritsi eta hankak busti arte.

Desobedientzia zibila

JAUME GELABERT

HTTPS://LABUR.EUS/NZKOR
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Thoureauren *Resistance to Civil Government* (Gobernu zibilaren aurkako erresistentzia, gerora *Desobedientzia zibila* berrizendatua) saiakera irakurtzea gomendatzen diot Imanol Salinas sindikalistari 21 hilabeteko espetxe-zigorra ezarri dion epaileari.

LABek protesta egin zuen La Sangiovesa jatetxearen aurrean, enpresak lau langile kaleratu baitzituen hauteskunde sindikaletan zuzendaritzak proposatutako hautagaia ez babesteagatik.

Epaian biolentziariz aritzea leporatu dio Salinasi megafonoz kontsignak oihukatzeagatik.

Henry David Thoreau idazle eta filosofoak (Concord, Massachusetts, 1817-1862) gau bakarra eman zuen herriko presondegian, 1846an.

Esklabotza Estatu Batuetako finantza egituraren oinarrietako bat zen garai hartan, eta Thoreau pertsonaren eskubide guztiak ezabatzen zituen sistema ankerraren aurka zegoen.

Urte berean gizakien jabe izatea bermatzen zuen Estatuak Mexikoren aurkako gerra espansionista –estatu iparramerikarraren finantza sistemaren beste euskarri bat– abiatua zuen.

Filosofoa ez zegoen Estatu gerrazale eta esklabistari laguntzeko prest, eta horregatik erabaki zuen zergarik ez ordaintzea: Sam Staples zerga-biltzaileak metatutako zorra eskatu zionean uko egin zion ekarpen fiskalik egiteari.

Ondorioa, presondegiko egonaldi laburra.

Izeba Maryk kitatu omen zuen filosofoaren zorra, Henry ilobaren asmoari muzin eginda.

Lege-haustea egitea leporatu dakioke Thoureauri, noski, ez baitzuen araua bete Estatuaren zuzengabetasuna adierazteko asmotan.

Idazlearen desobedientzia-ekintza ez zen kriminala izan, lege bidegabeak eraldatzeko asmoa baitzuen, eta bistan dago biolentziarik gabeko ekintza zibila egin zuela Thoureauk.

Beharrik 1846an ez zegoen megafono elektrikorik.

Desobedientzia zibilaren oinarriak azaldu zituen Thoureauk bere lanean, eta idazkia Tolstoiren, Goldmanen edo Martin Luther Kingen erreferente izan zen.

Susmoa dut epaileari ere on eginen liokeela irakurketak.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Izen ala izan?

Horra hor koska! Izena duen oro ba al da? Izenak, izanak... Hitzak, bakanak, bakunak, esanahi askokoak. Maite ditut hitzak, hizkuntzak, poesia, errimak, neurriak, hutsuneak... edertasuna.

Badira izan bera adierazteko izen askoko kasuak, izen aberatsak... pinpilinpauxa, txiruliru, mitxeleta, inguma, kalapittixe, tximirrika, tximeleta; beste batzuk, berriz, izen bakarreko izanak, edota izan mutuak ere: euren izatea adierazteko izenik ez! Badira umezurtzak edo alargunak. Ostera, ez ei dago munduko inongo hizkuntzarik seme edo alaba galdu duen aita edo amari deitzeko. Izan mutuak, mututako izanak...

Antzuola aldean lagun dugun Gidor Bilbao eta bere hiru kideren *Hitz-mitz*, 27 hitz liburuak hezkuntza munduko 27 hitzen etimologia dakarkigu, eta horretaz jolas egiten du. Bada bitxikeria deigarri denik ere: ohorezko matrikulaz ari dela, latinezko *honos* jatorri

HITZEK EUREK, EUREN AHOSKERAZ, IZANA BERA ITXURALDATU DEZAKETELA ERE AITORTU BEHAR DA

duela, bertatik datozen *ondratu* eta *ohortzi/ehortzi* aipatzen ditu; izan ere, jatorriz horixe da ehorztea, norbait ohoratzea. Ehortzi, ohorez agurtu...

Hitzei irudia

gailendu zaien, edo gailentzen ari zaien, gizartean bizi ei gara. Ez dakit hala den. Potentzialtasun handia omen irudi eta emotikonoek. Zuzenean emozioa ukitzezko gai!

Hitzen pobretze hori tamalgarri izanik, larriago deritzot hitzen bidez izana bera aldaraztera iristeari. Opor oste honetan harritzen nau nola komunikabide askok lanera bueltatze-aurreko depresio eta estresaz hitz egiten duen; lehen, nagikeria edo gogorik eza ziren. Esan diezaiotela hori benetako depresio bat izan duenari! Izenaren bidezko izanaren prostituzio bat dela uste dut.

Hala ere, hitzek eurek, euren ahoskeraz, izana bera itxuraldatu dezaketela ere aitortu behar. Biak txerriak izango dira, baina *Peppa pig* ala *Josefa la cerda* aukeratu behar izatera, zein aukeraturiko zenukete? Ba, horixe bera, nik ere bai!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Gola

ANGERU EPALTZA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

"Non zinen zu faxismoak gora eta gora egin duen garai honetan?", galdegin du *Berria*-n Zaldierok bere komiki-bandan.

Eta pertsonaiek erantzun: "*Game of thrones*, azken denboraldian", batek. "*Fargo*, lehen denboraldian", bertze batek. "*Breaking bad*, bigarren denboraldian", hirugarrenak.

Iban Zaldua idazleak ere idatzi berri du Twitterren: "Telesailak, horra sakatu diguten asehungan gol kulturala". Dedio, mutikoak. Dramatismo gutiako. Ez dakit faxismoa hain gora ari den.

Hala balitz ere, ez litzateke bitartean telesailak ikusten ari garelako. Telesailik ezean, bertze zerbaitetan ariko ginatke, hori bezain probetxu gutxikoa. Edo handikoa.

Munduko gaitz guztiek bertze alde batera begira zeudela harrapatu dituzte beren biktimak. Kirol ikusle, zirkuari begira edo jainkoren baten gurtzan.

Faxismoa inoiz nagusitzen bada, gure ordezkari politikoena izanen da falta, alternatibak eraikitzeke duten ezinagatik, ez gurea. Aski lan dugu bakoitzak gure bizkar gaineko kargarekin.

Sentitzen dut; astegun buruzuri bateko gaueko 10etan ni ez nago faxismoa

geldiarazteko trenpua. Bai, ordea, *Easy*-ren azken kapitulua ikusteko.

Ezagutzen dudan bat baino gehiago fikzioarekin berradiskidetu da telesailari esker. Formatu horretan ere zabor pila dagoela? Jakina, zinemaren eta literaturaren bezala.

Beharbada, egia da gola sartu digutela.

Batzuetan Aduritzek Bartelonari sartu zion bezalakoa da delako gola: begietarako eta garunetarako oparia.

Euskaraz ez dugu halako saririk. Bertze upel bateko ardoa da hori.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereizbar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendaria komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailkatu arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Deitzailearen sentimenduak dira oso inportanteak"

MAITE GONZALEZ ITXAROPEN TELEFONOAREN ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Abiatu duen kanpaina bat ezagutzera emateko, hainbat herritan izan dira Gipuzkoako Itxaropen Telefonoaren Elkarteak. Goiena telebistan izan da elkarte koordinatzailea, *Hemen Debagoiena* saioan.

Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidearen ostean, oraindik ere ezezaguna da zuen elkartea. Zergatik da hori?

Itxaropenaren telefonoa izena gehienok entzun dugu inoiz, baina gure funtzionamendua edo egiten duguna eta eskaintzen dugun zerbitzua ez dira horren ezagunak.

Horregatik hurbildu nahi izan dugu elkartea

herritarrengana, eta autokarabarekin gabiltza herririk herri. Harrera ona izan dugu. Oso pozik gaude.

Zein da, zehazki, itxaropenaren telefonoaren funtzionamendua?

Gure zerbitzurik inportanteena da arreta telefonikoa. Urteko egun guztietan eskaintzen dugu



Maite Gonzalez, eguztaren, Arrasaten; atzean, telefonoa. ENEKO AZKARATE LASPIUR

zerbitzua. 25 bat boluntario daude deiak erantzuten. Euskal hiztunak. Entzute aktiboa bultzatzen dugu: enpatiaz, juzgurik gabe... erantzuten saiatzen gara. Deitu duenak esateko

daukana entzutea da gakoa. Deitzailearen sentimenduak dira inportanteak. Ikusten badugu deitu duen pertsona baten arazoa larria dela, beste zerbitzu bat eskaintzen dugu: laguntza psikologikoa.

Zenbat irauten dute deiek?

Jeneralean, 30 bat minutu. Gehienez, ordubete. Hortik aurrera zaila da entzute aktiboa lortzea.

Urtero 3.000 bat dei jasotzen dituzue. Jendeak zergatik deitzen du, ze arazorengatik?

Gehienek, daudelako. Era berean, baita arazo familiarrengatik ere, hainbat mendekotasunengatik, antsietatearengatik, depresioak jota daudelako...

Azkenaldian, ludopatia arazoengatik, erosketa konpulsiboengatik... ere bai.

Deitzen duenaren profilik bada?

Saiatzen gara ez tipifikatzen. Edozein pertsona izan dezake laguntza premia. Halere, emakumezkoak gehiago dira eta, azkenaldian, jende geroago eta gazteagoak ere deitzen du.

Gizarte moduan, entzuten diogu elkarri, badugu alboan entzuteko prest dagoen norbait?

Jende asko dago oso bakarrik sentitzen dena. Kontua ez da bakarrik bizitzea, baizik eta bakarrik sentitzea, familiarekin bizi arren.

Hau guztia nork finantzatzen du?

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena daukagu sinatuta eta hainbat udalek diruz laguntzen dute. Horretaz gain, bazkideak ere baditugu.

HAU BE BADOGU!

Klima aldaketaren aurkako aldarriak



Klima aldaketaren aurkako aldarriak ozen entzun dira asteon sare sozialetan ere:

@GaraziAuzmendi: "Politikarien ahotan 'klima aldaketa' eta 'basoberritzea' esaldi berean entzundakoa dardarka jartzen naiz...".

@elisa_sdem: "Gazteek #klimaaldaketa epaitegira daramate: Greta Thunbergekin eta beste 15 gazte munduko herrialde kutsaile nagusien artean 5 salatu dituzte (Argentina, Brasil, Frantzia, Alemania eta Turkia) umeen eskubideak urratzeagatik".

Egoitzetako langileen greba

Gipuzkoako adinekoen egoitzen langile ugari greba egiten ari dira egunotan; eta sare sozialetan, adibidez, *trending topic* izan dira #erresidentziakborrokan eta #zaintzaldia aldarrikapen traolak:

@ainhoasarasola: "Grebaren dauden Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileen aldarriak entzun dira eguerdian Kursaal atarian. Zinemaldiaren testuinguruan, #zaintzaldia ekimena hasi dute gaur".

Donostia Zinemaldia berbagai izan da

Zinema jaialdian, gainera, hizpide izan dira debagoiendarren filmak:

@Zetxaburu: "Bikaina *Agur Etxebeste*. Zenbat erreferentzia politiko-sozial, zenbat antzezle handi agerpen txikiak egiten... Berriz ere ederki pasarazi diguzue, Asier Altuna eta Telmo Esnal. #Zinemaldia #SSIFF67".

@aitzibersanroma: "Zorionak *La trinchera infinita* filmaren egile guztiei. Ikaragarri ongi kontatutako istorio hunkigarria".

ITURRI ONETIK

'Humanity at music'-ekoak ETBn Gabonetan

Humanity at music Mondragon Taldearen sinfonia kooperatiboa, bere adierazpen gorenean, Gasteizen aurkeztu zen, ETBk grabatu zuen eta telebistan eman zuen osorik. Orain, ETB, Gabonetara begira, saio berezia egitea aztertzen ari da. Azaroaren 30ean grabatuko lukete, Arantzazun. *Humanity at music* ikuskizuneko musika pasarteak, beste kanta herrikoi batzuk eta Gabonetako kantak jaso nahi dituzte. Ikuskizunean parte hartu zutenekin eta beste musikari batzuekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-09-26

Maidar Undaren lehen brontzea Mundukoetan

Maidar Unda aramaioarrak brontzezko domina lortu zuen Herning-en, Danimarkan, jokaturako borroka libreko Munduko Txapelketan. Euskal kirolarien artean nazioarteko txapelketetan domina gehien lortu dituztenen artean dago. 2009ko domina haren ostean, 2012an, Londresko Olinpiar Jokoetan ere lortu zuen. Eta, horretaz gain, zilarrezkoa lortu zuen Europakoetan 2013an eta beste bi brontzezko 2010ko eta 2012koetan. 2016an hartu zuen erretiroa.





Horazio Argarate, San Juan Bataiatzailea parrokiaren atean. XABI URZELAI

"Deituz gero, Munillak entzun bai, baina jaramonik ez"

HORAZIO ARGARATE APAIZA

Eibartarrari, agur esateko ordua heldu zaio, herrian hamar urteko egonaldia egin ostean. Arrasatear askorengan arrastoa utzi ostean, domekan esango du Oñatin lehen meza

Xabi Gorostidi ARRASATE

Victoriano Etxabe apaiz berria datorren astean helduko da Arrasatera, eta, permuta lanak egiten hasi aurretik, GOIENA-rekin batzartu da Argarate. **Arrasaten hamar urteko ibilbidea egin ondoren, heldu da agur esateko ordua; zer sentitzen duzu? Zer duzu orain buruan?**

Hamar urte ziztu bizian pasa dira, eta badirudi duela egun batzuk hasi nintzela hemen. Aldi oso ona izan dut hemen bizitzan, eta ezin sinistu nago

hainbeste denbora pasa denik. Orain, sustraiak moztea eta beste loreontzi baten sartzea tokatzen zait, eta halakotan beti sortzen dira kezkak.

Sinesmen aldetik nola aurkitu zenuen Arrasate duela hamar urte? Eta nola uzten duzu orain?

Txarto. Fedea neurtzea gauza zaila da. Indikatzaileak aurkitzea ez da erraza, baina badaude batzuk. Horietako bat, adibidez, bataioak dira. Hasi nintzenez, nahiko zorrotzak ginen bataio kontuekin. Garai

hartan, ume asko bataiatzen zen. Demagun 200 jaiotzatatik 120 bataiatzen zirela, eta haiei bataioa *kartara* emateko ez genuen astirik. Orain, jaiotza kopurua 200 inguruan mantentzen da, baina bataioak nekez heltzen dira 25era. Eskerrak hegoamerikar asko datozela gurera, eta horri esker eusten diegu bataioei. Azkenean, ez badira bataioak egiten, ez dira jaunartzeak egiten... eta hor Elizarekiko haustura bat sortzen da.

Sinestun kopurua behera doa, apaiz falta... badaude beste indikatzaile batzuk. Zure ustez, zer egin behar du Elizak egoera honen aurrean?

Gipuzkoan, adibidez, badago zer hobetu, nire ustez; batez ere, gotzainaren jarrerarekin. Agintean daudenek zera pentsatzen dute: "Lehen, okertu egin ginen, eta atzera jo behar dugu. Bigunegiak izan gara, ez gara zorrotzak izan gizartearen kontra". Nolabait, iraganeko jarrera autoritarioak jarraituz, antzinako egoerara itzuli gaitzkeela pentsatzea... Hori da inboluzionismo bezala ezagutzen dena, eta gure elizetan indartzen ari den mugimendua. Beste batzuek uste dugu Jesukristok baduela bere mezua, oraindik on asko egin dezakegula, eta, gizarteak mezu hori jaso dezan, gaur egungo hizkuntzan egin behar dugu berba. Fedea galdu aurretik sinesgarritasuna galdu dugu, eta hori da berreskuratu behar dugun lehen gauza. Sokatira horretan gabiltza.

Amarako kasua hor dago; Arrasateko fededunak haserre daude. Zein da zure iritzia Gipuzkoako gotzain nagusiak duen agintzeko moduari buruz?

Aurrekoaren oso ezberdina da. Munilla beti dago artatzeko prest, eta edozein unetan da erantzun bat emateko gai. Setien, zentzu horretan, askoz hotzagoa zen, kontaktatzeko zailagoa, eta bitartekari gehiago erabiltzen zituen. Hala ere, Munillak, entzun bai, baina jaramonik ez. Langile amorrata da, baina irmoa. Ez da bere posiziotik batera mugitzen, eta zera transmititzen dizu: "Egia nik daukat. Ni naiz Donostiako gotzaina, eta uste dut gauzak horrela egin behar direla". Zure alboan jartzeko ez du inongo arazorik, baina ez da zure maila berean jartzen. "Zuk nire maila berean hitz egin ahal izateko Donostiako gotzaina izan beharko zenuke, baina ez daude halako bi, bakarra baizik".

Eliza gaur egungo gizartera moldatzea aipatu duzu, eta pausoak eman dituzu norabide horretan: San Frantzisko deskralizatzearen alde, hileta zibilen alde...

Natural jokatzeko duen, eta hala posizionatzen naiz. Adibidez, hileta zibilen kontuan, zera nabarmendu behar da: gaur egun, joera, tamalez, ezer ez egitea dela: ez Elizatik, ez bide

zibiletik. Heriotza pribatizatzen ari da, eta ez digu gizatasun gehiago ematen heriotza alboratzeak. Azken agur duina emateko antolatuta egon behar dugu, era batera edo bestera hori bideratzeko: baina ez negozio-mailan, pertsona eta gizatasun mailan baizik. Horregatik, San Frantzisko eliza zibilak egiteko erabiltzea egoki ikusten dut. Fededun bat baino gehiago etorri izan zait horrekin ados ez dagoela esaten, eta ziur frantziskotarrek ere ez dutela begi onez ikusten; baina nire ustez, merezi du.

Askok diote apaiz bezala ezberdindu zaituena behartsuei laguntzeko egin duzun lana dela; batez ere, etorkinen kasuan. Zer-nolako laguntza eman diezu?

Laguntza arlo askotan eman daiteke. Nire kasuan, zeregin administratiboak egiten lagundu izan diet, gehienbat, eta hor, adibidez, errolda sekulako giltza da. Arrasaten jende askori lortu diogu errolda, eta erraztasunak izan ditugu. Nahiz eta etxebizitza egoera kaxkarran egon, eta nahiz eta etorkinak bertan bizi ez, Udalak malgutasunez jokatu du. Arrasate 20.000 biztanleren muga horretan dago, eta hortik jais-teak eragin handia du Foru Aldundi mailan: dirulaguntzak, zerbitzuak... Baina, adibidez, Aretxabaletan eta Bergaran askoz zorrotzagoak dira horrekin, ez dutelako biztanle kopurua maila batetik gora mantentzeko behar hori.

Laguntzak ere ukatu dituzu?

Denetarik dago. Batzuei lehen bultzada ematea nahikoa da, euren kabuz hegan egiteko. Baina beste batzuek ez dute esfortzurik egiten. Azken hauei lehen bultzada emateko beti nago prest, baina, erantzuten

"200 UMETATIK 120 BATAIATZEN ZIREN DUELA 10 URTE; ORAIN, NEKEZ HELTZEN GARA 25ERA"

"FEDEAREN AURRETIK SINESGARRITASUNA GALDU DU ELIZAK; HORI BERRESKURATU BEHAR DUGU"

ez badute, iturria moztu behar zaie. Laguntza behar duen jende asko dago, eta merezi ez duten horiekin denbora ez galtearen aldekoa naiz. Esaldi gordina da, baina, tamalez, hala da: badaude arazoak dituzten pertsonak, eta badaude arazo diren pertsonak.

Zenbat etorkini lagundu diezu?

Nik lagundutako 30 lagunek egin dute bide osoa: paperak lortzen lagundu, lana lortu eta euren kabuz bizi. Bide erdiraino, beste 70 lagun inguru. Eta asko izan dira laguntzen hasi bai, baina laguntza merezi izateko esfortzurik egin ez dutenak.

Zer sentitu zenuen Arrasateko elizkoien oharra irakurrita?

Ulertzen dut euren haserrea. Sekulako lana egiten dute Elizaren alde, eta lan horren erdian jotzen duen erabaki bat hartzeko orduan inork ez ditu kontuan hartu. Baina zaila zen horri buelta ematea, batez ere, nik hasiera batetik eman nuelako baiezkua, baldintzarik gabe. Elizan, akaso, ez daukagu sen demokratikoa hain barneratuta, eta baietz esan aurretik eliz komunitatea kontsultatzeko baldintza jarri izan banu...

Jaso duzu arrasatearren esker ona?

Oñatira noala jakin zenetik, txunditzekoa izan da jaso dudana. Arrasatearren serio samarrak zarete, orokorrean, sentimenduak agertzeko, baina azken hilabeteetan sentitu dudana afektuak gainditu egin nau. Negar egiterainoko esker mezuak jaso ditut, bat baino gehiago.

Zer moduz oñatiarrekin edukitako lehen harremanak?

Oso jende atsegina aurkitu dut. Parrokia oso ondo estrukturatuta dago, eta Elizak hemen baino funtzio gehiago hartzen ditu bere gain.

Caritas-en egindako lana

Caritas elkartearen buru-belarri aritu izan da Horazio Argarate, eta lanak hainbat fruitu eman ditu. "Ez da justua lan horretan guztian Pilar Arzamendi aipatu gabe uztea", dio Argaratek.

San Frantzisko elizan hutsik zeuden frantziskotarren logelak alokairuan jarri zituzten, errenta xume batekin. Hala, diru sarrera baxuak dituzten etorkinek erabili dituzte, nagusiki. Edozelan ere, Caritasek Kataide industrialdean duen zentro okupazionala izan da "lorpenik handiena", Argarateren ustez. 600.000 euroko inbertsioa egin zuten, eta, gaur egun, 60 lagun ingururi ematen diete zerbitzua. Lan egiteaz gain, bazkaldu eta arropak garbitzen dituzte bertan, eta lan merkatura sartzeko konpetentziak garatzen dituzte. "Promozio-lan hori askoz hobeto egiten ari gara bertan, heziketa proiektu baten barruan; hori da eman diezaikegun laguntza eraginkorrena".



Caritasen zentro okupazionala. X.G.

"Etorkinak laguntzen nekaezina da"

Irudikoa Rex Urbina da, Horaziok lagundu duen pertsona horietako bat. "Caritasen boluntario gisa nabilela ezagutu nuen Horazio, 2014an. Nire kasuan lana banuen, eta ez nuen laguntza ekonomikorik behar. Baina nire emaztea osasun arazo larriekin zebilen, eta laguntza morala behar nuen. Eta egia esan, ordutik hona guraso bat bezala da Horazio niretzat.

Egonkortasuna eman dit, eta horri esker, ostalaritzarekin lotutako ikasketa titulu berriak eskuratu ditut, eta lan munduan aurrera pauso garrantzitsuak ere. Hala, nire familia hona ekartzeko lortu dut, eta lanean ari dira denak: arreba, bi anaiak...". Zera dio Horaziok ematen duen laguntzari buruz. "Horazio nekaezina da etorkinak laguntzen. Hark eta haren lan-taldeak lan sozial oso gogorra egiten dute; edonor egiteko gai ez den horietakoa".



Rex Urbina. X. GOROSTIDI



X. GOROSTIDI

Musika Etxeak badu "hezurdura"

Juan Arzamendi Musika Etxeko estrukturararekin lotutako lan gehienak eginda daude, eta orain, gelen eta espazioen banaketa-lanak egiten dihardute. Lanen %50 gaindituta dagoenez, bisita gidatua egin dute, asteon, udal ordezkariak eta baita etorkizuneko erabiltzaileek ere. "2020ko udarako amaituta egotea espero dut", azaldu du alkateak.

Gipuzkoa etorbideko lanek zazpi hilabete iraungo dute

Asteon hasiko dituzte Gipuzkoa etorbidean espaloia konpontzeko lanak. 150 metroko espaloia da eraberrituko dena, Beberly tabernaren aldean dagoena, hain zuzen. Aurrekontua 153.845 eurokoa da -BEZa barne- eta lanak Artzamendi enpresak egingo ditu. Espaloia eraberritzeko lanak bi fasetan banatuko dira: lehena, MRWren bulegoaren paretik Errando Gebara kale-burura; eta bigarrena, Errando Gebara kale-burutik Kabiako biribilgunera. "Hirugarren faseko lanak autobus geltokitik kiroldegira izango dira eta horiek 2020ko aurrekontuetan egitea aurreikusten da", azaldu du OZMAko buru Oscar Garciak.

OHARRAK

Gudari Eguna

Gaurko, manifestazioa deitu du Sortuk: 18:30ean, Seber Altube plazatik irtenda.

Pentsiodunak

Astelehenean, Oñatin egingo dute elkarretaratzea, *Berdin dio nork gobernatu, guk pentsioak defendatu* lelopean; 12:00etan, herriko plazan.

Odol emateak

Urriaren 1ean, anbulatorioan, 16:30etik 20:00etara.

Udalatxera irteera

Turismo Sailak herriko tontor nagusira irteera antolatuta du domekarako. Hitzordua: 12:00etan, Udalako goiko baserrietako aparkalekuan.

Matrikulazio epea zabalik!

Urriaren 1etik 9ra
2018-2019an jaiotakoentzat

Arrasateko
HAURRESKOLAK
Zure lasaitasuna gure helburua



MUSAKOLAKo Haurreskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABEko Haurreskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTU DE EDUCAZIOA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Heldu da Etxezarreta ezagutarazteko eguna

2018ko azaroan publiko bihurtu eta gero, naturgunea herrira zabaltzeko goiz-pasa prestatu dute urriaren 13rako Besaidek, Naturtzaindiak eta Udalak: mendi ibilaldia, bisita gidatuak eta zuzeneko musika izango dira osagaietako batzuk

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasate eta Bergara artean, lehengo Vasco-Navarro trenaren eta gaur egungo bidegorriaren alboan dagoen 83 hektareako naturgunea da Etxezarreta; bio-niztasun eta ondare aldetik oso aberatsa dena.

Lehen, pribatu; orain, publiko

2016ko abenduan, naturgune hori publiko izateko "adorea eta ambizioa" eskatu zieten herriko hainbat elkartek udal ordezkariari. Euren arteko eztabaidak alde batera uzteko eta herriaren onuran fokua jartzeko eskatu zieten, eta, gutxitan gertatzen den arren, politikariak ados jarri ziren, eta, hala, gaur egun Etxezarreta eremua jabego publikokoa da. Udalak 270.000 euroko inbertsioa egin du lursaila erosteko, eta orain, disfrutatzen hasteko ordua da.

Natur ondarea

Eguaztenean aurkeztu zuten egitaraua. Bertan, Naturtzaindiako Naiara Corcuera azpimarra jarri nahi izan zuen bio-niztasunaren kontserbaziorako Etxezarretak duen garrantzia: "Alde batetik, lorategia daukagulako; bertan, XIX. mendetik espezie berezi asko daude: *Sequoia Sempervirens*, *Cedrus Atlantica*... Eta bestetik, baso inguruan hariztia berreskuratu dezakegulako. Bio-niztasuna mantentzeko aukera oso interesgarria da, batez ere, oso eremu zabala delako".

Ondare historikoa

Aspektu horretan ere aberatsa da Etxezarreta, eta hori izan zen Arrasate Zientzia Elkartearen proiektuan inplikatzeko arrazoi nagusia. Bertan, Sagasti-etxe izeneko baserria dago, XVIII. mendekoa dena. Baserri berezia da, ez bairik gabe, besteak beste, munduko hainbat lekutako sagarrondoak zituelako, ganadua-erentzako korta modernoa zue-



Maitane Muñoz, Eñaut Iturbe, Naiara Corcuera eta Maria Ubarretxena. XABI GOROSTIDI

ETXEZARRETAREN ONDARE NATURALAK ETA HISTORIKOAK PISUA IZANGO DUTE EGUNEKO EKINTZETAN

lako -baldosekin eta animalientzako ur-hornidura sistema batekin-, XIX. mendeko lorategi botanikoa duelako eta bertako azken ugazaba Rafael Ariza Etxezarreta jakintsua izan zelako. Hala ere, hori guztia ondo ezagutzeko modurik egokiena urriaren 13an Jose Mari Velez de Mendizabalek egingo duen bisita gidatura joatea izango da.

Egindako lanak

Udal langileek hesi batzuk jarri dituzte errekararen albotik segurtasunez pasatzeko, eta, urriaren 13ra bitartean, garbiketa-lan batzuk ere egingo dituzte. Horrez gain, Lexu eta Jowon artistek mural bat margotuko dute, bidea autobide azpitik pasatzen den tokian, eta Maria Ubarretxenak konpromisoa hartu zuen etorkizunean etorri daitezkeen esku-hartzeko berriak egiteko.

Urriaren 13ko egitaraua

- **08:00** Biterin, mendi-ibilaldia Etxezarretara.
- **10:30** Gaiteroekin kalejira, Biteritik Etxezarretara.
- **11:00** Etxezarretan: Zigor Enbeita eta Danel Goikolea bertsolariak; Ttakun taldeko txalapartariak; *Natura sortzen eta jolasten* dinamika; eta Maider Alcelayren ipuin kontaketa.
- **12:00** Bisita gidatua; Jose Mari Velez de Mendizabalek eremuaren deskripzio historikoa egingo du, Ortuolako Antxon Zabaletak lorategi botanikoaren bitxikeriak azalduko ditu eta Naturtzaindiako Naiara Corcuera, eremuaren biodibertsitatea.
- **13:00** Arrasate Musikaleko ikasleen zuzeneko emanaldia.

Garagartzako jaiak, buzkantz usainarekin eta rock doinuekin

Bihar, adibidez, laminaren jaitsiera berreskuratu dute, aspaldiko partez; domekan, zaldi gainean arituko dira

X.G. ARRASATE

Gaur egingo dute eztanda Garagartzako San Migel jaiak, berezkoa duten buzkantz usain goxoarekin. Ikurrina jarri eta etxafuegoak jaurti ostean, buzkantz-jana egingo dute, 19:30ean.

Buskantz Rock jaialdiaren beste edizio bat egingo dute, non Garagartzako auzotik irtendako rock talde ospetsuenak joko duen: Kañeria 13-k. Etxeko zapatekin joko dute, baina ez bakarrik, euren aurretik joko baitute Txarrikumeak eta Repelencia talde gazteek.

Zapaturako hainbat ekintza prestatu dituzte: 09:00etan, gaiteroekin diana; 11:00etan, umeentzako jolasak; 12:00etan, hildakoen aldeko meza; 13:00etan, bermuta; 15:00etan, auzo bazkaria eta paella lehiaketa; 18:00etan, Gorriti eta bere animaliak; 20:00etan, pintxo-pote musikatua; 22:00etan, laminaren jaitsiera; eta 22:30ean, DJak.

Domekan, adibidez, 10:45ean meza nagusia, 11:00etan zaldiak eta 12:00etan euskal dantzak izango dira. 13:00etan, auzo luntzarekin amaituko dira jaiak.

Santa Barbarako ur parke berria egiteko lanak hasi dituzte

Haurren Kontseilutik irtendako proiektua egiteko lanak asteon hasi dira. Sei hilabete iraungo dute, eta, horiek iraun artean, oinezkoak ezin izango dira parkeetik igaro. Lanak egiteko materiala Arrasate pasealekuko sarreratik garraiatuko dute, baina espazio hori langileek eta oinezkoek erabili ahal dute. "Taldean jolasteko gunea izango da, eta haurrek aukeratu dituzte zelako jostailuak edo tresnak izango diren; askotariko ur-txorrotak eta bestelako ur-jostailuak jarriko ditugu. Eta, horrez gain, egurrezko mahaiak eta etzanda egoteko berdegunea ere bai", azaldu zuen alkateak, proiektua aurkeztean.

Ardoa, gazta eta inbutu preziatua, gaur, Nobenaixuen

Urtero legez, Maritxu Komisiñue-k herriko elkarte bat omenduko du, eta aitortza Musakolako jai batzordeari egingo diote. 2019ko jaietako agurrean argi utzi zuten ez zutela jarraitzeko asmorik, eta urte hauetan egingadako lana sarituko diete inbutu preziatuarekin. "(Alboko) herriaren egin dauen eta egiten dauen lan danagatik"; hori aipatu dute Komisiñue-ko kideek, betiko umore puntuarekin.

Hala, Maritxurengan fedea duten guztiek 18:30ean dute hitzordua, txikiteroen patroiairen azpialdean: "Arrimetan zarien danondako primerako ardaue eta gaztaia probetako aukerie egongo da".

BIODANTZA 679 44 12 29
EUSKAL HERRIAN Iraila 2019
Zabaldu gorputza Bizitzara

URRIAK 2, ASTEARTEA
ARRASATE,
19:30
 Yoga elkarte
 Rakel Ampudia

www.biodanzanai.com
www.biodanzaescuelaoficial.com



INSTALAZIO BERRIA ARRASATEN

%40ko deskontuak

0KM Hyundai gama guztian

San Andres kalea, 6 • 20500 ARRASATE (Mugarri Eraikina) • 943 79 70 06 • Oarsocar.com

 **GRUPO
EASO
MOTOR**



Sentsazio "oso onak" ligari hasiera emateko

Arrasate Rugby Taldeko senior mailako gizonetakoak "gogotsu" daude Euskal Ligako bigarren maila hasteko. Aurreko asteburuan, lagunarteko txapelketa jokatu zuten, eta partidu guztiak irabazi. Ligako lehen partidura "egindako lana" erakusteko gogoz doaz

Jone Olabarria ARRASATE

Asteburuan jarriko da martxan Euskal Ligako bigarren mailako liga txapelketa, eta, estreinaldiko jardunaldiaren baitan, Arrasate Rugby Taldeko seniorrek Iruñeari egingo diote bisita. Zapatuko hitzordura begira, "irabazteko helburuarekin" doaz arrasatearrak, eta handik "lau puntuak ekartzea" espero dutela azaldu du Julen Barrutiak, senior taldeko entrenatzaileak.

Ikasturte berria prestatu eta taldearen sasoia frogatzeko asmoz, Barrutiaren mutilek hiruko lagunarteko txapelketa jokatu zuten zapatu arratsaldean, hilak 21, Mojategin. Hala, 20 minutuko lau partidu jokatu eta laurak irabazi zituzten arrasatearrek, Gaztedi eta Zornotzako Urgozo taldeen aurka. Txapelketan izandako sentsazioez galduta, "oso ondo" jokatu zutela azaldu du, jokoa "dinamikoa" izan zela, eta baloia zabaltzen "trebe" ibili zirela.

Hala ere, dena ez zen positiboa izan taldearentzat; izan ere, bi jokalarik min hartu zuten eta zelaitik erretiratu behar izan zuten lesionatuta; Oxelek belauanean hartu zuen min, eta Joseba, masailezurreko fisura batekin, Gasteizko Santiago ospitalera eraman behar izan zuten.

Ligari ekiteko "gogoz"

Aurten, bigarren mailan arituko dira Arrasate Rugby Taldeko mutilak, eta, Barrutiaren esanetan, sentsazio "oso onak" dituzte ligari begira. Orain arte egindako lanarekin "gustura" sentitu direla aitortu du, eta bai jokalariek, bai entrenatzaileak "lanerako gogoz" daudela azaldu du.

Iruñearen aurka jokatzeko "prest" daude: "22 jokalarik ditugu aurten. Aurreko asteburuan, bi jokalarik baino ez genituen aldatuta egiteko, eta oraingoan, zazpi izango ditugu; hortaz, malgutasun handiarekin jokatzeko aukera izango dugu".

Erronka berriak

Aurten, lehen urtez gidatuko du ligan senior taldea Julen Barrutiak. Harrobiko taldeen ardura izan ostean, senior taldea gidatzera salto egin du 25 urteko arrasatearrak. Hainbat urtean ARTko jokalarik izan ostean, iaz utzi zion jokazeari, eta, besteak beste, gazte taldearen eta Eus-



Aurreko asteburuan jokaturako lagunarteko txapelketako irudia. ARRASATE RUGBY TALDEA

kadiko 16 urtetik azpikoen entrenatzaile izan da. "Niretzat ere erronka bat da senior taldea gidatzea; errendimendu aldetik garrantzi handiagoa du, baina,

momentuz, pozik gaude, bai jokalariek, baita ni ere. Seriotasunez eta gogo handiarekin gabilta lanean aurtengo denboraldiari begira".

Txorbela Otxotearen kontzertua, Castroko abesbatzarekin

Bihar, hilak 28, Txorbela Otxoteak eta Castro Urdialesko Coro De Voces Graves abesbatzak kontzertua eskainiko dute San Frantzisko elizan, 19:30ean.

Hain zuzen, Castro Urdialesko Coro De Voces Graves Los Templarios abesbatzarekin egingo duten elkartrukearen lehen zatia da. Bigarrena Castro Urdialesen egingo dute, azaroaren 16an. Elkartrukeetan ohikoa den moduan, kanpotarrek emango dute kontzertuaren zati handiena; Txorbela Otxoteak, ondoren, beste lau abesti eskainiko ditu; eta, azkenik, denen artean, beste bi abestirekin bukatuko dute ekitaldia.

OHARRAK

Ipuin kontaketak

Nagore Txintxurretaren eta Mireia Delgadoren eskutik izango da, urriaren 2an, 18:00etan, Kulturaten; eta urriaren 3an, Santa Marinaran.

Taila ikastaroa

Hasierako mailara zuzenduta, urriaren 7an hasiko da eta 30 ordu iraungo du. Izena emateko, 618 88 64 32 telefonora deitu behar da.

Musika gaztetxean

Bihar, hilak 28, El Exterminio De La Raza Del Mono, Traspotin Y La Boletobanda eta Subversion X taldeak arituko dira taula gainean, 22:00etan hasita.

speaking globally.

ENGLISH FOR ADULTS

MORE THAN JUST BUSINESS ENGLISH
Ingelesa, nahi dudalako. EDO lanerako.

- Garaia Parke Teknologian dago Speaking Globally, eta hurrengoa eskaintzen du:
- Irakasle profesionalak. Guztiek dute 10 urte baino gehiago esperientzia eskolak ematen: batzuk jatorrizko hiztunak eta beste batzuek 10 urte baino gehiago eman dute ingelesa hitz egiten den herrialdeetan bizitzen
- Talde txikiak - 5 pertsona, gehienez
- Zure behar pertsonalen arabera coach bat
- Eskola arin eta motibagarriak
- Real English zure coach pertsonalarekin
- Maila guztietako taldeak
- Helduentzako taldeak, ingurune profesionalean
- Testaturako metodologia propioa

Negoioetarako eta lanerako ingelesa	Ingelesa, nahi dudalako.	Ingeles akademiko eta tekniko
Garaia Parke Teknologikoa Goiru,1- A eraikuntza - 3. solairua 20500 Arrasate	Matrikula zabalik Informa zaitetz!	info@speakingglobally.com 943 253 611



Jarindoko tontorreko buzoia. BASOTXERRI

Mendiko inspirazioarekin kontakizuna osatzera

Idazketa eta mendizaletasuna lotuta, ekimen polita martxan jartzekoa da Txirritola. Aramaio inguruko bost tontorretan koaderno bat utziko dute, eta kontakizun baten hasiera idatzita. Mendizaleek kontakizunari jarraipena ematea izango da kontua

Julen Iriondo ARAMAIO

Ikasturte berriari ideia eta ekimen berriekin ekin dio Txirritola euskara elkarteak. Horietako bat da urri hasieratik azaro erdialdera abian izango den *Hitzak mendietan* izenekoak.

"Aramaio inguruko bost mendi tontorretan, Orixolen, Asensio, Jarindon, Murugainen eta Teilamendin, bertako buzoietan, koaderno txiki bat utziko dugu, boligrafo batekin, eta koaderno bakoitzean istorio baten hasiera egongo da idatzita. Beraz, asmoa da denbora horretan igotzen diren mendizaleek, buzoian begiratu eta koaderno topatzen dutenean, istorio horri jarraipena ematea", dio Txirritolako Oihana Ameskuak.

Hilabete eta erdi ondoren, hortaz, ekimenaren emaitza ezagutzeko aukera egongo da: "Koadernoak batuko ditugu eta ea ze sorkuntza edo lan kolektibo eraikitzea lortzen dugun".

Euskal Herrian mende inguruko tradizioa dute mendiko

buzoiek; lehenagotik darabiltzaten beste herrialde batzuetatik ekarritako joera da hara igo izana egiaztatzen tontorretan buzoiak jartzea. Garaitsu hartakoa, baita ere, *Ehun mendien* erroka, bost eta hamar urteko epean ehun tontor zapaltzea jartzen duena helmuga, mendizaleatasuna handitzeko helburuarekin.

Azkenaldian, ordea, gero eta gutxiago erabiltzen dira buzoioak; oso gutxi, gaur egun, eta beste erabilpen bat ematea pentsatu dute Txirritolakoek. Bide batez, gehienongan hain hedatua ez dagoen beste ohitura bat ere bultzatu nahi dute: idaztearena, euskaraz idaztearena.

Euskaraz idazteko ohitura indartu nahian, aurrez ere egi-

ORIXOL, JARINDO, TEILAMENDI, MURUGAIN ETA ASENSIO IZANGO DIRA BOST TONTORRAK

ten ditu ekimenak Txirritolak. Azken urteetan, esate baterako, ahalegin berezia egin dute urteroko ipuin lehiaketan helduen parte-hartzea handitzeko; egingako ahaleginak –sari erakargarriekin, besteak beste–, hala ere, ez du gura bezalako erantzunik izan. Ikusteke, formatu berritzaile honen bidez, jendea gehiago animatzen den idaztera.

"Ideiaren sorreran zera dago, mendia eta idazmena lotzeko gogo. Iruditu zitzaigun buzoioak elementu erakargarria direla; beti jotzen dugu buzoia zabalzera, baina oso gutxitan topatzen dugu idatzitako zerbait. Eta, hala ere, beti egiten dugun keina da, ea buzoian zer dagoen". Oihana Ameskuaren esanetan, "sorpresa atsegina" izan daiteke buzoian koaderno aurkitzea: "Eta mendiak sormenerako bideak zabaltzen dituzenez beti, ea jendea animatzen den istorio horiei jarraipena ematera. Gero baloratuko dugu istorio horiek nola aurkeztu".

Charlie Cosh eta Mikel Gaztañaga, iluntzean, Sastiñan

Woodstock-eko jaialdiaren 50. urtemuga izanda, hango eta 1969ko musikan oinarritutako saioa egingo dute, 19:30ean hasita. Cosh abeslariak Irlandako eta Kaliforniako jatorria du, eta Akelarrearekin ibilitakoa da, adibidez. Gaztañaga, berriz, piano jolea da, Kepa Junkerarekin aritua. Gitarra eta ahoko soinua ere badarabiltzate.



Charlie Cosh. GOIENA

San Migel jaiak ospatuko dituzte Etxaguen auzoan

Aitor Sarriegi eta Iban Urdangarinek bertso afaria egingo dute gaur. Bihar, 10:00etan, kanpai errepikak; 12:00etan, meza; eta 13:00etan, txikiteoa, DJarekin. Arratsaldean, mus txapelketa, puzgarriak, umeen bolo txapelketa eta sokamuturra, *Etxango zezenekin*. 22:30ean, Lander DJa. Domekan, briska txapelketa eta txokolate-jana izango dira.

Eguenean hasiko da Laia Eskolaren ikasturtea, Zigoitian

Laia Eskolaren, Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolaren, ikasturtea urriaren 3an hasiko da, Zigoitian egingo duten ekitaldiarekin. Irantzu Varelak *Feminazi se hace* bakarrizketa eskainiko du –kultura etxean, 19:00etan–. Ikasturte berrian ere hainbat ekintza egingo ditu Laia Eskolak Gorbeialdean.

OHARRAK

Mendi martxa, bihar

08:00etan hasiko da, kiroldegian; izena, ordu erdi lehenagotik.

GAH ikastaroa

Gluteoak, abdominalak eta hankak lantzeko. Izena, udaletxean; epea, urriaren 2a.

Alaiak: kantu tailerra

Hasiera, urriaren 4an –10:00–. Interesdunok, bertan agertu.

NIRE USTEZ



JOKIN LARRAÑAGA

Sustraiak

Transmisioan datza aitona-amonen beharra, hura baitute helburu, bihotz-bihotzez. Guretzat, XXI. mendeko kontsumismo azeleratu honen biktimontzat, inoiz ahaztu ez dezagun nor garen, eta nondik gatozen. Lurra, hazia, zuhaitza eta sagarra; sagarra, hazia, lurra eta zuhaitza.

Gure egunerokotasunean galduta, askotan ahazten dugu dena elkar lotua dagoela, denok baikatoz toki beretik, eta oreka natural hau mantentzea, beraz, gure biziraupen propioaren oreka bermatzea litzateke. Askotan ez dugu kontuan gure erosotasuna lortzearen nolako sarraskiak egiten dizkiogun ingurumenari, landare, animalia eta ekosistema ezberdinak suntsitzetik, gizakiaren arteko gerrak eragitera. Eta zertarako? Urtero mugikor berri bat izateko; armairua erabiltzen ez dugun arropaz bete edukitzea; eta gure egoa sartzeko nahikoa handi diren etxeak erosteko.

Ondo irakatsiak bere fruituak ematen dituen bezala, ondo ikasiak ere bere fruituak emango ditu. Horregatik, eskerrik asko aitona-amonak guztiei, eskerrik asko zuhaitza, sustrairik gabe, erori egingo dela irakastearren.

Lurra, hazia, zuhaitza eta sagarra; sagarra, hazia, lurra eta zuhaitza.

Gura beste antzezlan izango dira urrian Arkupen

Entzute handiko konpainiak gerturatuko dira azken lanak aurkeztera, besteak beste, Eidabe, Txalo Produzioak, Vaiven eta Alanbike Teatro. Hala, umeendako eta helduendako hamabi ikuskizun eskainiko dituzte Zaraia aretoko oholztan

Mirari Altube ARETXABALETA

Antzerkiaren aldeko apustua egin du Udaleko Kultura Sailak urrirako, eta hamabi antzezlan izango dira Arkupen. Eskarmentu handiko konpainiak datoz; asko, azken lanak aurkeztera, gainera. Ikuskizunerako sarrerak urriaren 2an, eguaztenean, jarriko dituzte salgai; guztietarako prezioa 4 euro da -ikasleendako saioak debalde dira-.

Genero ezberdinak

Antzerki zaletasuna bultzatzeko eta herritarrak kultura kontsumitzera animatzeko helburuarekin jarri zuen abian Udaleko Kultura Sailak antzerki hilabetea orain dela hiru urte: "Jendearen erantzuna ona izan da, eta, horri esker, ekimena gorpuzten joan da", adierazi dute. Konpainia gehienak euskaldunak dira; besteak beste, Vaiven, Eidabe, Txalo Produzioak eta Alanbike Teatro daude, baita Belgikako Theatre De La Guimbarde taldea ere. Ikuskizunak aukeratzeko hainbat genero uztartu gura izan dituztela adierazi dute antolatzailleek, "ikusle gehiagorengana iristeko". Horregatik, umeendako sei ikuskizun daude -nera-beendako beste bat-, eta helduendako beste sei.



Conchita Tou ikuskizunaren une bat. NODE TALDEA

ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN GAINEKO GOGOETA BULTZATUKO DU PETER ROBERTS-EK

Hilabeteari hasiera emango dio Node konpainia donostiarrek; urriaren 6an, domeka, izango da, *Conchita Tou* lanarekin. Euskal Herriko mediumik onenaren paperean sartuko da Nera Arriola aktorea.

Prebentzioa lantzeko tresna

Prebentzio Zerbitzuak ere bat egin du antzerki hilabetearekin, eta, horri esker, Peter Roberts mimoak saioa eskainiko die DBHko bigarren mailako ikasleei; urriaren 2an, eguaztenean, izango da.

Mimarte proiektuarekin etorriko da mimo ezaguna, eta, magia eta umorea lagun hartuta, eta nerabeen parte-hartzea bultzatuta, alkoholaren gehiegizko kontsumoaren gaineko hausnarketa bultzatuko du, eta iritzi kritikoa sustatu.



Ion Albizu eta Jasone Garzia-Etxabe zinegotziak liburutegiko sarreran. EH BILDU

Arkupeko hainbat zerbitzurekin kezkatuta dago EH Bildu

Harrerako eta liburutegiko zenbait lanposturen behin-behinekotasunari konponbidea eman gura dio

M.A. ARETXABALETA

Arkupe kultura etxeko harre-rako eta liburutegiko zerbitzuekin kezkatuta agertu da EH Bildu. Hiru lagunek utzi egin dute lanpostua eta diete hutsune horiek betetzeko zailtasunak daudela: "Horregatik, irailaren 25, 26 eta 27 arratsaldeetan itxita egon da liburutegia". Lanpostuen behin-behinekotasuna dela arazoaren arrazoia uste dute, eta Udal Gobernuari eta langileei proposamena egin diete.

Plaza finkoak

"Sei langile genituen kultura etxeko harreran eta liburutegian, horietako bost behin-behinekoak, eta udan, hiruk utzi egin zuten. Hutsunea betetzea ez da erraza, liburutegia itxi behar izateraino une batzuetan", adierazi du EH Bilduko bozeramaile Ion Albizuk.

Egoera hori konpontzeko, behin-behinekotasuna bukatu beharra

dagoela uste dute EH Bildukoek, eta proposamena egin diete Udal Gobernuari eta langileei: "Udalak Hirigintzan arkitekto tekniko batentzat lanpostua aterako duela aprobetxatuta, Arkupeko harrerarako eta liburutegirako lanpostu bana ateratzea proposatzen dugu". Harrerako kasuan, bigarren postu bat ateratzea ere aipatu dute hutsunea sortzen denean: "Hala, bi postu finko egongo lirerate jardun osoz eta beste bat, behin-behinekoa, jardun erdiz".

Liburutegiari dagokionez, funtzionario bat dago egun osoko jardunarekin, eta beste bi lagun egon dira oraintsu arte, behin-behinekoak, egun erdiz. "Guk proposatzen dugu %100eko jarduneko plaza finko bat ateratzea: liburutegiko harrera eta kudeaketa egiteko". Egoera ez dela egonkorra uste dute eta horretarako ustea orain dela gaineratu.

Egitaraua

Urriak 6 (19:00)

- Node: *Conchita Tou*.

Urriak 9 (09:00/10:30)

- Eidabe: *Mari eta gaileta fabrika*.

Urriak 11 (19:00)

- Vaiven: *Argiaren hautsa*.

Urriak 12 (22:00)

- Nomofobikak: *Sarean kateatuak*.

Urriak 13 (19:00)

- Alanbike: *Sal marina*.

Urriak 17 (09:00/10:30)

- Tomaxen abenturak: *Azken bala*.

Urriak 19 (19:00)

- Behoko larraine: *Manifestu bat*.

Urriak 20 (19:00)

- Asociacion De Teatro Atacados: *¡Hoy milagro!*

Urriak 24 (09:15/10:15/11:15)

- 00:00 Paraiso antzerkia-Theatre De La Gimbarde: *Kubik*.

Urriak 26 (19:00)

- Intujai Teatro: *Ama-Alu-Lur*.

Urriak 27 (19:00)

- Kukumix Teatro: *Escenicás*.

Urriak 31 (09:00/11:00)

- Txalo: *20.000 legoa itsaspeko...*

Jardunaldi feministen berri emango dute udaletxe zaharrea

Azaroaren 1ean, 2an eta 3an *Salda badago!* leloarekin Durangon egingo dituzten Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministen berri emango dute gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrea (18:30). Herriko emakume guztiak gonbidatu dituzte aurkezpen horretara eta norberaren katilua eroateko eskatu dute, topa egiteko elkarrekin.

Joskintza ikastaroak antolatu ditu Gu Haziak Gara elkarteak

Josten irakatsiko du Gu Haziak Gara elkarteak. Hiru saioko ikastaro bat -irailak 30 eta urriak 1 eta 2- oinarrizkoa izango da, josteko makina erabiltzen ikasteko. Bestea, ostera, aurreratua da, eta kamisetak eta *leggin*-ak egiten irakatsiko dute, urriaren 11 eta azaroaren 29a artean. Izena emateko bideak: 688 62 37 18 eta guhaziakgara@gmail.com.

Herritarren ekarpena sanmigelak girotzeko

Lekaixokak gonbidatuta Alaia Martin eta Igor Elortza bertsoari bertsolariek balkoitik balkoira jardungo dute; horrez gain, txistulariek, trikitilariak, txalapartariak eta dantzariak girotuko dituzte bazterrak. Bola-jokoak eta dokeak ere izango dute lekua egunotan

Mirari Altube ARETXABALETA
Sanmigeleki ekiteko ezin gogotsuago daude herritarrek; horren erakusle da kantu afarirako txartelak -500 lagunendako lekua- agortu izana epea zabaldu orduko. Eguraldi ona izanez gero, beste 100 jarriko dituzte gaur herritarren eskura -txarra bada, Iturrigorri pilotalekuan

izango da-. Oraingoan ere Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldea izango dute lagun kantuan egiteko.

Bihar ere izango dute zereginik herritarrek: batzuek trikitiekin eta beste batzuek txalapartarekin girotuko dituzte kaleak. Tril emakume elkarteko kideek eta haien inguruan biltzen direnek,

ostera, urtero legez, taloak eskainiko dituzte Pagaldaixenean.

Alaia Martin eta Igor Elortza
Bestalde, iaz eskainitako balkoitik balkoira formatuko bertso saioak jarraipena izango du. Igor Elortza (Durango, 1975) eta Alaia Martin (Oiartzun, 1987) gonbidatu ditu Lekaixoka bertso eskolara, eta saio atsegina eskainiko diete Durana kalean (12:30) elkartuko diren herritarrei.

Beinke-Loramendi dantzak ere herritar mordoa eroango du Herriko Plazara (19:00). Aretxabaletar askok egingo dute dantzan, azken asteotan entseguetan jardun dutenek, eta beste asko gerturatuko dira erakustaldia ikustera, egun horretan bakar-bakarrak dantzatzeko den pieza dela jakinik.

Bola-joko txapelketa
Bola-jokoak gustuko dutenek aurten ere izango dute txapelketa. Bolatokia 16:30ean zabal-

duko dute eta txapelketari 18:00etan ekingo diote; izena emateko, 5 euro ordaindu behar da. Sari politak iragarri dituzte: lehenengoak, urdaiazpikoa eta jasotako diruaren %40; bigarrenak, txerri-besoa eta diruaren %30; hirugarrenak, diruaren %20; eta laugarrenak, jasotako diruaren %10. Eta giro onak ere ez duela hutsik egingo adierazi dute antolatzaileek: "Herritar guztiek dute lekua bolatokia, eta sekula jokatu ez duena etor dadila probatzera", adierazi dute.

Sei talde dokean
Doke txapelketa klasiko bihurtu da sanmigeletan, eta aurten ere izango du tokia. Oraingoan, sei talde elkartuko dira nor baino nor gehiago jokatzeko, Basotxoko lorategian (10:00).

Hona hemen taldeak: Loramendi, UDA, Totoro, Udala, Aratz eta Basotxo. "Giro benetan polita sortzen da, eta parte-hartzaile kopurua gora doa", diote azken horiek. Aratzekoek lehenengo hartuko dute parte, eta Durana kaleko etxean bizi direnek zein beste hainbatek osatuko dute taldea.

Kontu gehiago 35-44 orrietan
Sanmigeletako egitaraua osorik eta jaien gaineko kontu gehiago 35.etik 44. orrira jaso dituzte.

DOMEKAKO DOKE TXAPELKETA SEI TALDEK JARDUNGU DU NOR BAINO NOR GEHIAGO



Sebastian Lizaso balkoian eta herritarrek begira, iazko saioan. AITOR AGIRIANO

Kontzertuak eta taberna


Atxabaltako Gazte Mugimenduak ere girotuko ditu San Migel jaiak. Udaletxe zaharra izango dute erdigunea, eta hainbat musika emanaldi izango dira han.

Egubakoitza, irailak 27

- 18:00 Tabernaren irekiera.
- 19:30 Kontzertua: NFS.

Zapatua, irailak 28

- 12:00 Tabernaren irekiera.
- 19:30 Motxilla Band.
- 22:00 Pintxada kolektiboa.



Motxilla Band. FESTAK.COM

Txokolate-jana gaur, Kultura Astea aho zapore gozoarekin agurtzeko

Basotxo erretiratuen elkarteak antolatuta ekitaldi mordoa izan dituzte eta "pozik" daude erantzunarekin

M.A. ARETXABALETA

Ekintzaz bete-bete egindako Kultura Astea izan dute Basotxon, eta erretiratuek "harrera bikaina" egin diete guztiei. Osasunaren gaineko hitzaldia izan dute, gazta dastaketa ere bai, Getaria eta Donostia aldean izan dira, eta moda desfilea egun dute. "Urtero antolatzen dugun astea da, eta oraingoan ere erantzun ona jaso dugu. Hortaz, oso pozik gaude, eta oso eskertuta ere bai, lagundu digutenak asko izan direlako", adierazi dute zuzendaritza batzordeko kideek.



Erretiratu desfilatzen. AITOR AGIRIANO

Astea borobiltzeko, ekitaldi bi dituzte: gaur, egubakoitza, txokolate-jana elkartean bertan (17:30) eta domekan, San Migel jaien barruko doke txapelketa, Basotxoko lorategian (10:00).

Aretoko dantzak hastear dira

Bestetik, Basotxoko euskal dantzen taldeak eta kantu taldeak dagoeneko hasi dute ikasturtea. Eta urriaren lehen, martitzena, aretoko dantzei ekingo diete. Beste taldeak legez, Zainduz lokalean elkartuko dira, 16:30ean. Argibideak gura izanez gero, irakaslearen eta prezioaren gainekoak, adibidez, Basotxora jo behar da. "Dantzan ikasi edo egin gura baduzu, gerturatu; erretiratuon artean harremanak estutzeko aukera polita da, gainera", adierazi dute zuzendaritza batzordeko kideek.

Plastiko bilketa gaur, egubakoitza, klima larrialdiaren aurka

Klima larrialdiaren gaineko kontzientzia pizteko helburuarekin mundu mailan sortu den Fridays For Future ekimenarekin bat egin du Plastikoa Buruan elkarteak. Herrialde askotan jarri dituzte abian ekimenak aste honetan, eta gaur, egubakoitza, borobilduko dituzte horiek. Aretxabaletan ere klima larrialdiaren aurka jardutera dei egin die herritarrei.

Plastikoa Buruan taldeko kideek plastikoa bilduko dute, lehenengo, herriko kaleetan, 18:00etan hasita. Jasotako hori Herriko Plazara eroango dute, 18:30ean, eta han, eserialdiari ekingo diote eta aldarrikapen komunikatua irakurriko dute.

Bertso liburuan agertzeko izen-emate epea bukatzea da

Lekaixoka bertso eskolak bosgarrenez egingo du jaioberrindako liburua. 2018an jaiotako umeei eskainitako bertsoak eta horien argazkiak jasoko dituzte. Liburuan parte hartzeko epea irailaren 30ean bukatuko da.

Interesatuak honako datu hauek eman behar dituzte: umearen izena, abizenak eta jaioteguna; guraso edo tutoreen izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakiak eta helbidea; umearen bi argazki eta horren deskribapen laburra: izaera, berezitasunak, familia-kideak...

Datuak posta elektronikoz bidal daitezke, lekaixoka@gmail.com helbidera, edo Arkupeko harreraren utzi -CDa edo USBa-.



laz, Garun Paralisisaren Nazioarteko Egunaren bueltan zenbait joko egin zituzten Biblioteka alboko parkean. AITOR AGIRIANO

Eskubide berak dituztela aldarrikatuko dute

Luis Ezeizako ikasle guztiek, Tximeleta gelakoek barne, elkarrekin jolasteko, ikasteko, harremantzeko... eskubidea dutela lau haizetara zabaltzeko, 'Denok ditugu eskubide berdinak' lelopean Garun Paralisisaren Nazioarteko Egunarekin bat egingo dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urriaren 2an, eguaztenez, ospatuko dute Luis Ezeiza Herri Eskolakoek Garun Paralisisaren Nazioarteko Eguna. Hala ere, ekintzez beteta, aste osora begirako egitaraua prestatu dute, urtero moduan.

Herri eskolan Tximeleta Gela dago; Aspaceko gela egonkor bat da, eta bertan, garun paralisia edo aniztasun funtzionala duten ikasleak daude. Gaur-gaurkoz, lau ikasle daude; hain zuzen, urriaren 2an eta aste osoan zehar, ikasle horiek ezagutarazteko zenbait ekintza egingo dituzte.

'Performance'-a patioan

Urriaren 2an izango da ekintza nagusia: Haur Hezkuntzako eskolako patioan zuhaitz handi bat irudikatuko dute, 15:00etan hasita, *Denok ditugu eskubide berdinak* lelopean. "Irakasle eta ikasle guztiok batera, lurrean etzanda zuhaitz bat sortuko dugu, behera begira gaudela, eta As-

pacek ateratako *Dale la vuelta* izeneko spotarekin eta aurtengo leloarekin jokatu dugu. Hala, lurretik altzatzerakoan, ikasle bakoitza eskubide bat izango da...", adierazi du Maitane Gomez de Segurak, Luis Ezeiza Herri Eskolako irakasleak. Ekintza gauzatuko duten ordua oraindik zehazteko, gurasoei ere egingo diete dei bertaratu daitezzen. Jaiaren helburua pertsona guztien eskubideak aldarrikatzea dela adierazi dute.

Elkar ezagutuz

Urriaren 2ko ekintzaz gain, astean zehar, Haur Hezkuntzako ikasleek Tximeleta Gela bisitatzeke aukera izango dute. Izan ere, Haur Hezkuntzakoak beste

GARUN PARALISIA OINARRI, ASTE OSORA BEGIRAKO EKINTZAK ANTOLATU DITUZTE LUIS EZEIZA ESKOLAN

eraikuntza baten daudenez, ez daukate Tximeleta Gelakoekin jolasteko aukera askorik. Beraz, Garun Paralisisaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, denek batu eta elkar ezagutu eta jolasteko aprobetxatuko dute.

Ikus-entzunezkoak eta jolasak

Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoek zentzumen jolas ezberdinak egingo dituzte Tximeleta Gelakoekin batera eta *The Present* film laburra ikusiko dute. Hirugarren eta laugarren mailakoek, aldiz, zentzumen jolasak egiteaz gain, gaiarekin lotutako film laburrak ikusiko dituzte, eta ostean, bideo-foruma egingo dute. Bosgarren eta seigarren mailakoek, berriz, Garun Paralisisaren Nazioarteko Egunaren harira, Aspacek ateratako *Dale la vuelta* izeneko spot-a ikusi eta bideo-foruma egingo dute, ikusitakoa aztertzeke. Horrekin batera, zentzumen jolasak ere izango dituzte.

Auzo-alkateek kargua hartu dute iraileko ohiko bilkuran

Zazpi elizateetako eta Lete auzoko ordezkariak lanerako gertu agertu dira datozen lau urteei begira

I.B. ESKORIATZA

Iraileko osoko bilkura izan zen martitzenez, eta, besteak beste, elizateetako auzo-alkateek kargua hartzea izan zen gai zentrala puntuetako bat. Agintaldi batetik bestera, zazpi elizateetako eta Lete auzoko ordezkariak izendatzen dira, eta honako hauek izan dira datozen lau urteei begira aukeratutakoak: Apotzagan Jesus San Vicente, Bolibarren Aitor Alarcia, Gellaon Iñigo Altuna, Marinen Irantzu Azkona, Mazmelan Iñaki Zurutza, Zarimutzen Maria Jesus Fernandez de Arroiabe, Mendiolan Igor Etxabe eta Leten Oier Eskibel.

Auzo-alkateen ardurak zeintzuk diren adierazi du Iñaki Kerexeta Eskoriatzako Elizateen Elkartebozeramaileak. "Auzo bakoitzean dauden beharrak aztertzen dituzte, eta udaletxera ekarri hilero egiten dugun bi-

lerara. Bertan, garrantzitsuenak lehenesten ditugu, eta dirulaguntzak nondik jaso ditzakegun aztertzen dugu...".

Mendiolako merenderoa hizpide

Auzo-alkateak izendatuta, lanean hasteko gertu, Mendiolako merendero ohian egin beharreko jarduera interes sozialeko eta onura publikokotzat jotzeko proposamena onartu zuten.

Auzo-bizitza sostengatzeko toki kulturala egingo dute orain arte merenderoa izan den erai-kinean, eta udal ordezkariak zoriondu egin zituzten Mendiolako auzotarrak, egin duten apustuagatik. "Auzotarrek elkar batzeko leku aproposa dela ikusi dute orain arte merenderoa izan dena. Bidea luzea izan da, eta gaur, pauso garrantzitsua eman da; hala, orain, proiektua aurrera eramatea geratuko litzateke...".



Eskoriatzako auzo-alkate berriak, osoko bilkuren aretoan, kargua hartu berri. I.B.

Domeka honetan omenaldia egingo diete erretiratuei

Urtero moduan, urteroko egitaraua izango da erretiratuen omenaldian: 11:00etatik 12:30era bitartean, salda hartzeko batuko dira erretiratuen etxean; 12:30ean, meza izango dute; eta 14:00etan, bazkaria, Joseba Iñurrategi pilotalekuan; ondoren, dantzaldia izango da, eta nagusienek lore sorta eta oparia jasoko dute Udalaren partetik.

Dantza latinoak probatzeko aukera gaur, 21:30ean

Gerria mugitu nahi dutenek aukera ederra dute gaur, pilotalekuan izango den dantza latinoen ikastaroan. Dagoeneko zenbait herritarrek eman dute izena ikastaroa hasi aurretik doan emango den lehen eskola honetarako. Angel Oizartabalen gidaritzapean, bachata moderno, salsa eta txa-txa-txa dantza saioa 21:30ean hasiko da.

Berba eta berba, hamarkadara iritsi

Berbalagunak taldeak hamar urte beteko ditu ikasturte honetan, eta, hori ospatzeko, ekitaldia antolatu dute urriaren 2rako. Irekia izango da, eta, urte horietan Berbalagun izandakoen testigantzez gain, Imanol Ituñoren magia disfrutatu ahal izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ikasturte honetan, hamar urte betetzen dira Berbalagunak egitasmoa Eskoriatzan martxan jarri zela. Hori ospatzeko, ekitaldi berezia egongo da urriaren 2an, datorren eguaztenean, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Bertan, urte hauetan guztietan Berbalagunetan parte-hartu duten kideei ez ezik, herritar guztiei irekitako ekitaldia izango da.

10 Berba, 11 lagun lelopean, hamarkada honetan Berbalagunen taldean izandako zenbait kideren testigantzak entzuteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Horrekin batera, Imanol Ituño magoaren trukoak

ere izango dira, besteak beste. Hauxe adierazi du gaur egun Berbalagunak taldeko dinamizatzaile Iratxe Arresek: "Hamar urtean egindakoaren berri emateko, bideo bat proiektatuko dugu. Zenbait dinamizatzaile izan gara Berbalagunetan, bidelagunak, eta bidelariak. Beraz, animatu direnekin grabaketak egin ditugu, beraien esperientziak herritarren artean zabalteko asmoz".

Ordutegien kalbarioa

Arresek gaineratu du bost talde izan dituztela: *ahobizi-belarri-prest*-en taldea, pintxo-potekoena, kafe ordukoena, guraso Berbalagunena, eta baita paseo

Berbalagunena. Eta gaineratu du partaideekin egun eta ordu aldaketak egitea normala izan dela: "Pertsonetikiko ordutegiak zehazten saiatzen gara, eta aldaketa ugari egiten ditugu parte-hartzaileen lana edo ikasketak medio, baina beti bilatu dugu irtenbideren bat. Hala, orain arte egindakoak eta pasatako momentuak gogorarazi, eta hemendik aurrerako erronkak... azaleratuko ditugu".

Feedback positiboa

Berbalagunak taldean arituta koeen testigantzak positiboak direla eta gehienek bidelagunen garrantzia azpimarratu dutela adierazi du Arresek.



Berbalagunak taldeko zenbait kide Fernando Eskoriatza plazan, urte amaierako afariaren aurretik. I.B

'Agur, Etxebeste!' filma proiektatuko da Zaldibar antzokian

Asier Altuna zinemagile bergararrak eta Telmo Esnalek elkarrekin zuzendutako *Agur, Etxebeste!* filma Donostia Zinemaldiaren 67. edizioan, martitzenean, estreinatu zuten.

Duela hamalau urte *Aupa Etxebeste!* filmarekin Zinemaldian Gaztearen Saria lortu eta gero, etxebestetarren istorioa berreskuratu, eta euskal kome-

dia berri honekin gozatu gura duenak Eskoriatzako Zaldibar antzokian izango du aukera. Bi saio egingo dira: lehenengoa, urriaren 5ean, zapatuan, 19:00etan; eta bigarrena, urriaren 6an, domekan, ordu berean.

Filma euskaraz da, eta gaztelaniazko azpiztituluekin proiektatuko dute Zaldibar antzokian. Sarreraren prezioa, berriz, lau eurokoa da, eta alde aurretik Manuel Muñoz kiroldegian erosi beharko da. Astelehena ezkerre salgai daude.

Maila Nazionala kanpoan hasiko du Eskoriatzak

Eta berria hasiko du asteburuan Eskoriatza areto futbol taldeak. Izan ere, Maila Nazionalan jokatu dute aurretik, eta denboraldi-aurrean etxeko lanak egin ostean, gertu daude Iker Molinaren mutilak liga hasteko. Lehenengo jardunaldia zapatuan jokatu dute, Gasteizen, Batzarre taldearen aurka. Partidua 18:00etan izango da, Abetxukon.

LEINTZ GATZAGA | 19

"Ez dago garbi hauteskundeak gauzatuko ditugun ala ez"

Ministroen Kontseiluak errege dekretu bidez onartu du udal hauteskundeak azaroaren 17an egitea

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 26an udal hauteskunderik ez zen izan Gatzagan, ez zelako zerrendarik aurkeztu. Hori horrela, sei hilabeteren ostean, azaroaren 17an izango direla jakinarazi du Ministroen Kontseiluak, errege dekretu bidez onartuta. Hala ere, ez bada inor aurkezten, herritarrek ez dute bozkatuko, eta Foru Aldundiak gestora bat izendatuko luke Udala gobernatzeko.

Orain arte Gatzagako hautesle elkarteak izan da gobernatzeko, baina azaroaren 17ko hauteskundera begira ez dago taldea

osatuta. Beste alderdiren bat ere aurkeztu ahal litzateke, baina bost boto beharko luke herrian gobernatzeko.

Taldea osatzeko lanetan

Gaurko, egubakoitza, herri bilera deitu du Udalak, hautesle elkarteak osatzeko behar diren bost hautagaiak bilatzeko. 18:30ean izango da, udaletxean, eta, pausoren bat emateko asmoz, egoera ez dela ona nabarmendu du Juanito Bengoa alkateak: "Ez dago herritarren partetik mugimendu handirik, baina zerbait erabaki beharko dugu".



2015ean hautesle elkarteak Udala gobernatzeko agintea hartu zueneko. GOIENA

Gaztainuzketako mendi-etxeak berriro zabalduko dituzte

Gaztainuzketako mendi-etxeen apartamentu turistikoaren gunea berriz irekiko dute. Udaletik adierazi dutenez, pozteko albiste da, eta berrikuntzak izango ditu. "Kosta zaigu pausoa eman gura duen norbait aurkitzea, baina lortu dugu, azkenean. Apartamentu turistikoetan ibilbide luzea daukaten Zeanuriko batzuek hartuko dute negozioa. Abala jartzea eta kontratua sinatzea geratzen da; datozen egunotan egingo dugu. Dena ondo bidean bada. Hala ere, mendi-etxeak kudeatuko dituzte; orain arteko taberna harrera moduan erabiliko dute, hasiera batean", adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako alkateak.

Egurra batzeko deialdia zabaldu du Gatzagako Udalak

Erabilera publikoko mendietatik ateratzen den 2019rako auzo-egurraren aprobetxamendurako eskaerak aurkezteko izen-ematea ireki du Leintz Gatzagako Udalak.

Bi modalitate eskaintzen dituzte: batetik, norberak egurra ebaki, batu eta garraiatzea, dagozkion tasak ordainduta; edo, bestela, egurra etxean jasotzea, tasez gain, 650 euro ordainduta. Hala, interesa duen gatzagar orok izena eman beharko du udaletxean urriaren 11 aurretik, aukeratzen duen modalitatea aipatuz. Informazio gehiago behar duenak, bestalde, udaletxera, 943 71 47 46 telefono, zenbakira deitu dezake.



Realeko jokalarik Karim Labaien, Jokin Zeziaga eta Abdurahim Labaien elgetarrak, kiroldegiko kantxan. L.Z.L.

Hiru elgetar Realaren ohorezko kadeteetan

Jokin Zeziagak bigarren denboraldia du talde txuri-urdinean, eta oso pozik da, asko ari baita ikasten. Aurten, gainera, ez da elgetar bakarria izango: Abdurahim eta Karim Labaien anaiak ere taldean dira. Entrenamenduak abuztuaren 6an hasi ziren

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Jokin Zeziaga, Abdurahim Labaien eta Karim Labaien Realeko jokalariek dira. Aurrerantzean, ordu asko egingo dituzte Zubietan, eta gogotik egin beharko dute lan; izan ere, esijentzia maila ez da nolana hikoia. Baina gustuko lekuan aldaparik ez, eta oso gogotsu daude hiru gazte elgetarrak.

Herrikideak bakarrik ez, kintoak ere badira, eta, zalantza barik, esperientzia berri honek makina bat bizipen ekarriko die.

Txikitatik ia egunero kantxan

Elgetan aski ezaguna da hiru gazteen futbolarekiko zaletasuna. Inor gutxi eman ditu haiek beste ordu kiroldegiko kantxan. Makina bat baloi eta oinetako urratu dute bertan. Umetan, ia egunero bertaratzen ziren lagunekin zein nagusiagoekin futboleko jokatzeko.

Elgetako kantxatik Bergarako futbol taldera egin zuten jauzi,

eta talde berean aritu izan dira hirurak.

Gaur egun, pare bat orduko hiru edo lau entrenamendu egiten dituzte, astero, Zubietan. Aste batean hiru badira, hurrengoan lau izaten dira, txandaka. Aste bukaeran, berriz, partidua izaten dute. Entrenamendu-saio gehienak baloiarekin izaten dira, baina gimnasioko lanketa eta emozioen kudeaketarako formakuntzak ere izaten dituzte.

Erritmoa hori izanik, erraztasun batzuk ematen dizkie Realak. Zubietarako joan-etorriak egiteko taxi zerbitzua dute, eta, partidua zapatuarekin bada, Realaren erresidentzian egiten dute gaua barikuan, Zubietan entrenatu ostean.

PARTIDUA ETA PARE BAT ORDUKO HIRUZPALAU ENTRENAMENDU DITUZTE ASTERO

Urtebete nagusiagoak, aurkari

Zeziaga erdi-punta lanetan aritzen da eta labaiendarrak, berriz, hegaleko jokalariek dira. Urtebete nagusiagoak diren kontra lehiatzen dira txapelketan. Motibatuta daude Realean: "Alde handiak daude. Lan erritmoa eta esijentzia maila beste bat da. Entrenamenduen intentsitatea ere bai", azaltzen du Zeziagak. Gogorrena azterketa garaia izaten da. DBHko 3. maila ikasten ari dira Bergaran. "Entrenamenduetatik berandu iristen gara, eta batzuetan nekatuta, baina bagoaz aurrera".

Etorkizunari buruz galdetuta, oinak lurrean dituzte: "Gure helburua, orain, ikastea da, eta gauzak ondo egiten saiatzea. Ondo pasatzea ere bai. Gero gerokoak!", diote hirurek.

Jakitun dira horrelako aukera ez zaiola mundu guztiari ematen, eta ondo baliatu nahi dute. Jarraitzaile zintzoak dituzte etxean, eta, haien babesarekin, dena da errazagoa.

Erresistentziaren memoria jardunaldia hasiko da gaur


'Elgeta erresistentziaren memoria' jardunaldietan, pelikula bat, bi hitzaldi eta bisita gidatu antzetzua izango dira

Imanol Beloki ELGETA

Elgeta erresistentziaren memoria jardunaldiei gaur emango diete hasiera. Horretarako, *Baile en el sindicato* pelikula proiektatuko dute, 19:00etan. Datorren astean, berriz, bi hitzaldi eta bisita gidatua antzetzua egingo dituzte.

Urriaren 2an, Manolo Cainzosek *Elgetako bost emakume gerra garian* hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Zoila Ascasibar, Zenona Aranzabal, Isabel Berechignaga, Manuela Ochoa Angiozar eta Anttoni Telleria gerra garaiko biktimak dira, eta bakoitzaren bizitzaz pixka bat jardungo du hizlariak. Hala, bost emakumeen familiarak ere bertan izango dira.

Urriaren 3an, Txema Barrutiaren eskutik, *Emakumea eta Errepublika* hitzaldia izango da, ordu eta leku berean.



Elgetan ebakuazioa antzetzten. L.Z.L.

Bisita gidatu antzetzua

Urriaren 6an, Errepublika garaian bizi izandakoa antzetzuko dute, 13:00etan, *Museo Bizia: 36an Elgetan bizi izandakoaren antzezpen herrikoia* izenpean. Parte hartzeko, 943 76 80 22 telefono zenbakira deitu daiteke.

Udalak Erdeia-Tapem enpresarekin sinatuko du kontzesioa

Irailako osoko bilkura egin zuen eguaztenean Elgetako udalbatzak. Hainbat gai izan ziren mahai gainean; horien artean, Pagatza industrialdean dagoen Erdeia-Tapem enpresarekin Udalak sinatuko duen emakida edo kontzesioa. Iratx Lazkano alkateak azaldu zuen enpresak handitzeko premia duela, eta hainbat aukera aztertu ostean alde biek adostu dutela

operatiboki irtenbiderik egokiena udal jabetzakoa den 600 metro karratuko lur eremu baten emakida sinatzea. Horretarako, hainbat baldintza bete beharko ditu enpresak: "Etorkizunean desmuntagarria izango den egitura bat egiteko baimena izango du materiala gorde ahal izateko". Urteko alokairua 2.400 eurokoa izango da, BEZa barne, eta enpresak 8.000 euroko bermea ipini beharko du, edozer gauza gertatuta ere Udalak garbiketara edo deskontaminazio lanak egin ahal izateko.

Elgetako Intxortako Ahuntzak trail taldea indartsu hasi da

Elgetan sortu berria den trail talde berria da Intxortako Ahuntzak. Aste honetan, Goienako platoon izan da kide bat taldearen berri ematen –elkarrizketa ikusgai *Goiena.eus*-en-. Besteak beste, adierazi du "oso pozik" daudela aurkezpen egunean egin zuten kamiseta salmentarekin. Izan ere, 100 saltzea behar zuten, eta, gutxira, 200 kamiseta saldu dituzte.

OHARRAK

Yoga ipuinak, gaur

17:00etan, liburutegian, Alazne Azkaraterekin. 5 urtetik beherakoak, heldu batekin.

Pilota txapelketa


Zabalik da izen-ematea udaletxean urriaren 4ra arte.

Elgetan berbetan

Mintzapraktika taldeetarako izen-ematea urriaren 4ra arte dago zabalik, liburutegian.

OÑATI
JAIETAN!

SANMIGELAK 2019



Berritasun asko txosnagunean • Emakume kirolariak argazkitan • Presoei keinua dantza saioan
Xuxuma taldea Gazte Egunean • Su Ta Gar, plaza 'erretzeko' gertu • Herri Eguna, ohiko osagaiekin

IMANOL SORIANO



www.lana.eu



JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA 27

17:00 Txosnagunearen muntaia herrikoia.

18:00-21:00 BELDUR BARIK GUNEA (eraso sexistarik gabeko gunea), Unibertsitate etorbidean.

19:30 MAHAI-FUTBOL txapelketa. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

21:30 Bikoizketa Txapelketako bideo emanaldia. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

23:00 SU TA GAR taldearen kontzertua, plazan.

ZAPATUA 28

SAN MIGEL AOZARAZA EGUNA

14:30 HERRI BAZKARIA merkatu plazan. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

17:00 HERRIKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALA plazako pilotalekuan, Txosna Batzordeak antolatuta.

18:00 TRAKAMATRAKA taldearen MATRAKA MA NON TROPPO ikuskizuna, Portuko plazan.

19:00 KORAPILOA ASKATZEKO UNEA DA dantza herrikoia, plazan. Antolatzailea: Sare.

19:00 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

19:30-21:30 UROLATARRAK TXARANGA, plazatik txosnagunera.

20:00 TXANTXIKUAREN JAITSIERA, jaietako emateko.

20:15 GAUARGIrekin disko-festa, plazan.

21:00 BROKEN LEGACY taldearen disko aurkezpena, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar. Amaiera plazan izango da.

Ondoren GAUARGIrekin disko-festa, plazan.

00:30-03:30 *Testing-a* txosnagunean, Ailaket elkartean eskutik.

DOMEKA 29

SAN MIGEL EGUNA

09:00 Txistulari Taldearen goiz-eresia.

11:00-14:30 Haur eta Gaztetxoentzako ABENTURA PARKEA (tirolina, rokodromoa, oreka tailerra, eskulanak...), Errementeri plazan.

Goiz osoan zehar Oñatiko TXORIMALOAK BERTATIK BERTARA. Beraiek argazkiak ateratzeko aukera egongo da.

11:00 Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro-zelaian egingo dute (armak edukitzeko baimena eta Federazioaren lizentzia eskatuko da).

11:30 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta. Joxan Larrañaga parrokoari agurra eta Horazio Argarateri ongietorria.

12:15 Musika Bandaren kalejira.

13:15 Musika Bandaren kontzertua, Lazarraga jauregiko lorategian. Eguraldi txarra eginez gero, udaletxeko arkupeetan.

18:00 FUNBOX FACTORY: *dirt jump* eta *mototrial show* ikuskizuna, plazan.

19:00 ONGI ETORRI, ERREFUXIATUAK, txosnagunean. Antolatzailea: Hotz Oñati.

19:00 Antzerkia: OÑATIKO ITUNA LEHEN KARLISTADAN antzezlanaren estreinaldia Santa Ana antzokian. Antolatzailea: Olaiturri Kultur Elkarte.

19:00 MICE taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

23:00 ANDRES PENABAD BAND folk talde galiziarren kontzertua, plazan.



Kuadrilla bat mozorrotuta, iazko Errosarixo Bixamona egunean. GOIENA

ASTELEHENA 30

GAZTEEN EGUNA

12:00- 17:00 BAZKARIA eta JOLASAK gazteentzako, gaztelekuak bideratuta.

Ondoren ERROMERIA gaztelekuan.

12:00 BERAKATZ-ZOPA LEHIAKETA, plazan. Ondoren, sari-banaketa.

12:00 Oñatiko pentsiodunen elkarretaratzea, plazan.

13:00 Jotak, VOCES NAVARRAS taldearekin, Lazarragako lorategian.

17:30-19:30 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko Kalean. Arno ganadutegiko zezenak.

18:00 TOR magoaren ikuskizuna, Portu plazan.

19:30 PURO RELAJO taldearen kontzertua, plazan.

OSTIRALA 04

13:00 Auzolana, txosnagunean.

15:00 Bazkaria, txosnagunean. Bazkalostean, Bingo musikatua eta jolasak.

19:00 Poteo musikatua, txosnagunetik abiatuta.

19:30 IKER MARTINEZ ETA ZALDI HERRENAK taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

22:00 Kontzertua: YOGURINHA BOROVA eta DJ BOLLO, txosnagunean.

ULMA

ONDO PASA
JAIETAN!



22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoa kiroldegan.

ZAPATUA 05

HERRI EGUNA

09:00 Txistulari Taldearen goiz-eresia. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

10:30 Ganadu azoka, unibertsitate inguruan.

11:00 KALEJIRA, herriko kaleetan. Musika Eskolako triki-pandero eta soinu-joleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak.

11:00-14:00 BELDUR BARIK GUNEA (eraso sexistarik gabeko gunea), Unibertsitate etorbidean.

12:00 33. SAGARDO-DASTAKETA, plazan.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

14:30 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegan.

15:00 BAZKARIA Antixena gaztetxean. Antolatzailea: Txosna Batzordea.

17:00 Herriko GAZTETXOEN HERRI KIROLAK, plazan.

18:00 Profesionalen HERRI KIROLAK JAIALDIA, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegan.

18:30 MIRARI, AINTZANE eta LUTXURDIO trikitalariak, Atzeko kalean.

19:00 ELEKTROTARANGA gaztetxetik txosnagunera.

19:30 Parrokian F. ESNALEN SALBEA, parrokiako koruak eta Oñati Abesbatzak abestuta.

20:00 LAKET taldearen erromeria, plazan.

22:00 MARIANITZ BLAI, TRIKIMAILU eta GORA ETORRI taldeen kontzertua, txosnagunean.

Ondoren DJ BIG MAK.

22:00-23:30 LAKET taldearen erromeria, plazan.

DOMEKA 06

ERROSARIXO EGUNA

09:00 Txistulari Taldearen goiz-eresia.

12:00 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

12:00 Musika Bandaren KALEJIRA.

12:00 - 14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegan.

13:00 Musika Bandaren KONTZERTUA, plazan.

17:00 7. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALA, Euskal Herriko kadete, gazte eta promes mailetakoko pilotari onenak, Zubikoa pilotalekuan. Antolatzailea: Aloña Mendi KEko Pilota Saila.

17:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegan.



lazo nagusien danborradako irudiak. GOIENA

18:00 Familientzako ZIRKOBIRA kalejira.

19:00 GITARREUA herriko musikariekin txosnagunean.

19:00 GHOST NUMBER taldearen kontzertua, Atzeko kalean. Swing, country, calypso eta latindar erritmoak.

19:30 LONDON ORKESTRA taldearekin dantzaldia, plazan.

20:30 BALKOITIK BALKOIRAKO bertso-saioa, ANDONI EGAÑA eta XEBASTIAN LIZASO bertsolariekin Kale Zaharrean.

22:30 TRAGALEGUAS konpainiaren ikuskizun ibiltaria.

Ondoren LONDON ORKESTRA taldearekin dantzaldia, plazan.

ASTELEHENA 07

ERROSARIXO EGUNA

10:00-12:00 SOKAMUTURRA plazan. Arno ganadutegiko zezenekin.

12:00 Musika Bandaren kalejira.

14:30 Herri bazkaria, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

Ondoren Jolasak.

17:30-19:30 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. Arno ganadutegiko zezenak.

18:00 ROCKALEAN bertso-taldearen kalejira.

19:00 DI-BERTSIOAK herriko musikarien eskutik, txosnagunean. Txosna batzordeak antolatuta.

19:30 eta 22:30 Dantzaldia plazan, DRINDOTS taldearekin.



Mekanizazio zerbitzu integralak

*Ondo ibili
jaixetan!!*

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es



Txosnagunea, jendez gainezka, iazko Errosarixo Bixamona egunean. GOIENA

Berrikuntza ugari aurten txosnaguneko ekintzetan

Aurtengo nobedadeen artean, bikoizketa txapelketako bideoen emanaldia, herriko taldeen arteko 'gitarreua' eta Broken Legacy taldearen diskoa aurkezteko kontzertua azpimarratu dituzte. Horrez gain, Bargastak talde feminista aurkeztuko dute

Jone Olabarria OÑATI

Egitarau zabala prestatu dute aurten ere Oñatiko txosnagunean. Urteroko ekintzez gain, berritasun ugari daude egitarauan; izan ere, Txosna Batzordeak adierazi duenez, "jende berri ugari ibili da aurten antolatzen, gaztetxoak, eta ideia berri askorekin etorri dira".

Hala, aurtengo nobedadeen artean, bikoizketa txapelketa azpimarratu dute; hain zuzen ere, film edota bideo bateko pasarte bat aukeratuz. Bideo emanaldia gaur izango da eta 116 bideo lehiatuko dira bertan.

Horretaz gainera, herriko taldeen arteko *gitarreua* eta Oñatiko Broken Legacy talde

gaztearen disko aurkezpena ere nabarmendu dute.

Bueltan da Egun Morea

Pare bat urtez egin barik egon ostean, urriaren 4an, egubakoitza, Egun Morea ospatuko dute, eta, hain zuzen, egitarauaren baitan Bargastak talde feminista aurkeztuko dute.

Txosnetako egitaraua

Irailak 27

- 17:00 Txosnagunearen muntaia herrikoia.
- 19:30 MAHAI-FUTBOL txapelketa. Antolatzailea: Txosna Batzordea. Jatekoa egongo da.
- 21:30 Bikoizketa Txapelketako bideo emanaldia.

Irailak 28

- 14:30 HERRI BAZKARIA merkatu plazan.
- 17:00 HERRIKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALA plazako pilotalekuan.
- 19:30-21:30 UROLATARRAK TXARANGA, plazatik txosnagunera.
- 21:00 BROKEN LEGACY taldearen disko aurkezpena.
- 23:00 KARAOKEA. Jarraian, DJ Malandro txosnagunean eta DJ Osaka kaleetan zehar.
- 00:30-03:30 *Testing-a* txosnagunean.

Irailak 29

- 19:00 ONGI ETORRI, ERREFUXIATUAK, txosnagunean. Antolatzailea: Hotz Oñati.

Urriak 4

- 13:00 Auzolana, txosnagunean.
- 15:00 Bazkaria, txosnagunean.
- 19:00 Poteo musikatua, txosnagunetik abiatuta.
- 22:00 Kontzertua: YOGURINHA BOROVA eta DJ BOLLO, txosnagunean.

Urriak 5

- 15:00 BAZKARIA Antixena gaztetxean.
- 19:00 ELEKTROTARANGA gaztetxetik txosnagunera.
- 22:00 MARIANITZ BLAI, TRIKIMAILU eta GORA ETORRI taldeak.

Urriak 6

- 19:00 GITARREUA herriko musikariek.
- 21:00 OLATZ SALVADOR bakarlariaren kontzertua.

Urriak 7

- 15:00 Herri bazkaria.
- 19:00 DI-BERTSIOAK herriko musikarien eskutik.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean % 10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20

Berrehun lagunetik gora nagusien danborradan

Danborradaren antolaketarako "zailtasun ugari" izan diren arren, eta hainbat deialdiren ostean, antolatzaileak "gogotsu" agertu dira. Aurten, gaztetxeko taldeak ez du parte hartuko, eta 200 lagun inguru arituko dira danborra jotzen

Jone Olabarria OÑATI

Urtero moduan, irailaren 28an, San Migel egunez, egingo dute nagusien danborrada aurten ere. Gaueko hamaiketan hasita, herriko kaleak igaro eta plazan emango zaio amaiera.

Aurten, gaztetxeko taldea izan ezik, iazko konpainia berek hartuko dute parte danborradan, bandako kideekin eta aurtengo kintoekin batera. Hain zuzen, hainbat urtez danborradan parte hartu ostean, aurten gaztetxeko taldeak danborrik ez jotzea erabaki duela azaldu dute antolatzaileak.

Jende berriaren beharra

Helduen danborradako antolakuntzak hainbat deialdi egin behar izan ditu aurten: "Jende berria batu behar da danborradara, bai antolatzeke, baita parte hartzeke ere. Betidanik lan honetan ibili direnek urte asko daramatzate, eta, horregatik, aire berriak beharrezkoak



lazgo nagusien danborrada. GOIENA

dira". Gauza bera gertatu da aurten haurren danborradarekin ere: "Antolatzen zuen batzordeak utzi egin du. Iraileko danborrada antolatzeko beste batzorde bat sortu behar izan da; bestela, danborrada bertan

behera geratzeko arriskua zegoen eta".

Eltziatik plazaraino

Eltzia parean hasiko dira danborrak jotzen, gaueko hamaiketan, eta Euskadi etorbideetik Kale

Zaharrera bidean joango dira. Aita Madinatik plazara egingo dute danborrek, eta ondoren, Atzeko kaletik Kalegoieneraino joango dira. Kale Barrian behe sartuko dira plazan, gauerdian.

Zaldunak, gastadoreak, barril jotzaileak, danbor jotzaileak, sukaldariak, dantzariak, banderadunak, bandako kideak eta kintoak kontuan hartuta, 200 lagunek baino gehiagok osatuko dute danborrada nagusia Oñatiko kaleetan zehar. Musika Bandak izango du musikaren ardura, azkeneko urteetan bezala. Horrela, San Migel jaiei hasiera emango diete oñatiarrek, nagusien danborradako kolore eta burrunbarekin.

Urtetik urtera, beherakada

Antolatzaileek diotenez, parte hartzen dutenen zifrak behera egiten du urtetik urtera, nahiz eta aurten zertxobait gora egin duen. "Duela hiru urte, 400 lagun inguru irten ziren danborradan, eta aurten, erdia izango dira. Dena den, aurtengo parte hartze datua nahiko positiboa da; izan ere, azken urteetako beheranzko tendentzia zertxobait gutxitu dela dirudi".

Ekintzaz beteriko hasiera

Ofizialki jaiak Txantxikuaren jaitsierarekin hasten diren arren, gaurtik, ekintza ugari gozatzeke aukera izango dute oñatiarrek; arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita, mahai-futbol txapelketan

lehiatuko dira, txosnetan, eta 21:30ean, Bikoizketa Txapelketako bideo emanaldia eta sari banaketa egingo dituzte. Gaueko hamaiketan, Su Ta Gar taldearen kontzertuak plaza bete eta herriko zein kanpoko lagun asko erakartzea espero da.

Bihar, hilak 28, San Migel egunez jaitziko da Txantxikua, eta, horrekin batera, eztanda egingo du festak herrian. Aurretik, baina, herri bazkarian bapo jan, pilota partiduak ikusi, Traka Maraka taldearen ikuskizunaz gozatu eta Sarek antolatutako dantzan parte hartzeke aukera egingo da.

Festak eztanda

Txantxikua jaitsi ostean, 20:00etan, Gaurgiren disko-festak dantzan jarriko ditu denak plazan. Txosnagunean ere musika eskaintza oparoa izango da, Broken Legacy oñatiar talde gaztearen taldearen disko aurkezpenari esker. Afalostean abiatuko dira danbor hotsak Eltziatik, eta, gauerdian plazan jo ostean, berriz ere Gaurgik hartu dio erreleboa musikari. Era berean, 03:30ak arte, *testing*-a jarriko dute txosnagunean.

"JENDE GEHIAGO BATU BEHAR DA DANBORRADARA, BAI ANTOLATZEKO, BAITA PARTE HARTZEKO"

SANMIGELAK 2019 OÑATI

ETORRI GUREKIN OSPATZERA!

Boga • Aker • Urtiagain • Ongi etorri
Garoa • Zotz • Izarraitz

Emakume kirolariak ardatz dituen erakusketa

Ilunpetan Argazki Taldeak argazki erakusketa jarriko du San Migel jaietan herriko plazan. Aurten, berritasunekin datoz; izan ere, beti bezala, Oñati ardatz hartuko duten arren, emakume kirolariak izango dira bertako protagonistak

Imanol Beloki OÑATI

Bihar, zapatua, hasi eta Oñatiko San Migel jaiak bukatu bitartean -urriaren 6a- ikusgai egongo da, Foruen plazan, Ilunpetan Argazki Taldearen argazki erakusketa. Urteak daramatzate egitasmo honekin, eta aurten ere argazki bikainez gozatzeko aukera izango dute udaletxeko arkupe azpitik pasatzen diren herritar guztiek.

Aurten, berritasunekin dator erakusketa; izan ere, zenbait urtetan, Oñati hartu dute gai moduan, baina, oraingoan, koherentzia pixka bat gehiago eman nahi izan diote argazkilariek erakusketari, eta, horre-

tarako, gai zehatz bat hartu dute, eta kide guztien artean egin dituzte erretratu guztiak, elkarlanaren isla gisa. Oñatiko emakume kirolariak izan da uztartu duten gaia, eta argazki guztiak estudioan ateratakoak dira; zuri-beltzean jarriko dituzte ikusgai.

Denon artean lan bakarra

"Hamar bat urte inguru dela hasi ginen erakusketa honekin, eta beti jorratu dugu Oñati herria gai moduan. Taldeko kide bakoitzak bere erara ikusten du herria, eta, horregatik, koherentzia falta bat ikusten genuen argazki sortan. Hori horrela,

aurten, denon artean lan bakar bat egitea erabaki dugu, talde-lanean gauzatu duguna, eta Oñatiri buruz izango da, baina gai baten bueltakoa soilik; hau da, Oñatiko emakume kirolarien bueltakoa. Hala, guztira, hamahiru argazki plazaratuko ditugu...", adierazi du Asier Egañak, Ilunpetan Argazki Taldeko kideak.

Estiloa zaindu

Oñatin indar handia du kirolak, eta, hori islatu guran, gai bila hasi zirenean, emakume kirolariak oinarri hartzea erabaki zuten Ilunpetan Argazki Taldekoek. Hamahiru argazkitan batu



Lukene Igartua eta Iliia Uriarte eskalatzaileak.

dute euren lana: futbola, eskubaloia, eskalada, igeriketa, mendi lasterketak, alpinismoa, sokatira, tenisa... egiten duten emakumezko oñatiarrei atera dizkiete argazkiak, eta emaitzarekin pozik agertu dira: "Gizakumeen kirolarekin alderatuta, ez zaio behar besteko garrantzirik ematen emakumeenari, eta konturatu ginen hutsune bat zegoela hor. Hala, hortik abiatuta hasi ginen ideia garatzen, eta, gero, argazkiak nola atera erabaki genuen... Azken emai-

tzarekin gustura geratu garela esan dezakegu".

Udan hasi ziren argazkiak ateratzen, eta azkenengoa, berri, irailaren lehengo astean atera zuten. Horrenbestez, lana amaitu berri, aurtengo berritasunak funtzionatuko duen edo ez jakiteke, datozen edizioetan modu berean jarraitzea dela euren asmoa adierazi du Egañak: "Gaur egun, puri-purian dagoen gai bat ardatz moduan hartu dugu, eta funtzionatuko duelakoan gaude. Ea listioia



egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

50
años-urte
1967 | 2017

- Eraikuntza lanak
- Industria-nabean eraikuntza
- Obra Zibila - Urbanizazioak
- Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- Etxebizitzaren eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62 • www.egaralur.net



PODOLOGIA

Ondo pasa
sanmigelak!

RPS: 275/18


Arantzazuko Ama 19 A • Oñati
Tel.: 943 53 36 37



Josune Odriozola igerilaria.



Ainhoa eta Leire Egaña ahizpak.



Ramos eta Biain korrikariak.

mantentzeko gai garen. Aurre-
ra begira, berriz, gustatuko
litzaziguke Oñatiko beste zenbait
gai hartu, eta hauen bueltan
ateratuko argazkiak lantzen eta
plazaratzen jarraitzea".

Emaitzarekin gustura

"Ez da samurra neurtzea arra-
kasta handia izango duen edo
ez aurtengo edizioak. Protago-
nistak gustura geratu dira, eta
argazkiak atera ditugunok ere
halaxe gaude. Oñatiko erdigu-
nean jartzen dugu erakusketa

zenbait egunez, eta ezinezkoa
da kontrolatzea zenbaterik ikusten
duten. Hala ere, bertatik jende
asko pasatzen da, eta erakuske-
ta ikusia izango delakoan gaude.
Gero, herritarrek esan beharko
dute gustuko izan duten edo ez.
Argazkiak, berriz, urriaren 6an
kenduko ditugu arkupeetatik,
eta, ostean, protagonistei opa-
rituko dizkiegu".

Txinpartakoekin elkarlana

Ilunpetan Argazki Taldeko ar-
gazkilariek talde-lanean burutu

duten proiektua bada ere, beste
talde batekin ere izan dute el-
karlana. Hain zuzen ere, beste
edizio batzuetan egin duten mo-
duan, argazki bakoitzak bertso
bana izango du azpian, eta ho-
rretaz Txinparta Bertso Esko-
lako haurrak arduratu dira.
"Guk Eltzia Topagunean dugu
lokala eta Txinparta bertso es-
kolakoak, berriz, gure alboan
daude; beraz, elkarlana ere izan
da lan honen parte, eta argazkiak
bertsoekin osatu ditugu lanen
deskribapen gisa".



Gurutze Altuna eta Leire Altube. ARGAZKIAK: ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA



GENERALI

M^a JOSE ASTIGARRAGA GURIDI
ANA LADINO CÁRDENAS

Kale Barria 36, behea
20560 OÑATI

Tel./Faxa: 943 78 33 82

Mug.: 651 705 350 / 636 80 73 00

mastigar@generalimediadores.es

aladino@generalimediadores.es

Ondo pasa jaixak!!



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

Programa pertsonalizatuak eskaintzen ditugu

Ondo pasa jaixak!!

Arantzazuko Ama Kalea 9
20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 08 90 06 🌐 www.coinbroker.eus

✉ oinati@coinbroker.eus



Iratí Fernández dantzaria eta Juanje Anduaga Sareko kidea, entsegu batean. OÑATIKO SARE

Euskal presoei keinu egiteko, herri dantza

Jaien hasieran, falta direnak "oroitzeko" eta "kartzela politika injustuak" salatzeke dantza parte-hartzailea egingo dute bihar, zapatua, Sarek antolatuta. Txantxikuaren jaitsieraren aurretik izango da, arratsaldeko zazpitan, Oñatiko plazan

MAIALEN SANTOS OÑATI

Urtero legez, herriko jaietako lehen egunarekin batera egingo dute euskal presoen aldeko ekitaldia. Aurten, baina, "ohikotik irteteko", dantza parte-hartzailea egingo dute herriko plazan, berrikuntza modura.

Korapiloa askatzeko unea da leloarekin, euskal presoei keinua egingo die Sarek, herritarren laguntzarekin. Presoen Euskal Herriratzea, sakabanaketa amaitzea, kartzela-zigorren batuketa, gaixo larrien eta 70 urtetik gorako berehalako askatasuna eta graduen progresioa aldarrikatzeko baliatuko dute hitzordua, Sareko kide Juanje Anduagak adierazi duenez.

Dantzak, Oñatzen ardurapean

Euskal presoen giza eskubideak errespetatu daitezke eskatzeko, bi dantza egingo dituzte: *Hegi* eta *Ostalerrak*, hain zuzen ere. Txistulariz eta soinu lagunduta egingo dira dantzak, eta horiek ikasi eta prestatzeko entseguak egin dituzte Oñatz Dantza Taldeko arduradunen gidaritzapean. Iraileko martitzen guztietan elkartu dira, Eltzian, eta, jen-

dearen parte-hartzearekin pozik azaldu diren arren, egunean bertan jende gehiagok parte-hartzea espero dute, Anduagak esan bezala: "Edonork dantzatzeko moduko dantzak egingo ditugu, eta entseguetara joan ez den jendeak ere izango du dantza egiteko aukera". Gaineratu duenez, jendea aldarrikapentara batzeko deialdia egin nahi dute, asmoa plazan egingo den ekitaldira ahalik eta jende gehien batzea baita.

Plazatik txosnagunera kalejiran

Jaiak ofizialki hasi aurretik izango da ekitaldia –egun berean arratsaldeko zortzietan hasiko dira–, eta laburra izango da, Sarek iragarri duenez: "Asmoa da dantza egin ostean guztiok elkarrekin joatea jaietara emango dien Txantxikuaren jaitsierara". Hain zuzen, plaza-tik hasita eta kalejira eginaz, txosna ingurura hurbiltzeko asmoa dute. Txaranga arduratuko da ibilbidean zehar musika jartzeaz; behin aldarrikapenak eginda, eta falta direnez ahaztu barik, jaien hasieraz behar bezala gozatzea da helburua.

Ondo pasa jaixetan!

TXANTXIKU

TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
BIBITALAZKO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20 • Errekalde 8
OÑATI
Tel.: 943 78 01 54 • txantxiku@telefonica.net



RPS:136/18

M^a Angeles Mendizabal
H AHO SENDAGILEA

- Implantologia konbentzionala
- Gidatutako implantologia (X-Guide teknologia)
- Odontologia estetikoak
- Periodontzia
- Eskanerra

Ondo pasa jaixak!

Arantzazuko Ama 2C-behea
20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 71
mendikorta@outlook.com

Bazkaria eta erromeria Gazteen Eguna alaitzeko

Gaztetxoaren proposamenei jarraiki, egun osoko egitaraua antolatu du gaztelekuak irailaren 30erako. Berrikuntza gisara, bost gaztek osatutako Xuxuma taldeak alaituko du bazkalostea. Gainontzeko egunetan ere egongo dira gazteei zuzendutako ekintzak

MAIALEN SANTOS OÑATI

Haurrei eta gazteei zuzendutako ekintzek izango dute beren lekua jaietako egitarauan, urtero legez. Txikienek egunero izango dute zer egin, eta bereziki beraiei zuzendutako egunik ere izango dute. Hain zuzen ere, Gazteen Eguna ospatuko dute datorren astelehenean, irailaren 30ean. Zehazki, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduriko eguna izango da hori.

Gaztelekuko arduradunen laguntzaz baliatuta prestatu dituzte ekintzak, oro har, haiek izan baitira proposamenak egin eta antolakuntza lanetan aritu direnak, bertako arduradun Jon



Aurten ere etorriko da Funbox Factory taldea, bizikleta gainean. IMANOL SORIANO

Lopezek adierazi duenez: "Gazteek taldeak sortu eta ardurak banatu dituzte, bakoitzak zerbaitetan lagundu eta parte har dezan".

100 lagun inguru bazkaltzeko

Goizeko hamaiketan elkartuko dira, Olaiturrin, eta bertan ekingo diote goizerako antolatutako plangintzari. Besteak beste, *Humor amarillo* telebista saioan ikus zitezkeen jolasak egingo dituzte, eta ur jolasak egiteko asmoa ere badute. Horren ostean, gazteleku ingurura gerturatu eta beraiek prestatutako platerak dastatzeko aukera izango dute, galdutako indarrak berreskuratzeke. Lopezek azaldu moduan, oraindik "zehazteke" dago zenbatentzako jana prestatu behariko duten, baina bazkaltzeko 100 bat gazte elkartuko direla uste dute, iaz bezala. Gaztelekuan bertan prestatuko dute otordua horretarako ardura hartu dutenek, baina, eguraldia lagun izanez gero, kanpoan bazkalduko dute. Azkenik, musikaz lagunduta ekingo diote arratsaldeari. 13-14 urte bitarteko bost gaztek sortu berri duten Xuxuma erromeria taldeak kontzertua eskai-

niko du bertaratutako guztientzat, eta, beraz, hala alaituko dute bazkalostea. Emanaldia gaztelekuan izango da, eta taldea arduratuko da arratsaldea girotu eta egunari amaiera borobila emateaz.

Tirolina, oreka tailerra eta beste

Gazteen Egunean ez ezik, gainerako egunetan ere gazteek izango dute zer egin. Egun bereziko motorrak berotzen joateko, abentura parkeaz gozatu ahal izango dute domekan. Errementari plazan jarriko dituzte, besteak beste, tirolina, oreka tailerra eta eskulanak egiteko postutxoa. Arratsaldean, aldiz, bizikleta gaineko ikuskizuna eskainiko du Funbox Factory taldeak, Oñatiko plazan.

Bestalde, urriaren 6an, Errosarixoko Egunean, haur parkea jarriko dute Etxaluzen, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Horretaz gainera, arratsaldeko seietan, familientzako Zirkobira kalejira ere egongo da.

Buruhandiak eta erraldoiak, gainera, kaleetan arituko dira jai guztietan zehar.



**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



ONDO PASA JAIAK!!

Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Ohiko osagaiak izango ditu Herri Egunak

Udalarekin batera, herriko hainbat talde eta eragileren artean antolatutako eguna izango da urriaren 5ean ospatuko den Herri Eguna. Goiz hasi eta berandu bukatzeko moduko eguna, azoka, kontzertu, bazkari eta erakustaldiak tartean daudela

Oihana Elortza OÑATI

Goiz hasiko da aurtengo Herri Eguna ere. Lehen sektoreko herritarrek izango dira goiztiarrenak, beste behin, produktuak prest egon daitezzen 09:00etarako. Horrek esan gura du 06:00etan elkartuko direla hainbat nekazari eta abeltzain. Baita Nekazarien Elkarteko bazkide batzuk ere, hark izango du eta azoka antolatzeko ardura.

Herritarrekin batera

Baina Nekazarien Elkarteko bazkideez gain, herriko beste eragile askotako lagunek hartzen dute parte Herri Egunean. Udalak antolatzen duen ospakizuna

da, baina, egiten diren ekitaldi askotan, herriko talde edo eragile ezberdin askok hartzen dute parte antolaketa horretan, eta, agian horregatik da jaietako egunik kuttunenetakoa oñatiarrendako.

Nekazarien Elkarteko zuzendaritzako lagunak ekainean hasten dira Herri Eguneko azoka prestatzen, nahiz eta irailean pilatzen zaizkien lan handienak. Aurten ere hiru lehiaketa egingo dituzte: barazkiena, frutena eta gaztena. Horrez gain, hainbat erakusketa ere egongo dira: behiena, behor eta zaldiena, astoena, pottokena, euskal txerriena, oiloena, ardiarena, bildo-

tsena, ahariena, ahuntzena eta loreena. Produktu guztiak, lehiaketakoak barne, Oñatin ekoiztutakoak edo hazitakoak izango dira.

Egun horretan goiz jaikiko den beste lagun talde bat ezker abertzaleko kideak dira. Eurak ibiliko dira taloak egiten eta zerbitzatzen. 07:00etan elkartuko dira muntatze lanak egin eta 09:00etan lanean hasteko.

Foruen plazan egongo diren sagardogileak ere herritar talde txiki batek gonbidatuta etorriko dira. Beste behin, Gipuzkoako sagardogileak izango dira, 26 aurten. Eta aurreko urteetan moduan, edalontzia erosi behar



Fruta, barazki eta gazta lehiaketa egongo da. GOIENA



Ohiko tokian izango dira taloak egiten. GOIENA



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.
- Galderen aldizkako azterketak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Finantzatzeko aukera onak!

Ondo pasau jaixak!

943 71 82 49 - 943 75 16 46

Kale zaharra 17, behea (Oñati) - Errabal 2, behea (Sorluze)
e.inurritegi@gmail.com - fogasleriturgintza@gmail.com

Ondo pasau jaixetan!

Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

Portu Kale 5 • Tel.: 943 78 12 65
www.mapfre.es



Kanpoko eta herriko artisauak euren lanak izango dituzte salgai. GOIENA



Gipuzkoako 26 sagardogile egongo dira Foruen plazan. GOIENA

da lehenengo, eta, horrekin, sagardo mota ezberdinak probatu ahal izango dira.

Herri bazkarirako sarrerak

Artisauen azoka ere goizean zehar egingo dute, unibertsitateko klaustroan. Hogei postu gordetzen dira oñatiar artisauendako; guztira, bertakoak eta kanpokoak, 30 egongo dira. Zeramikak, oihala, larrua, pintura, beira... lehenengo ezberdinak erabilia egindako eskulanak egongo dira salgai.

Eta unibertsitatearen kanpoan, institutuaren ondoan, ogia, ezta, euskal pastelak eta kontserbak eroango dituzten beste hamazazpi postu egongo dira aurten.

Herri bazkaria egongo da goizeko ekitaldien ostean. Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean izango da eta aurten, gainera, herriko talde batek zerbitzatuko du: Oñati abesbatzak. Janaria kanpoko enpresa batek eroango du, baina gero, Oñati abesbatzako kideak ibiliko dira zerbitzari lanetan. Bazkariko txartelak salgai daude kultura etxean eta Arrano eta Izarraitz tabernetan: 12 urtetik beherakoenda-

ko hamar eurotan eta nagusien-dako hogeieurotan.

Herri kirolak

Herri kirolak egon ohi dira Herri Eguneko arratsaldean, eta aurten ere halaxe izango da. Ekitaldi hori ere herritar taldetxo batek bideratuta izaten da. Gaztetxoaren txanda izango da lehenengo, eta profesionalen herri kirolen jaialdia gero. Foruen plazan izango dira biak; Zubikoa, eguraldi txarra egiten baldin badu.

Bestalde, egun horretan ere egongo da musika herrian. Goizean zehar, esaterako, musika eskolako trikitilariak ibiliko dira kalez kale panderoekin eta trikitiekin. Arratsaldean, Mirari, Aintzane eta Lutxurdio trikitilariak Atzeko kalean joko dute, Elektrotzaranga gaztetxetik txosnagunera joango da eta gauean kontzertuak egongo dira txosnagunetan eta Foruen plazan.

Hori guztia egongo da Herri Egunean urriaren 5ean, eta onena herriko edozein elkarte gastronomikotan salda eta txorizoa hartzea izango da, ateak zabalik egongo dira-eta denetan.

Nekazarien Elkarteak 40 urte bete ditu

Nekazarien Elkarteari lotuta dago aspalditik Herri Eguna. Elkarte horretako bazkideen ardurak izaten dira goizean egiten diren barazkien, fruten, loren, gazten eta animalien erakusketak eta lehiaketak. Ekainean hasten dira prestatzen eta egunean bertan Olabarrietako soziedadeko kideen laguntza ere izaten dute. Aurten, 40 urte bete ditu Nekazarien Elkarteak, eta kantua sortu dute: Elias Zumaldek eta Isidro San Migelek egin dute letra eta Iñaxio Ibarredok, musika. Elkartean, 1979ko urriaren 6an, urriko lehen zapatuan, egindako sokatira jaialdian irabazitako txapela dute eskegita.



TXOPEKUA

jateetxea / sagardotegia

*Berriruzuekin!!
Ondo pasatu jaiak!!*

Tel. 943 78 05 71 • Uribarri 5, Arantzazu bidea • 20560 Oñati



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala



Lan aholkularitza



Kontabilitatea



Zerga aitortpena

Ondo pasatu sanmigeletan!

Errementari plaza 2-3 behea
OÑATI

"Kanta zaharren bat edo beste joko dugu Oñatin"

AITOR GOROSABEL SU TA GAR TALDEKO ABESLARI ETA GITARRA JOLEA

30. urteurreneko bira bukatuta, beste bira batekin datoz. Oñatin jotako kontzertuak gogoan dituzte, eta horietan jaso izan duten "maitasuna" sentitu nahi dute osterera ere

Xabi Gorostidi OÑATI

30 urtetik gora daramatzate euskal heavyaren aitzindariak oholtzaz oholtza. Zifra borobil hori ospatzeko bira bukatu berrian, Oñatiko jaietan egingo dute geldialdia.

Hiru hamarkada pasa dira, eta oraindik zuzenekoak emateko gosez zaudete. Zein da sekretua?

Sekreturik ez. Askok gustatzen zaigu egiten duguna eta jendearen partetik jasotzen dugun erantzunak ona izaten jarraitzen du. Musika gure ogibide izateko apustua egin genuen, eta horri eusten ahalegintzen gara.

Nola joan da 30 urteak ospatzeko egin duzuen kontzertu bira?

Oso ondo; pilak kargatzeko baliotza izan digu. Zaleen artean be-launaldi talka bat ikusi dugu: umeak, nerabeak, gurasoak... plaza horrela beteta ikusteak indarrez betetzen zaitu.

2016an kaleratu zenuten *Maitasunari pasioa* diskoa. Musikalki, zale asko zur eta lur uzteko modukoa da. Nola okurritu zitzaizuen?

Barruak eskatzen zigun zerbait zen, eta ez, hainbeste, merkatuak eskatzen ziguna. Betidanik tar-tekatu ditugu baladak kanta gogorrekin. Xabik eta nik askotan egin ditugu emanaldi akustiko laburrak, kausa bat babes-teko, gehienetan, eta horietan, gure abesti suabeak jotzen ge-

nituen. Askok egin izan dute euren abestiak hartu eta formatu akustikora moldatzearena. Baina ezohiko zerbait egitearren, esan genion gure buruari: "Zergatik ez dugu disko akustiko bat egiten, baina abesti berrieekin?". Eta hortik etorri zen dena. Asmoa bazen Scorpions taldearen *Gold Ballads* diskoaren antzerako zerbait egitea, baina ez dakit esaten gerturatu ginen edo ez. Irten zena irten zen, eta gustura geratu ginen.

Diskoari egokitutako bira arrakastatsua ere egin zenuten...

Bira akustikoa egitearena buruan izan genuen hasieratik, eta itzela izan zen: areto ikusgarrietan



Xabi Bastida, Igor Diez, Aitor Gorosabel eta Galder Arrillaga. SU TA GAR

jo genuen, sarrerak agortzen ziren, kontzertu gehiago egin behar genituen... Ez genuen espero hain ondo joatea.

Aurretik entzun izan da zuen musika Ipuruan, baina hemendik aurrera ziur gehiagotan entzungo dela. Nola sortu zen Eibar futbol taldea-

ren ereserki berria konposatzeko aukera?

Gurekin harremanetan jarri ziren, ereserki gaurkotu bat konposatu nahi zutelako. Ilusio handia egin zigun enkarguak, eta lanean jarri ginen. Abestia irudi indartsuekin eta esangu-



ratsuekin nahastu dute: Ipuru zaharreko irudiak, emakumeen taldearenak... eta emaitza boro-bila izan da.

Zu zeu futbolzalea zara?

Ba, txikitatik jokatu dut futbole, eta, askok ez jakin arren, Eibar taldean jokatu nuen gazte mailara arte. Ezker hegalean jokatzen nuen, batez ere. Baina futbolarekin badut amodio-gorroto harreman moduko bat. Lagun asko egin izan ditut kirol honi esker, eta betidanik gustatu zait. Baina gaur egun, negozio hutsa da, sekulako diru

"AZKEN BIRAN ZEHAR BELAUNALDI TALKA BAT IKUSI DUGU IKUSLEEN ARTEAN; INDARRA EMATEN DU"

"FUTBOLAREKIN AMODIO-GORROTO ERLAZIOA DUT, BATEZ ERE, NEGOZIO HUTS BILAKATU DELAKO"

kopuruak eta interesak mugiarazten ditu, eta horrek distantzia batetik bizitzera eraman nau.

Hiru hamarkadako ibilbidean egin-go zenuten geldialdiren bat edo beste Oñatin. Gogoan dituzu?

Ez dugu askorik jo, baina jo ditugun horiek gogoan ditut. Adibidez, *Bizirik gaude* diskoa gaztelekuan aurkeztu genuen, eta erotzekoa izan zen. Bertako gazteek hainbat aldiz eskatu zuten guk bertan jotzea, eta igarri egin genuen. Birako lehen kontzertua izan zela uste dut, eta kristoren maitasuna jaso genuen. Beste baten ere Latzenekin batera jo genuen, gure ibilbidearen hasiera partean... Kiroldegian izan zela uste dut. Zer esango zenieke zuek ikusteko irrikan dauden oñatiarrei?

Ba, benetan gogotsu gaudela plazan jotzeko. Aurretik, bertan jo izan dugunean, beti igarri dugu ikusleen maitasuna, eta hori ostera ere sentitzeko gogoz gaude.

Eibarren ereserki berria joko duzue?

Hasiera batean, ez dugu zuzenean joko, baina kontzertura doazenek kanta zaharren bat edo beste entzungo dute; hori, seguru.

Jaietako ikuskizunen egitaraua

Irailak 27, egubakoitza

- **23:00** Su Ta Gar taldearen kontzertua, herriko plazan.

Irailak 28, zapatua

- **18:00** *Matraka ma non troppo* ikuskizuna, Portuko plazan.
- **19:30** Urolatarrak txaranga, plazatik txosnetara.
- **20:15** Gauargi taldearekin disko-festa, plazan.
- **19:30** Urolatarrak txaranga, plazatik txosnetara.
- **21:00** Broken Legacy, txosnetan; ostean: *Karaokia*, DJ Malandro eta DJ Osaka.
- **23:00** Danborrada nagusia, herriko kaleetan.

Irailak 29, domeka

- **13:15** Musika Banda, Lazarraga jauregiko lorategian –eguraldi txarra bada, plazako arkupeetan–.
- **19:00** *Oñatiko Ituna Lehen Karlistadan* antzezlanaren estreinaldia, Santa Ana antzokian.
- **19:00** Mice taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

- **23:00** Andres Penabad Band taldearen kontzertua, plazan.

Irailak 30, astelehena

- **13:00** Voces Navarras taldearen jota emanaldia, Lezarraga lorategian.
- **17:00** Erromeria, gaztelekuan.
- **18:00** Puro Relajo taldearen kontzertua, plazan.
- **19:30** Tor magoaren ikuskizuna, Portu plazan.

Urriak 4, egubakoitza

- **19:30** Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldea, Atzeko kalean.
- **22:00** Yogurinha Borova, txosnetan; ostean, DJ Bollo.
- **18:00** Puro Relajo, plazan.
- **22:30** Bertso jaialdia, Zubikoa kiroldegian.

Urriak 5, zapatua

- **11:00** Kalejira, Musika Eskolako triki-pandero eta soinu-joleekin, txistulariekin eta Tolosako gaiteroekin.
- **18:30** Mirari, Aintzane eta Lutxurdio trikitalariak, Atzeko kalean.
- **19:00** Elektrotxaranga, gaztetxetik txosnetara.

- **20:00** Laket taldearen erromeria, plazan.
- **22:00** Marianitox Blai, Trikimailu eta Gora Etorri taldeak, txosnetan; ostean, DJ Big Mak.

Urriak 6, domeka

- **13:00** Musika Banda, plazan.
- **19:00** Herriko musikariaren *Gitarreua*, txosnetan.
- **19:00** Ghost Number taldea, Atzeko kalean.
- **19:30** London Orkestra taldearen dantzaldia, plazan.
- **20:30** Balkoitik balkoirako bertso saioa, Kale Zaharrea.
- **21:00** Olatz Salvadorren kontzertua, txosnetan.

Urriak 7, astelehena

- **18:00** Rockalean bertso taldearen kalejira.
- **19:00** Herriko taldeen *di-bertsioak*, txosnetan.
- **19:30** Drindots taldearen dantzaldia, plazan.

Jai dotoreak izan!


ileak

marikarmen ile apaindegia

san lorentzo 9 a - behea

tel.: 943 71 60 46

OÑATI



LIZARRALDE

KIROLAK

ondo pasau jaixak!



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46



OÑATI
dabilen herria

SU TA GAR



Oñatiko Udalak
jai zoriontsuak
opa dizkizue



**OLATZ
SALVADOR**



IKER MARTINEZ
ETA ZALDI HERRENAK



**OHIANA
IGUARAN**



**NEREA
IBARZABAL**

#oñatikojaixak2019

LAKET
GHOST NUMBER
VOCES NAVARRAS
HERRI BAZKARIA
MARIATXIAK
ERROMERIAK
GAZTEEN EGUNA
ATSOLORRA
KALE IKUSKIZUNAK...

ARETXABALETA
JAIETAN!

SANMIGELAK 2019



- Egitarau osoa
- Abesbatzaren kontzertuan, Andra Mari kooperatibari omenaldia
- Azokan, 60 postu

- Beinke-Loramendi dantza, herrian errotua
- Herri kirolean, harri jasotzaileak eta aizkolariak lehiatzen

IMANOL SORIANO



UNAI ITURRIOTZ
ONDO PASAU SANMIGELAK!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETA



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELOORRIETA, 15 BEHEA - 20550 ARETXABALETAKO - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

*Ondo ibili
sanmigeletan!*



IOSU

harategia • taberna

Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

Ondo pasau sanmigelak!

JAIETAKO EGITARRAUA

EGUBAKOITZA 27

19:00 Bergarako erraldoi eta kilikien konpartsa, eta Aretxabaletako erraldoiak.

21:00 Kantu afaria Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearekin. Eguraldiaren arabera, Herriko Plazan edo Iturrigorri frontoian egingo da. Izen ematea: kuadrillaka, Arkupen, irailaren 16tik aurrera. Plaza mugatuak -500 pertsona-. Eguraldi ona badago, egunean bertan beste 100 txartel salduko dira. 1 euro pertsonako.

22:00 Nerabeentzako disko-festa, OIHAN VEGA Djaren eskutik, komentuko zelaian. Eguraldi txarra egiten badu, kaperan izango da. 12 urtetik gorako nerabeei zuzenduta dago. Disko-festan ezingo da alkoholdun edaririk sartu.

ZAPATUA 28

10:00 10:00etatik 14:00etara, Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 25. FERIA, Durana kalean, eta Bertako Ganaduaren VI. FERIA, Arlutz kantxan.

10:00 DIANA, Aretxabaletako txistulariekin.

10:30 Loramendiko Tril emakume taldeak antolatuta, TALO TXOSNA, Pagaldai tabernan.

11:30 Leizarra Musika Eskolako TRIKITILARIAK. Kaleetan zehar.

12:30 Lekaixoka bertso taldeak antolatuta, *Balkoitik balkoira* saioa: Igor Elortza eta Alaia Martin bertsolariarekin, Durana kalean.

12:45 TXALAPARTA. Durana kalean.



lazko San Migel azoka. GOIENA

13:00 Simon Otxandategi taldearen JOALDUNAK. Aretxabaletako kaleetan zehar.

14:30 Herri bazkaria, Iturrigorri frontoian.

18:00 BOLO TXAPELKETA. Bolatokian. Izen-ematea: 5 euro

1. saria: urdaiazpikoa eta batutako diruaren %40.

2. saria: txerri-besoa eta batutako diruaren %30.

3. saria: batutako diruaren %20.

4. saria: batutako diruaren %10.

19:00 Beinke-Loramendi dantza emanaldia. Herriko Plazan.

20:00-21:30/22:30-00:30 GABEZIN taldearekin dantzaldia. Herriko Plazan.

DOMEKA 29

10:00 Basotxo elkartearen eskutik DOKE TXAPELKETA, Basotxo aurrean.

11:00 DIANA, Aretxabaletako gaiteroekin.

13:00 HERRI KIROLAK, Herriko Plazan.

Aizkolariak: Iñaki Azurmendi eta Maite Ariztegi/ Aratz Mugerza eta Irati Astondoa. Bi bikote bata bestearen kontra, zortzi ebaketa horizontal eta trontza eginez.

Harri jasotzaileak: Izeta IV.a; 125, 109 eta 113 kiloko harriekin; Jakes -10 urte-, 25 eta 20 kiloko harriekin; eta Karme Gisasola, 85 kiloko harriarekin, txingekin eta ingudearekin.

19:00 SANMIGELETAKO KONTZERTUA Aretxabaleta Abesbatzaren eskutik, musikariak eta dantzariak lagun dituztela. Iturrigorri frontoian.

Ondo pasa San Migelak!!



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Ifnoa: 943 791 844 - Faxes: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

zurre
zerbitzura





Aretxabaletako abesbatzako kideak, entseguan. ARETXABALETAKO ABESBATZA

Andra Mari kooperatiba protagonista kontzertuan

Eroskiren 50. urteurrena aprobetxatuta, Aretxabaletan sortutako Andra Mari kontsumo kooperatiba omenduko dute abesbatzaren kontzertuan. Ohi den moduan, San Migel domekan egingo dute ekitaldia, Iturrigorri pilotalekuan, 19:00etan hasita

Jone Olabarria ARETXABALETAKO

Sanmigel domekan ohitura den moduan, Aretxabaletako abesbatzak kontzertua eskainiko du. Aurten, Andra Mari kooperatiba eta bere fundatzaile izandakoak omenduko dituzte ekitaldian, "gerora kontsumo talde handi bat izango zenaren lehen oinarriak eraikitzearen". Hala, euskal kantak, herriko dantzariak eta herritar ugari batuko ditu hitzorduak, azken urteetan ohitura den bezala, Iturrigorri pilotalekuan, 19:00etan.

Iraultzaren lehen pausoak

Era horretan, aurreko mendean bailarak bizitako "iraultza" ekarri nahi izan dute gogora: "Duela 56 urte, 1962ko martxoaren 31n, inauguratu zen kooperatiba Durana kalean kokatuta zegoen, akizutarren kortan. Urte haietan, bailaran, kooperatiba funtzionamendua zuten lantegiak sortu ziren, eta, industria hauen eragin zuzenez, kontsumo kooperatibak sortzen hasi ziren. Adibidez, Arrasaten, San Jose Kooperatiba", azaldu du abesbatzako kide Anjel Barandiaranek.

Eroskiren aintzindari

Urteen poderioz, kontsumo kooperatiba hura, beste herrietan abian jarritako halako dendeekin batera, kontsumo eta zerbitzu enpresa handi baten sortzaileetako izango zen. Hala, 1969an, Eroski jaio zen, orain dela 50 urte. Kontsumo kooperatiba edo denda txiki haiek zeramatzen bide oparora ikusita, inguruan zeudenekin elkarlanean hasi ziren Arrasate, Aretxabaleta, Zornotza, Eibar, Gernika, Markina, Ermua, Rekalde Berri eta Matienako hainbat denda. "Eroskiren urteurrena aitzakia hartuta, oraindik egun hain garrantzitsua den kooperatibismoaren lehen pauso haiek omendu nahi izan ditugu".

Garaira egokituz

Ohi bezala, ikuskizunik ez da faltako abesbatzaren kontzertuan: musika eskolako dantza taldeak, umeen abesbatza, nagusia... arituko dira taula gainean. Dekorazio eta jantziei dagokienez, garai hartara moldatzen saiatuko direla aitortu dute eta pantailla bati esker orduko irudiak erakutsiko dituzte.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Ondo pasau
sanmigelak!

Aretxabaletako campusa

Otalora 31
20555 Aretxabaleta

Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza

943 71 41 57

harrera.juhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu



Durana
Hartz Klinika



Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa

Endodontzia

Inplantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hartz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

www.duranahortzklina.eus

Ondo pasau
jaixak!

Jon
Harategia

Ondo pasau sanmigelak!

Durana 15 • Aretxabaleta • 943 79 71 69

GARAJE NORTE

OPEL GRANDLAND X HIBRIDO KONEKTAGARRI BERRIA

GURE LEHEN SUV HIBRIDO KONEKTAGARRIA
ALEMANIATIK DATOR ZERO ETIKETAREKIN
ERAGINKORTASUNAREN ETA POTENTZIAREN ARTEKO OREKA PERFECTUA.



OPEL DESKONTUAK

Autoaren adina	BEZERO FIDELAK
+ 4 URTE	%20

Opel deskontuak: eskaintza baliagarria 2019ko urtarraren 1etik 2019ko abenduaren 31ra. Deskontuak baliagarriak, bezeroek myOpel.es-en kontu elektronikoa izan behar dute eta komunikazioak posta elektronikoz jasotzeko aukera eskaintuta izateko. Erabilera baldintzuetan. Bezero fidela da sarean gure abonatu eta bezeroa (edozein Opel kontuzkoari) ezin 15 hilabeteetan. Gaitasunak: > 50 euro, BEZa ez dago baimen, berritzaileak kanpo, garrantzia, azkeneko... eskutik eta ordedatze linea bategin.

MARKA GUZTIAK KONPONTZEN DITUGU ETA DENEK DITUZTE DESKONTUAK



**BOSCH DIAGNOSI
ZERBITZUA**



**BASABE POL. A 1-3. pab.
20550 ARETXABAETA**

**Telefonoa:
943 71 20 03**



www.myOpel.es

Cuidamos | Presente
tu que fabricamos | Opel

OPEL zerbitzu ofiziala



Herritarrak iazko Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren Azokan. GOIENA

Sanmigeletako azokan 60 postutik gora aurten

Urtero bezala, bihar, hilak 28, egingo dute sanmigeletako azoka. Aurten, 60 postuk jantziko dute Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 25. Azoka. Era berean, bertako Ganaduen V. Feriak Arlutzeko kantxa hartuko du bihar

Jone Olabarria OÑATI

Aretxabaletako Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren Azokak 25 urte beteko ditu aurten. Hala, urtero moduan, Durana kalean jarriko dituzte postuak, eta 10:00etatik 14:00etara bitartean bertako produktuak ikusi, erosi eta probatu ahal izango dira.

Horrez gainera, bertako Ganaduen V. Feriak Arlutzeko kantxa girotuko du, Luis Mari Alberdi baserritarraren animatiekin.

Bertakoaren aldeko apustua

Horrenbestez, zapatu goizean, Euskal Herriko toki askotariko ekoizle eta artisauak batuko dira azokan; gipuzkoarrak gehienak, eta, nola ez, Aretxabaletakoek ere ez dute hutsik egingo. Eztia, ardi eta ahuntz gazta, ogia, haragia, berakatzak... askotariko produktuekin disfrutatu ahal izango dute azokara gerturatzen direnek.

Zehazki, hogeit hamar postu egongo dira ikusgai nekazaritza ekologikoaren atalean eta 41 artisautzan; horietatik hamabi, aretxabaletarrak. Horrekin guztiarekin

batera, txistulariek, trikitilariak, txalapartariak eta bertsolariak girotuko dituzte azokaren xarmaz beteko diren herriko kaleak.

Artisautza, gora


Produktu ekologikoez gain, artisauak gero eta parte hartze handiagoa dute azokan. Hain zuzen, 41 artisau-postu izango dira aurten, iaz baino sei gehiago. Hauen artean ere, Euskal Herri osotik etorritakoak eta bertakoak elkartuko dira, produktu sorta zabala ikusi eta erosteko aukerarekin: artilea, bitxiak, xaboa, euskal pastelak, kremak, zilarra, umeentzako arropak, alpargatak, egurra, kandelak...

Ganadu feria, arrakastatsua

Seigarren urtez, herriko bertako animaliak izango dira ikusgai Arlutzeko kantxan. 10:00etatik 14:00etara bitartean, zaldiak, ahuntzak, ardiak, oiloak eta astoak izango dira ikusgai. Guztiak, herriko baserritarrek eroandakoak. Izan ere, abereen feriak aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, San Migel azokako klasiko bilakatu da.

Ile kizkurra kentzeko tratamenduak eta ile-leuntzeak

Ilargi plaza 2 • Tel.: 943 79 99 18 • ARETXABALETAKO



Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketa lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketan urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Ondo pasa sanmigeletan!


HerriKide
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net

*Artisau-ogia,
etxean bertan egina*

*25 urte
bete ditugu:*

*eskerrik asko
bidea gurekin
egin duzuenoi.*



*Ondo ibili
sanmigeletan!*

ARETXABALETA
OKINDEGIA

Basabe poligonoa 2

ARETXABALETA

Loramendi 6

"Herriari guztiz errotuta dago Beinke-Loramendi"

JASONE GORROÑO BEINKE-LORAMENDI DANTZAREN SORTZAILEETAKO BAT
Duela 25 urte ekin zioten aretxabaletarrek Beinke-Loramendi dantzari. Sanmigel jaietako ekitaldi "seinalatua" denak bihar hartuko du plaza, arratsaldeko zazpitan

Jone Olabarria ARETXABALETA

Hasiera-hasieratik Loramendi euskara elkarteari lotuta egon da Jasone Gorroño Aretxabaletarra. Hamar urtez zuzendaritzan egon ostean, ondo baino hobeto ezagutzen ditu Beinke-Loramendi dantzaren nondik norakoak; dioenez, herriak "biziki" maitatuko ekitaldia.

1994an, Loramendi euskara elkartearen sorrerarekin ekin zenioten dantzari. Zein zen helburua?

Orduan sortu berri zegoen Loramendi euskara elkarte, eta ongietorri ekitalditxo bat egin nahi genuen, herrian ezagutzera emateko asmoz. Aretxabaletan ohitura errotzea ere bazen



Jasone Gorroño, astean zehar Aretxabaletan. JONE OLABARRIA

helburua, jendeak parte hartu zezan. Hala, dantzaren ideia sortu zen eta lanean hasi ginen; Jose Ramon Vitoriak sortu zuen musika, eta dantza pausoak, fandangoa, arin-arina, balsa... Loramendi dantza taldearen eskutik iritsi ziren.

Zer irudikatu nahi izan zenuten?

Dantza bi talde ezberdinetan hasten da, eta gero, denek batera egiten dute emanaldia. Bi zatitan egiten da, hain zuzen, gure historia bera irudikatu nahi zuelako dantzak: ilara batek Beinke irudikatzen du eta besteak, Loramendi. Bakoitza bere kabuz doa hasieran, eta gero, batu egiten dira, uztartzen diren bi bide sortuz, Loramendirekin gertatu zen bezala.

Eta nondik sortu zen Loramendi euskara elkarte?

Hasiera batean, Beinke zen Aretxabaleko euskara elkarte eta Loramendi, aldiz, ikastola. Ikastola publikatu egin zen eta bertako bazkidetza umezurtz geratu zen, hein batean. Bazkidetza horiek baliatuta euskara elkarte sortzea proposatu zen, Beinkeko jendearekin eta Loramendikoekin. Elkarte berria

aurretik egindakoari jarraikortasun bat emateko helburuarekin jaio zen, indar handiagoz lan egiteko.

Egun, sanmigeletako ekitaldi seinalatua da; orduan ere harrera ona izan zuen herrian...

Zalantza barik, bai lehen eta bai orain, herriari guztiz errotutako ohitura da Beinke-Loramendi dantza. Lehen urteetan, izugarria izan zen, 120 lagun izatera ere iritsi ginen dantzan, eta plaza ikuslezt beteta egoten zen. Egun ere, jende asko gerturatzen da eta, plazan dantzarako lekua egon dadin, lau lerrotan egin behar izaten dugu emanaldia.

Aurtengoari begira, nola iristen zarete hitzordura?

Ehun lagun inguru batuko gara aurten. Azken urteetan, zifra horren bueltan gabiltza: batzuetan, gora; beste batzuetan, behera. Emanaldia boluntarioa eta irekia da, herritar guztiak etor daitezke, dantzan jakin edo ez. Esan beharra dago animatzen diren gehienak emakumeak direla, baina gutxika-gutxika mutilak ere badabiltza gerturatzen. Hori ere bada erronka guretzat.

Gora sanmigelak!



ehbildu
Aretxabaleta



Mobiliario
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 ARETXABATETA
Tel./Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

- Altzariak
- Diseinua
- Apainketa

*ondo ibili
jaixetan!*



GUUREA



Gora, sanmigelak!

TABERNA

Durana 32 ARETXABALETA Tel.: 943 79 20 64

Herri kiroliek ez da faltako San Migel domekan

Jone Olabarria ARETXABALETA

Domekan, hilaren 29an, San Migel jaien baitan egingo diren herri kirol probek denetarik izango dute. Lau aizkolari eta hiru harri jasotzaile arituko dira, besteak beste, Herriko Plazan egingo diren erakustaldian eta txapelketan. 13:00etan hasita, aurten bi modalitatetan arituko dira kirolariak: aizkolan eta harri jasotzean, hain zuzen ere.

Bikoteka aurten

Aizkorari dagokionez, Iñaki Azurmendi eta Maite Ariztegi Aratz Mugerzaren eta Irati Astondoaren aurka arituko dira. Era horretan, bi bikote bata bestearen kontra lehiatuko dira

proban, zortzi ebaketa horizontal eta trontza eginez.

Aita-semeak, erakustaldian

Harri jasotzaileen kasuan, Kar mele Gisasola 25 urteko malla-bitarra, harria altxatzeaz gain, txingekin eta ingudearekin ere arituko da Aretxabaletako plazan domeka eguerdian.

Iruretagoiena aita-semeen kasuan, harria jasotzen arituko dira Izeta IV.a eta bere seme Izeta V.a. 10 urterekin, Jakes gazteak 25 eta 20 kiloko harriak altxatuko ditu eta Hodei aita, aldiz, 125, 109 eta 113 kilokoekin arituko da. Izeta familia herri kirolei lotuta egon da betidanik eta aski ezagunak dira harri jasotze eta idi probetan.


Aurrez aurre, hiru harri jasotzaileen erronka



HODEI IRURETAGOIENA
IZETA IV.A

"Gurean belaunaldi berriek, momentuz, badute afizioa"

"Nire kasuan, 7-8 urte nituela hasi nintzen jada harria jasotzen, aitarekin. Gurean familia kontua izan da betidanik harri jasotzea; bide hau hartzearen aukera ere Manuel Iruretagoiena aitona izan zen, eta bere ondorengoek bide bera jarraitzea erabaki dugu. Belaunaldi berriek ere, momentuz, afizioa dute. Hain zuzen, orain, semea ere badabil bere lehen harriak jasotzen. Domekan, batera arituko gara Aretxabaletan; oraingoan, harria jasotzen baino ez".



KARMELE GISASOLA
ZELAI III.A

"Neskentzat, herri kirolean asko dago egiteko"

"Harri jasotze lehen erakustaldia 2016an egin nuen, Zugarramurdin, Kepa Junkera eta Sorginen emanaldi batean. Ez nabil gerritik oso ondo; hortaz, ea zer moduz iristen naizen domekara, baina koparekin bada ere, egingo dugu zerbait. Emakume izanagatik ez dut arazo edo zailtasun berezirik izan mundu honetan, jendeak askok babesten gaitu. Dena den, gizonak eta emakumeak parekatzeko badira herri kirolean aldatu beharrekoak".



JAKES IRURETAGOIENA
IZETA V.A

"Aitonarekin eta aitarekin entrenatzen naiz baserrian"

"25 kiloko harriarekin ibiliko naiz eta uste dut bi jasoaldi egingo ditudala, esku batekin. 10 urte ditut orain eta duela bost urte, 5ekin, hasi nintzen harria jasotzen, etxean, aita eta aitona ikusita. Egia esanda, ez naiz askorik entrenatzen, aitonaarekin joaten naiz lzetara eta bertan harri ezberdinekin probatzen joaten gara. Herri kirolean, aizkorarekin ere aritzen naiz orain dela bi urtetik, baina hobeto moldatzen naiz harriarekin. Bestela ere, pilotan eta eskubaloian jokatzen dut".

LOSADA DISEINU-CBRAK

Irozkitegi

Ondo ibili sanmigeletan!

Otalora 11 • ARETXABALETA • 943 79 93 58

SAN MIGEL JAIAK

2019

Aretxabaleta | Irailak 27/28/29



Aretxabaletako
Udala
KULTURA SAILA



Otsailaren 15ean inauguratu zuten Bolukoa estalkiarekin; irudian, bi erabiltzaile, astelehenean. ARGAZKIAK: IÑIGO ZUBELDIA, E. AZKARATE ETA J. BEREZIARTUA



2011tik beltza den udal frontoia, asteon; iaz margotu zen azken aldiz.



Mariaren Lagundia ondoko Torrekua urte hasieran margotu zuten.

Jokin Bereziartua BERGARA

Ez dago Debagoiengan Bergarak besteko frontoi kopurua duen herririk, bergararrek hamar aukera dituzte pilotan egiteko. Eta 2019ko otsailaren 15ean estalki berriarekin inauguratu zuten Bolukoa aintzat hartuta, hamar frontoietatik bederatzi estalita daude gaur egun, euria egiten duenean horrek eskaintzen dituen askotariko aukerekin.

Baina zenbateraino erabiltzen dira frontoi horiek guztiak?: "Ez dugu erabilera datu zehatzik, baina ikasturte berrirako alokairurako zozketa egin berri dugu eta beste urte batzuekin alderatuta nabarmena da behe-rakada", dio Kirol teknikariburu Iñaki Ugarteburuk. Erreserba horietako asko ez dira pilotarako edo antzeko kirol jardueretarako egiten, gainera.

Kontuan hartu behar da Udal Pilotalekuan izan ezik, gainerakoetan erreserba gehienek hileka funtzionatzen dutela; pilotaleku bakoitza noiz erabili ahal izango den eta erreserbarako prezio zehatza zein den jakiteko nahikoa izango da Agorrosin Kirol Gunera joatea edo telefonoz (943 77 70 95) zein posta elektronikoz (agorrosin@bergara.eus) zuzentzea. Izan ere, alokairuon prezioak hainbat ezaugarriren arabera izaten dira.

20 pareta baino askoz gehiago

Hamar pilotalekurekin, Bergara da frontoi gehien dituen Debagoieneko herria. Horien erabilera "nabarmen" jaitsi bada ere, azpiegitura "garrantzitsuak" dira Udalarentzat eta bereziki auzo periferikoentzat; pilota sailak 150 bat jokalarirekin ekin dio denboraldiari

Azken inbertsio potoloa, Boluan Erreserbei dagokienez, erabilerearen beherakada "nabarmena" izanda ere, Udalak "oso aintzat" hartzen du frontoion mantentzea. Udalak daturik ez badu ere, erabilera librea badute eta: "Gure pertzepzioa da frontoiak erabili erabiltzen direla", dio Ugarteburuk. Azken urteetako inbertsiorik handiena, zalantza barik, 2018an eta 2019an Bolukoa estal-

"ELOSUAN HAINBAT ELKARTZEN GINEN DOMEKETAN BARRUKA JOKATZEKO"

REYES AZKOITIA, ENTRENATZAILE OHIA

tzeko eta itxuraldatzeko egindakoa izan zen; 315.000 euro pasatxo inbertitu ziren aurreko agintaldian. "Bolurako ez dugu erreserba finkorako eskaerarik jaso, baina pilota eta eskubaloi sailekoek bidali dituzte eskaerak eta erabiliko dute", gaineratu du teknikariburuak. Beste batzuk orain gutxi margotu dituzte; urte hasieran, Elorregikoa eta Torrekua margotu zituzten, eta Udalak orain gutxi onartu du margotzen hurrengoa Zabalotegikoa izatea: "Badakigu egoera txarrean dagoela, eta hori izango da hurrengoa. Urtero margotzen dugu frontoi bat edo bi; Osintxukoa, Angiozarkoa eta Uberakoa berriro dira azken urteetan. Bes-

talde, Basalgokoa eta Elosukoa aspaldi ez dira margotu".

Auzoetan, bereziki, frontoia plaza Esandako moduan, hamar frontoietatik bederatzik dute estalkia. Landa-auzoetako guztiek dute estalkia, hain justu; izan ere, bereziki, auzoetan hainbat erabilera ematen zaie. "Aterpea behar izaten dugun ekitaldietan erabiltzen dugu frontoia; jaietan

"ALOKAIRUETARAKO ESKAERAK NABARMEN JAITSI DIRA AZKEN URTE HAUETAN"

IÑAKI UGARTEBURU, KIROL TEKNIKARIBURUA

agertokia eta barra bertan egoten dira, Gabonetako Jaiotza ere frontoian jartzen dugu, eta errege magoek bertan banatzen dituzte gozokiak, besteak beste. Elkartearen ostean, auzotarren artean aterperik erabiliena da, zalantza barik", adierazi du Elosuko auzo-alkate Iñigo Zubeldiak.

Herrian 150 pilotari, "gutxienez"

Baina izenak berak dioenez, pilotan egiteko lekuak dira, eta helburu horretarako eraiki ziren bere garaian. Hamar dira asfaltitik erabilgarri daudenak, Bergaran oraindik ere pilotarekiko tradizio handia dagoen seinale, eta salbuespena da eraitsi berri duten Labegaraletako kiroldegi ondoko biltegi zaharreko frontisa. Izan ere, aspaldi, ia edozein pareta edota elizpe erabiltzen zen pilotan egiteko.

Azpiegituz harago, pilotak etorkizuna baduela berresteko adierazleetako bat da Bergara Kirol Elkarteko pilota sailak egoera "osasuntsua" bizi duela. "Aurre-benjaminetatik senior mailara, 150 bat neska-mutiko izango ditugu, gutxienez", zehaztu du zuzendaritza taldeko Julen Aranburuk. Mutilak nabarmen gehiago badira ere, gero eta neska gehiago daude eta bide horretan sakontzeko asmoa dute pilota sailekoek. Bigarrenez



Elorregikoa, astelehenean; 2019ko urtarrilean margotu zuten.



Gaztetxo batzuk frontenisean jokatzen Osintxukoan, domekan.



Basalgo auzoko frontoia, hutsik, domeka goizaldean.



Uberako Jaolatza elkarte gastronomikoari itsatsita dagoen frontoia.



Angiozarko Arbiaska pilotalekua, eskola txikiaren parean.



Elosuko frontoia, martitzenean; aspaldi margotu gabekoen artean dago.



Burdinola klubekoak Zabalotegin, astelehenean; bertan egingo da hurrengo esku-hartzea, Udalak "laster" margotuko du-eta.

antolatu duten Bergara Hiria emakumezkoen pilota txapelketako finalerdiak jokatu ziren martitzenean, promes mailan, eta hurrengo martitzenean, urriak 1, jokatuko da finala (19:30).

Auzoetara zabaltzeko eskaera

Bestalde, herrian hamar frontoi izatea "pozgarria" da pilota sailaren ustez, egunerokotasunean, gehienbat, Fraiskozurikoa era-

"AUZOETAN GEHIAGO JOKATZEA ONDO LEGOKE, EZ JOATEKO JAIETAN BAKARRIK"

JULEN ARANBURU, BKE-KO PILOTA SAILA

biltzen badute ere: "Udal Pilotalekua ez badago erabilgarri entrenamenduetarako, Bolua eta Zabalotegi dira gure lehen aukerak. Partiduetarako Antzuolara joan izan gara eta iaz Elgetan ere jokatu genuen". Horren harira, aipatzekoa da auzoetatik eskaera zehatzak jaso dituztela; osintxuarrera, horren adibide. "Osintxura partidu gehiago eramateko eskatu digute auzotarrek. Eskaera hori lantzeko gaien artean dugu; ondo legoke auzoetara gehiago joatea. Izan ere, auzoetara, bestela, festetan bakarrik hurbiltzen gara", azaldu du Aranburuk.

Aranburu bera urte luzez ari zen pilotari, eta lehen oroi-

tzapenak, Bergarako pilotari gehien antzera, Reyes Azkoitiari lotuak ditu: "Umetan ere Udal Pilotalekua zen gehien erabiltzen genuena, Reyesekin. Baina gogoan dut partidu batzuk Elorregin eta Uberan ere jokatu izan genituela".

Pilotak badu harrobia oraindik
Izan ere, Bergarako erreferenteren bat badu pilotan, horixe

"ELKARTEAREN OSTEAN ATERPERIK ERABILIENA DA, ZALANTZA BARIK"

IÑIGO ZUBELDIA, ELOSUKO AUZO-ALKATEA

Reyes Azkoitia da, zalantza barik. Urtebete luze pasatu da zuzendaritza taldea utzi zuenetik; hori albiste izan zenean GOIENARI emandako elkarrizketa batean zioen ez ziola frontoira joateari utziko. Esan, eta egin: astelehenean argazkiak ateratzera pasatzerakoan, han harrapatu zuen GOIENAK Azkoitia, harmailetan eta kafesnea eskuan: "Ahal dudanean, gustatzen zait frontoira hurbiltzea".

Elosuko frontoian eman zituen lehen pilotakadak Azkoitiak, eta gogoratzen du garai haietan frontoia gaur egun baino "askoz gehiago" erabiltzen zirela: "Gogoan dut Elosuan domeka arratsaldeetan barruka jokatzen hainbat lagun elkartzeko ginela, 17:00etan hasi eta 20:00ak arte. Auzoan ez zegoen besterik. Orain, estalpea izanez gero auzoko plaza edota jolastoki ere bihurtzen dira frontoia". Harrobiari dagokionez, pilota eskolako kopuruak garai batekoak baino hobeak dira gaur egun –oraindik ere kadete mailatik aurrera gutxi jarraitzen duten arren– eta neskek aukera dute pilotan jarraitzeko: "Pilotan hasi eta gustatzen bazaie aurrera egin dezaketela jakitea oso garrantzitsua da; lehen, pilota gustatzen zitzaienek ez zuten aurrerabiderik, eta laga egin behar izaten zuten".

Estaliek argia, eta bostetan aldagelak

Bergarako dituen hamar pilotalekuetatik bederatzik dute estalkia. Horiek guztiek dute argiteria propioa. Beraz, Torrekua da argirik ez duen bakarra. Aldagelak dituztenak, berriz, bost dira: Udal Pilotalekua, Zabalotegikoa, Osintxukoa, Angiozarkoa eta Uberakoa. Frontoi guztien kontrola Udaleko Kirol Zerbitzuak eramaten du, baina, erabilerari dagokionez, egoera ezberdina da kasuak kasu. Udal Pilotalekua, Bolukoa, Zabalotegikoa, Osintxukoa, Angiozarkoa eta Uberakoa erreserba finko bidez alokatu ditzake edonork, betiere, alde aurretik hartuta ez badago eta kontu korronte zenbaki bat utzita izena eman ostean Kirol Zerbitzuan (943 77 70 95). Auzoetako frontoietan, ordu batzuk auzotarren ekintzak garatzeko daude erreserbatuta.

Egurra oinarri, baserriak noizkoak diren jakitera

Egiturako egurretako enborren eraztunak behatuta, sei baserri noizkoak diren zehazteko ikerketa abiatu du Arkeolan-ek, Ibon Telleria arkitektoaren eta herriko baserrietan aditua den Patxi Larrañagaren laguntzarekin; espero dute emaitzak urte amaierarako izatea

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako baserriak noizkoak diren jakiteko ikerketa egingo du Arkeolan Fundazioak. Baserrien egiturako egurretik, orokorrean haritzarenak, enborren eraztunak behatuz jakin daiteke noizkoak diren baserriak. Eratzun kopuruak esaten du zenbat urte dituen zuhaitzak, eta urterik urteko eratzunen lodierek adierazten dute eratzun bakoitza ze urtetakoa den. Inguru geografiko bateko haritz guztien hazkundera berdina izan ohi da; beraz, urte berean sortuko dituzten eratzunak ere itxura bera izan behar dute.

Arkeolanekoek 800 urteko eratzun-sekuentzia dute erregistratua, eta, beraz, baserri bateko enborren marrazkiak eta sekuentzia horretakoak ze urte-tartetan bat egiten duten ikusita jakin daiteke baserria noizkoa den, kontuan izanda baserria eraiki baino urtebete inguru aurretik soilik botatzen zirela egiturarako behar ziren zuhaitzak.

Orain arteko usteak, kolokan

Orain gutxi Arkeolan lan hautan hasi arte ez da baserriak noizkoak diren jakiteko ikerketa zientifikorik egin, eta, diotenez, datu garrantzitsua da. "Dirua sartu behar da ikertze-ko, baina gero, buelta du horrek;

balioa ematen zaio, turismoa...", dio Arkeolan Fundazioko Josue Susperregik. Teknika honek, gainera, kolokan jartzen ditu orain arteko zenbait uste. "Beti esan izan da lehen baserriak XVI. mende hasieran eraiki zirela, baina gero eta gehiago ikertu, ondorioa da lehenago eraiki zirela". Hain zuzen, XIV. mende amaieran edo XV. mendean hasieran kokatzen dituzte orain lehenengo baserriak.

Ikerketa Diputazioaren dirulaguntza bati esker finantzatu-ko da eta Susperregik Ibon Telleria arkitektura irakaslearen eta Bergarako baserrietan aditu den Patxi Larrañagaren laguntza izango du.

Dozena bat bisitatu, sei ikertu

Baserriak aukeratzeko horien egiturak egurrezkoak eta beraz ahalik eta originalenak izatea hartuko dute aintzat. Jabeen oniritziarekin, betiere, Larrañagak aurreratu du honako hauek bisitatu dituztela: Eguren, Eguegi, Garitaomartisaezkoa, Ziarreta, Jauregi, Eizmendi, Larrañaga Aundi, Arane, Laspieur, Monasteriobide, Iribe, Larrarte, Olabarria eta Lizarralde. Horietatik sei ikertuko dituzte eta espero dute emaitzak urte amaierarako izatea.



Ibon Telleria, Josue Susperregi eta Patxi Larrañaga, udaletxeko agerraldian. JULEN IRIONDO



LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARON IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0876	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKAK. PLANOEN IRAKURKETA	60	2019/10/07-2019/11/07
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK.ERAGKETATAN MIKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	2019/10/28-2019/12/11
FMEH00530H	FRESAGAILUA CNC HEINDENHAIN PROGRAMAZIOA	40	2019/09/30-2019/10/21
UF0453	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROD.JRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID EDGE MODELATU ETA PLANOAK	40	2019/10/14-2019/11/04
FMEH00710H	SOLID EDGE II. MULTZOAK	30	2019/11/18-2019/12/03
FMEM00120H	CAM POWERMILL	40	2020/01/13-2020/02/03
FMEC013P0	SOLDADURA MAG	40	2019/11/11-2019/12/03
UF0883	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2019/11/11-2019/11/26
UF0879	PIEZAK TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK EGITEA	80	2020/02/03-2020/03/18
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELELD0020H	MEKANIKOENTZAT ELEKTRIZITATEA	40	2019/10/14-2019/11/05
ELEED003P0	ELEKTRIZITATEAREN ALDERDI OINARRIZKOAK	60	2019/10/07-2019/11/07
ELEED109	BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTETZEA	80	2019/10/28-2019/12/11
FMEM006P0	ROBOTIKA OINARRIAK	50	2019/11/25-2019/12/19
ENAE00050H	EGUIZKO-ENERGIA: INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN OINARRIAK	40	2019/11/04-2019/11/26
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0343	SOLDATA ORDAINSARBAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA BILKETA	90	2019/10/07-2019/11/26
UF0320	TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK WORD	30	2019/11/11-2019/11/26
UF0321	KALKULU-ORRIEN APLIKAZIO INFORMATIKOAK. EXCEL	50	ZEHAZTU GABE
GAITASUN ZIURTAGIRIAK - LANGABEENTZAKO SOILIK			
FMEH109	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	540	2019/10/07-2020/05/07
FMEED108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	400	2019/10/28-2020/03/31





Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 89 92 72 - 943 89 92 73 - ikastaroak@maltuna.eus

OHARRAK

Orfeoiaren ezohiko batzar orokorra

Bazkideak deitu dituzte irailaren 30erako, sakristian (20:30).

Legedi berrirako aldaketak onartu beharko dituzte estatutuetan.

1942an eta 1948an jaiotako ospakizuna

1942an jaiotako bergararrek Zumelagan bazkalduko dute urriaren 5ean; 13:30ean elkartuko dira Egon kafetegian. 30 euro aurreratu behar dira, eta izena emateko azken eguna da gaur: ES04 3035 0009 11 0091155205 (Laboral Kutxa). Era berean, 1948an jaiotakoak ere urriaren 5ean elkartuko dira. Laboratoriumen bisita (12:00) eta Etxalar-en luntxa (13:30) izan ostean, 14:15ean Santa Marinar autobus hartuko dute Tartufon bazkaltzeko. 65 euro ordaindu behar da aurrez: ES71 3035 0009 0091037499 (Laboral Kutxa).

Etxebestetarrak, berriro ere pantaila handian

Eguaztenean estreinatu zuten, Seminarixoan, 'Agur, Etxebeste!' filma; Bergaran grabatutako lana, Asier Altunaren eta Telmo Esnalen zuzendaritzapean. Aste bukaera osoan filma ikusteko aukera egongo da Seminarixoan, ohiko ordutegian

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Bergaran grabatutako *Agur, Etxebeste!* filmak ekin dio bideari. Martitzenean estreinatu zuten, Donostia Zinemaldian; eta eguaztenean, Bergaran eskaini zuten. Zuzendariak eta aktore taldea izan ziren Seminarixoan.

Emanaldiaren aurretik, Edu Mendibil zinemazalearen galderak erantzun zituzten Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendariak. Lehenengo zati horrek ez zuen jendearen ikusmina sortu; bai, ordea, filmak.

Bergaran eta bergararrak

Filma ikusteko Seminarixoan lepo bete zen. Bergararrak gogotsu zeuden herrian grabatutakoa pantaila handian ikusteko; eta baita nork bere burua ikusteko ere. "Irrika horrekin geunden, ea non agertuko ginen... eta, egia esan, oso ondo agertu da Musika Banda", azaldu du Musika Bandako kide Igor Larrañagak.

Grabaketak Bergaran egitea "gozamina" izan zela azaldu zuten zuzendariak: "Oso ondo tratatu gaituzte. Zergatik aukeratu genuen Bergara lehenengo filma grabatzeko? Herri dotore baten bila genbiltzan... eta Bergarak aukera paregabea eskaintzen zigun", azaldu zuten



Lete, Altuna, Esnal eta Artola, oholntza gainean. MIREIA BIKUÑA

Esnalek. Alkate ohi Elena Lete eta egungo alkatea Gorka Artola ere oholntza gainera igo ziren. "Obrak direla tarteko kale bat moztu behar denean, herritarrak kexatu egiten dira; baina filmaren grabaketagatik kaleak itxi genituenean, ez zen inor kexatu", azaldu zuten Letek. Artolak gaineratu zuen: "Bergara mapan kokatzeko balio du filmak. Gainera, herrian kalitate honetako zuzendari bat izatea gozamina da".

Txalo zaparra handia eskaini zuten ikusleek amaieran. Ondo-

Sarrerak, ia agortuta

Aste bukaeran Seminarixoan eskainiko dituzten emanaldietarako sarrera ia guztiak salduta daude. Oso gutxi geratzen dira salgai.

Bergaran bakarrik ez, Arrasaten ere eskainiko dute filma gaur hasi eta astelehenera arte.

ren, bi zuzendariak eta Ramon Agirre, Elena Irureta eta Iban Garate aktoreak igo ziren Seminarixoko oholntzara ikusleen "babesa eskertzeraz".

Hamalau urteren ondoren

"Eskertzen da horrelako txalo zaparrada. Berezia da, hemen grabatu genuen, jende asko bere burua ikusi nahian etorriko zen...", azaldu zuten Agirre aktoreak. Hamalau urteren ondoren berriro ere Bergarara itzultzea "oso polita" izan dela gaineratu zuten. "Familia polita osatu genuen lehenengoa grabatzerakoan, *Aupa Etxebeste!*; denak ezagunak gara. Hirugarren zatia egongo den? Ez dakit. Niretzat, beste 14 urte gehiegi izango dira...", zioen, barrez. Patricio Etxebeste pertsonaiak garrantzi handia izan du Agirreren aktore ibilbidean: "Seguruenez, zineman izan dudana lehenengo pertsonaia protagonista... Ni ez nago protagonista izateko destinatua... itxuragatik, besteak beste". Hortaz, letra larriz dago idatzita *Aupa Etxebeste!* Agirreren ibilbidean.

Kixi-k gogoratu zuten lehenengo filmaren estreinaldia frontoian izan zela, eta ez zela leku egokiena izan estreinaldi baterako; oraingoan, "areto dotorean" izan delako pozik zegoen. Umore ukituarekin jarraituz, *Kixi-k* nabarmendu zuten estreinaldian faltan igarri zuela *mahoizko alfonbra ez jarri* izana.

Umorezko filma

Lehenengoaren hariari jarraituz, umorezko filma da *Agur, Etxebeste!* Baina, umoreaz harago, handikeria, ustelkeria, maitasuna... jorratzen dituen filma da. Hau da, hausnarketarako tartea eskaintzen duen lana da Altunarena eta Esnalena.

Euskal zineman mugarririk izan zen *Aupa Etxebeste!*, orain dela hamalau urte. "Igartzen da hamalau urteko jauzia...", azaldu zuten *Kixi-k*. Orain arte euskarazko filmak gaztelerara itzuli izan direla azaldu zuten zuzendari bergararrak; baina, oraingoan, ez itzultzea erabaki dute. Euskaraz eskainiko dute. Gainera, bigarren zatia izan duen lehen euskal filma izan da.

Gaur, aretoetan

Gaurtik aurrera, 38 zinema aretotan eskainiko dute *Agur, Etxebeste!* filma. Bergaran, gaur hasi eta astelehenera arte egongo da ikusgai.

"Zinemaldian estreinatzea garrantzitsua da, lagundu egiten du filmak indarra hartzeko; eta kritikak, sariek... horiek ere laguntzen dute", dio *Kixi-k*. "Bultzada hori garrantzitsua izaten da, baina filmak bere bidea egin behar du. Ea aretoak beteta ikusten ditugun; hala bada, aretoetako jabeek mantendu egingo dute-eta filma", gaineratu du.

Filmak egiteak duen beste lana da hori, promozio lana, hain zuzen: "Gusturago egoten gara kamera atzean, kamera aurrean baino; baina lanaren parte da", dio *Kixi-k*.

Eguaztenean Seminarixoan egon zuten ikusleek barre ugari egin zuten filma ikusten: "Gomendatzeko modukoa da; gainera, ez nuen horrelako amaiera espero", azaldu zuten ikusleek Seminarixoaren kanpoaldean.

UMOREZKO FILMA DA, BAINA HANDIKERIA, USTELKERIA, MAITASUNA... ERE LANTZEN DITU

Rock doinuak izango dituzte gaur Angiozarko jaietan

San Migel jaiak ospatuko dituzte domekara bitartean; adin tarte guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituzte

A.E. BERGARA

Egubakoitzetik domekara bitartean ospatuko dituzte San Migel jaiak Angiozarren. Ohiko ekitaldiez gain, aurten, rock kontzertuek hartuko dute protagonismo berezia. Gaur, egubakoit-

za, izango dira rock emanaldiak. 22:00etan hasiko dituzte eta oholntza arituko dira No Limits, Istilu eta Gordon Calling. Ondoren, DJ Txulos-en txanda izango da. Jaiei hasiera, baina, 19:00etan emango zaie, antzezlan

musikatuarekin, eta ondoren, kanpai jotzea egingo dute.

Jaietako ohiko ekitaldia izaten den patata-tortilla lehiaketa gaur egingo dute: 20:00etan hasiko dute eta tortillek prest egon beharko dute 21:15erako.

Zapatuan, Herri Eguna izango da. 11:00etan, umeekin zeramika tailerra egingo dute; eta 14:30ean, herri bazkaria elizpean. 16:30ean, umeendako puzgarriak jarriko dituzte. Afrikar giroak ere izango du bere tokia Angiozarren: Ndank Ndank elkarteko es-

kutik, afrikar musika, 17:30ean. Musa gustuko dutenek ere izango dute joko: 18:00etan egingo dute mus txapelketa, Pagomendi elkartean.

Domekan, San Migel eguna ospatuko dute. 10:30ean, erraldoiekin eta Ondarreko gaiteroekin kalejira egingo dute. 11:00etan izango da meza, erretiratuen abesbatzaren laguntzarekin, eta ondoren, kontzertua. 19:00etan, umeen txokolatada egingo dute eta ondoren, San Migelen zerurartea.

Kultura kalera aterako dute aste bukaera osoan

Herriko kultura elkarten jarduna ezagutzeko asmoz, Kultura Kalera ekimena egingo dute. Gaur arratsaldean, Jardunen eskutik haurrendako jolasak egongo dira plazan. Horrez gain, Orkestra Sinfonikoaren entsegu irekia ikusteko aukera egongo da, eta bihar, kontzertua. Domekan, tailerrak izango dira San Martin plazan.



2020an, Olaran etxea irisgarria izateko lanekin hasiko dira. MAIDER ARREGI

Agintaldirako inbertsioen antolaketa adostu dute

Datozen urteetarako hainbat inbertsio ditu esku artean Antzuolako Udalak. Agintaldiko lehen osoko bilkuran, aho batez onartu dute inbertsioak antolatu eta lehentasunak ezartzeko proposamena. Olarango obraren proiektua aurten onartu gura du Udalak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eguaztenean egin zuten agintaldiko lehen osoko bilkura. Inbertsio-eranskina aho batez onartu zuten. Eranskin horren helburua da hemendik eta lau urteetarako inbertsioen panorama orokorra eta antolatua argi izatea. Etorriko diren aurrekontuen bilakaeraren gaineko aurreikuspena izatea, alegia.

Izan ere, Antzuolako Udalak ondorengo urteetan aurrera aterako dituen hainbat inbertsio potolo ditu esku artean: Eztala, Torresoroa, Olaran, Plan Orokorra eta baserrietara ura eramateko lanak dira nagusiak. "Baditugu urte bat baino gehiago iraungo duten proiektuak eta erabaki honekin gura izan dugu jakin nola josiko ditugun eta nola baldintzatuko dituzten aurrekontuak", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Horren adibidea da aurten idatziko den Plan Orokorra -15.000 euro-: "Aurten egingo da Plan Orokorraren proiektua;

baina lan potoloak 2020, 2021 eta 2012 artean egingo dira. Urtero 90.000 euro inguruko inbertsioa eskatuko du, gainera. Horrek gainerako inbertsioetan eragin zuzena izango du. Helburua izan da ikuspegi hori denok garbi izatea adostasuna edukitzeko", gaineratu du Kortabarriak.

Inbertsio potoloak

Lanen lehentasunei dagokienaz, Eztalako aldagela berrien obren deialdia argitaratzeaz dagoela aurreratu du alkateak, eta proiektu zehatza ere aurten onartu gura duela Udal Gobernuak. Datorren urtean hasiko dira Eztalako lanak -aurreko astean aurreratu bezala GOIENA aldizkariak- eta asmoa da denbo-

ANTZUOLAKO PLAN OROKORRA AURTEN IDATZIKO DA; DATOZEN URTEETARAKO LANA IZANGO DA

raldi berrirako aldagelak prest izatea. "Denboraldi berrirako gurako genituzke aldagelak; gehienez, urtea amaitu aurretik".

Olarango lanei dagokienez, ez dira hasiko 2020ra arte. Baina aurten onartuko da proiektua eta datozen bi urteetan egingo dira lanak -obra 2021ean amaitzea dago aurreikusita-. "Helburu nagusia da igogailua jartzea eraikinaren barrualdean. Izan ere, egun, Olaran etxea ez da irisgarria. Goiko pisua eta behekoa igogailuz lotu gura ditugu. Tabike batzuk bota eta beste gela handi bat ateratzea ere bada asmoa. Margotu ere egingo da, eta instalazio elektrikoa berritu. Telekomunikazio sarea ere egokituko da". 170.000 eurokoa da inbertsioa eta bi urtean ordainduko da: 90.000 euro lehen urtean eta 80.000 bigarren urtean.

Antzuolako Plan Orokorra, aldiz, lau urteko lan sakona da. "Herriko lursail guztiei ze ibilbide eman behar zaien aztertu beharra dago".



Beñardo Kortabarria alkatea Legebiltzarrean eskola eredia azaltzen. PAUSOKA

Legebiltzarrak aho batez babestu du eskola proiektua

Herri Eskolaren hezkuntza eredia egonkortu eta babestuko dituen neurriak onartu ditu Legebiltzarrak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Legebiltzarrak aho batez onartu ditu eskola proiektuari jarraitkortasuna emateko neurriak asteon egindako ohiko batzarrean. "Eskolak, gurasoek, Udalak eta, oro har, herriak elkarrekin egindako lan onaren ondorioa da errekonozimendu hau", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Onartutakoaren arabera, Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari honako bi neurri hauek aintzat har ditzan eskatzen dio: "Batetik, proiektu aitzindari eta berri-tzaile egonkortuak dituzten eta

errealitate komplexuei aurre egin behar dieten ikastetxeetan, hezkuntza proiektuak sendotu eta jarraitkortasuna emateko, premia egon daitezkeen aukera desberdinak aztertu eta ezarri ditzala. Eta bestetik, Antzuolako Herri Eskolako hezkuntza proiektuaren jarraitkortasuna bermatzeko, bertako lanpostuak berezitat izendatu eta hala har ditzala langile hornikuntza prozeduretan". Antzuolako alderdi sozialista ere pozik azaldu da Legebiltzarrak eskolaren berezitasuna babesteko neurriak onartu izanagatik.

Agroekologiaren bidea bertsoz bertso ereingo dute Pikunietan

Lujanbiok eta Arzallusek bertso saioa eskainiko dute urriaren 5ean; sarrerak salgai 'EHKOLEktiboa.eus'-en

Maidar Arregi ANTZUOLA

EHKOLEktiboa bertsoan ekimena egingo dute Pikunietan urriaren 5ean. Kolektiboaren parte diren baserrietako lana eta agroekologia gertutik ezagutzeko aukera eskainiko du ekimena, eta baserriarrek emandako informazioaren ilustrazioak egingo dituzte Lujanbiok eta Arzallusek, bertso bidez. Ondoren, bazkaria egingo dute Pikunietan bertan.

Proiektu honekin "bizitzaren bi oinarrietara" jo nahi du EHKOLEktiboa: elikadura eta aho-

tsa. "Horiek baitira, gure ustez, biziaren bi oinarri, funtsezkoak, ezinbestekoak biziko bagara".

Plaza mugatuak dira; beraz, izena eman beharko da ekimenean parte hartu gura dutenek. Kolektiboaren webgunean -www.ehkoektiboa.eus- dago jada horretarako aukera. Prezioa: helduak 25 euro eta gaztetxoek 12 euro; 6 urtetik beherakoek, doan.

10:30ean, ongiatorria eta baserriari bisita izango da. 12:30ean, bertso saioa; eta 14:00etan, bazkaria. Zalantzak argitzeko telefonoa hau da: 688 86 70 20.

140 kilometro, herritik inoiz baino gertuago

Kabalkada ikuskizunean parte hartu du Oinarin dantza taldeak Aiherran. Esperientziaz gozatu dutela aitortu diote dantzari antzularrek GOIENARI. Domeka honetan, hilaren 29an, beste emanaldi bat eskainiko dute, arratsaldeko lauretan hasita

Maidar Arregi ANTZUOLA

Lehenengo aldia da herriko Oinarin dantza taldeak kabalkada deritzon ikuskizun batean parte hartzen duena. Baina zer da kabalkada? Bada, hainbat diziplina artistiko batzen dituen ikuskizuna da –dantza, antzerkia eta kantua, hain zuzen ere—. Pasa den asteko domekan, Aiherran, egin zuten lehen emanaldia eta 200 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten; tartean, aurreratu bezala, Oinarin taldeko dantzariak.

Lehenengoz bizi izan dute Antzuolako dantzariak kabalkada batean parte hartzeko esperientzia barrutik. Eta oso gustura eta gogotsu etorri direla Aiherratik aitortu dute: "Esperientzia oso polita izan da. Bizitzan gutxitan izaten dira horrelako ekintzetan parte hartzeko aukerak, eta bizipen oso politekin bueltatu gara etxera".

Bailarako isla

Kabalkadan, Debagoienean jada estreinatu duten dantza egin dute. "Arin-arina dantzatu dugu. Bailarako Dantzari Egunerako arin-arin bat asmatu genuen eta koreografia bera egin dugu, baina Aiherrakoek emandako musikarekin", azpimarratu dute dantzari antzularrek.



Aiherran domekan egin zen kabalkada. OINARIN TALDEA

KABALKADAREN BIGARREN EMANALDIRAKO GOGOTSU DAUDE OINARINEKO KIDEA

Diziplina asko uztartzen dituen ikuskizuna izanik, antolaketa eta denborak kontuan edukitzea ezinbestekoa da kabalkadan. "Diziplina desberdinek parte hartzen dute eta gure zatia besteekiko bereizita doana da. Sa-

rrera-irteerak uztartu behar izan ditugun arren, ez digu arazo berezirik eman".

Senidetzea, indarrean

Antzuola eta Aiherra herrien arteko senidetzeak ez dauka lortu ezin daitekeen erronkarik. "140 kilometrok banatzen gaituzte eta ez da erraza horrelako emanaldi baterako koordinazioa aurrera eramatea. Dena den, lanak argi izan ditugu une oro eta positiboki baloratzen dugu. Domekarako ere gogotsu eta dena emateko prest gaude".

Denboraldi berriko taldeak aurkezteko jaia egingo du AKEk

Gaur, arratsaldeko zazpitan hasita, Herriko Plaza gorritz jantziko da AKEren denboraldi berriko taldeen eskutik

Maidar Arregi ANTZUOLA

Festa giroan amaitu ohi du AKEk urtero-urtero kirol denboraldia. Aurten, baina, beste buelta bat eman, eta hasiera ere ospatzeko erabakia hartu du klub gorriak. Hala, gaur, egubakoitza, herriko bazterrak gorritz jantziko dira festa giroan murgiltzeko. Denboraldi berria aurkezteko eta herritarrei kirola gerturatzeko asmoz, lehenengoz festa bat antolatu dugu", azaldu du AKEko presidente Ibon Gezalagak.

"Egia da AKE Egunarekin denboraldiari bukaera ematen diogula; aurten, pentsatu dugu hasiera ere ematea, eta, esan moduan, herrira zabaltzea. Hala, talde guztiak banan-banan aurkeztuko ditugu Herriko Plazan eta pintxo batzuk ere banatuko ditugu. Eztalara igotzen ez denak aukera izango du egiten duguna ikusteko".




AKeko denboraldi amaiera festa. I.S.

Kategoria guztiak

AKEren egoera osasuntsua da eta kategoria guztietan osatu dute taldea. Infantiletan, gainera, bi talde dituzte eta horietako bat mistoa da. Horrez gain, futbol eskolan 80 neska-mutikok parte hartuko du aurten.

Aritz Kortabarriak Mendiko Saria eskuratu du

Eulen taldeko Aritz Kortabarria txirrindulariak lasterketa apartarekin amaitu du denboraldia. Garaipena esku-eskura izanda, ordea, erorketa baten ondorioz ez zuen lehena helmugaratzerik izan Zaldibian. Bi kilometro faltan ihes eginda zihuan, bakarrik; baina, esan bezala, erori egin zen. Mendiko Saria Kortabarriaren esku geratu zen.



Aritz Kortabarria. @JIRA-BIRA

Domekan, bigarren emanaldia

Kabalkadaz gozatzeko bigarren aukera hilaren 29an dago. Autobusa Sagastitik irtengo da, 12:30ean –sarrerak, aurrez, udaletxean–. Lehen emanaldiarekiko inpresio oso ona jaso dutela diote: "Asko animatzen gintuzten dantza egiteko orduan; gainera, batzuk aurreko egunetik joan ginen eta euren etxeetan ere hartu gintuzten".



Oinarineko dantzariak arin-arina dantzaten. OINARIN

OHARRAK

Odola emateko deia

Antzuolako odol emaileen elkartetik dei berezia egin gura diote herritarrei odola eman dezaten. Hala, urriaren 2an, eguaztena, odola emateko aukera izango da Olanaren, 17:30ean.

Eskulan ikastaroa

Eduarne Uribesalgoren eskulan ikastaroetan izena emateko epea irailaren 27ra arte dago zabalik. Interesa dutenek –heldu zein haur– udaletxean bete beharko dute izen-emate orria.

Yoga ikastaroa

Goizez edo arratsaldez eskainiko diren yoga ikastaroetan izena emateko epea urriaren 3ra arte dago zabalik, udaletxera jota.



Eibarko Su Ta Gar taldeko kideak. SU TA GAR

Txantxikua jaitsi aurretik hasiko dira sanmigelak

Txosna batzordeak antolatu duen bikoizketa txapelketara 116 lan aurkeztu dituzte, eta jendetsua izango da iluntzean egingo den bideo emanaldia. Gauean, Su Ta Gar taldearen gitarra eta bateria hotsa entzungo da plazan, eta bihar danborrena kaleetan

Oihana Elortza OÑATI

Txantxikuaren jaitsieraren zain egon barik, indartsu hasiko dira aurtengo jai nagusiak. Egitarauan datorren bezala, Eibarko Su Ta Gar taldearen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, Foruen plazan, 23:00etan.

Lehen asteburua

Baina Su Ta Garrek ez ezik, Txosna Batzordeak lehenengo aldiz antolatu duen bikoizketa txapelketak ere jende asko erakarriko du. Izan ere, 116 lan aurkeztu dira, guztira, eta horien bideo emanaldia eta sari banaketa gauean, 21:30ean, egingo dute txosnagunean. Lau sari banatuko dituzte, guztira, hiru epaimahaiak erabakiko ditu eta laugarrena publikoaren saria izango da. Azken hori bideoak jasotako atsegite kopuruak erabakiko du. Bikoizketa txapelketak Instagramen duen kontuan daude bideoak.

Zapato gauean izango da nagusien danborrada, eta domekan,

ohiturari jarraituz, Lazarraga jauregian emango du kontzertua Musika Bandak. Olaiturrik urtero jaietarako prestatu izan duen herri antzezlanaren domekan da, eta astelehena gazteen eguna izango da –egitarau osoa eta hainbat ekitalditako informazio osatua gehigarrian dator–.

Errespetua

Bi asteburutan ospatuko dira San Migel eta Errosario jaiak, eta ospakizun hauek "errespetuz" gozatzeko dei egin du Udalak. Berdintasun batzordeak, gainera, jaietan gerta daitezkeen eraso sexisten prebentziorako eta erantzuna hobetzeko kanpaina abiatu du. Helburua da, batetik, herritarren sentsibilizazioan

GERTA DAITEZKEEN ERASOEI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA GARATU DUTE HAINBAT ERAGILEK

eragitea, erasoaren prebentzioan aurrerapausoak ematen jarraitzeko, eta, bestetik, gerta daitezkeen erasoaren aurrean baliabideak eskaintzea. Herriko jaietan, "herritar guztien askatasun eta segurtasunerako espazioak bermatu" gura ditu Udalak. Sare feministak ere, txosna batzordearekin elkarlanean, txosnagunean gerta daitezkeen erasoeri aurre egiteko protokoloa garatu du. Bide horretan, irailaren 27an eta urriaren 5ean, informazio-gune bat egongo da, Kale Zaharrean, eta telefono bat jarri du Udalak: 688 62 12 13. Jaiegun guztietan egongo da zerbitzua martxan, 20:00etatik 10:00etara.

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, egubakoitzetik astelehenera, biak barne, jaiegunetako erabilera bera izango du Zazpibidetako bidegurutzeak, asteburu honetan eta hurrengoan. Jaiegun horietan, udaltzainen zerbitzua ere luzeagoa izango da: 07:00etatik 02:30ak arte, hain zuzen ere.

Herritarrei eskerrak emanaz agurtuko da domekan parrokoa

Horazio Argarate izango da Oñatiko parroko berria eta biek batera esango dute meza domekan, 11:30ean

O.E. OÑATI

Domekan, San Migel eguneko meza nagusian, agurtuko da Joxan Larrañaga parrokoa. Hamaika urte egin ditu lan horretan Oñatin, eta erretiroa eskatu zuen, gaixotasunagatik. Oñatiko parroko berria Horazio Argarate izango da eta biak egongo dira domekako meza nagusian. Gipuzkoako bikario nagusia ere izango da aldarean domekako mezan, "batia apaiz gehiago ere", Larrañagak esan duenez.

Larrañagak parkinson gaitza du eta Jose Inazio Munilla go-

tzainari eskatu zion ardurak arintzeko. "Erretiroa hartzean, nora joan aukeratu dezakegu, eta Azkoitira joango naiz, lagun batekin biziko naiz han eta hari lagunduko diot, ahal dudana neurrian, baina ardura barik", dio Larrañagak.

2008ko irailaren 28an etorri zen Larrañaga Oñatira, eta, hamaika urte hauetan ondo hartu dutelako, "herritarrei eskerrak emanaz" agurtuko da. Meza ostean, luntxa egongo da parrokiako klaustroan, "herritarrekin egoteko".

Udanako autobus linea jartzeko lanean jarraitzen du Udalak

Oñati eta Legazpi arteko autobus linea berriz jartzeko lanean jarraitzen du Udalak. Aukera ezberdinak ari da aztertzen, proposamenak lantzen, eta horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariari aurkeztea da asmoa, eta laster horren berri eman ahal izan gurako luke. Legazpiko Udalak ere badu interesa linea hori berreskuratzeko.

Asteleheneko elkarretaratzea, bailara mailakoa

Asteleheneko egiten dute elkarretaratzea, Foruen plazan, herriko pentsiodunek eta hainbat erretiratutako deituta. Hurrengo astelehenekoa, baina, irailaren 30ekoa, berezia izango da. Debagoien mailako elkarretaratzea izango da eta beste herri batzuetako pentsiodunak ere etorriko dira. Manifestazioa ere egingo dute herriko kaleetan.

NIRE USTEZ



XABIER IGARTUA

Herriko jaietan herritik ospa

Badatoz sanmigelak, badatoz Oñatiko jaiak. Bi asteburutan banatuta aurten. Urtero legez, egitarau zabala, denera iritsi ezinezko horietarikoa. Festa eta parrandarako batzuentzat, herritik ospa egiteko unea beste batzuentzat. Aurtengo urtean ere, ziur aski, batek baino gehiagok herritik alde egingo du. Azken urteetako joera dugu inguruko herrietako festetan ere gertatu ohi dena. Pena ematen dit, zer esango dizuet, bada!

Bakoitzak bere arrazoiak izango ditu: parranden kupoa beteta eta gibelari deskantsua eman beharra, leku lasai batera joan nahia, jaiegun batzuk aprobetxatuz kanpoko herriren bat ezagutzeko aprobetxatzea... Joera orokorra bilakatzen ari den individualismoak herri komunitate izaerari zatitxo bat lapurtzen dion adierazle. Zer dira, bada, jaiak? Urtero herrikideok batu eta oñatiar izatea ospatzeko elkarrekin antolatu eta elkarrekin gozatzeko tartea hartzen dugun momentua. Bi aldeetan parte hartuz, ahal den heinean, antolatzaile/laguntzaile orain eta kontzertu/jaialdi/ekitaldietan disfrutatzen ondoren. Horrela ulertzen dut nik, behintzat.



Iker Martinez musikaria, disko berrirako ateratako argazkian. ITZIAR BASTARRIKA

Iker Martinezek disko berria aurkeztuko du

'Lurralde berriak' izenarekin, bakarkako lan berria asteon kaleratu du abeslariak, Musika Banda bidelagun izan duela. Hamaika kantuz osatutako lana da, eta urriaren 4an, ostirala, eskainiko dute diskoaren aurkezpen kontzertua, Atzeko kalean

Maialen Santos OÑATI

Bakarka egindako lanak atzo ikusi zuen argia; diskoaren aurkezpenak, halere, datorren aste arte itxaron beharko du.

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak sortutako diskoa izan da; izan ere, elkarlanean aurrera eramandako proiektua dela aurreratu du protagonistak: "Bakarlari moduan aurkeztu arren, Musika Bandak grabaketa guztietan hartu du parte, eta kontzertuetan ere batera jardungo dugu". Berak gaineratu bezala, taldekideen laguntza "ezinbestekoa" izan da proiektua aurrera eramateko, eta herriko jaiak aprobetxatuko dituzte, eskuartean dutena oñatiarrei erakusteko. Diskoaren aurrerapen gisa, bideoklipaz lagunduriko *Eguzki bat tatuatu* kanta plazaratu dute, gainera.

2017. urtean estreinatu zen Martinez bakarlari moduan *Itzalen mundua* lana kaleratu zuen, sei abestiz osatutakoa. Oraingoan, baina, hamaika abes-

ti sortu ditu, guztira, eta badira aurreko diskoarekin alderatuta "egindako aldaketak".

Lanaren nondik norakoak

Batik bat, soinuaren alorrean egindako lanketa handia azpimarratu nahi izan du bakarlariak: "Melodia eta instrumentuak medio, entzuleen belarrirako atsegina izango da lan berria". Aurreko diskoan ez bezala, letratan oinarritutako abesti alaiak izango dira nagusi, eta berrikuntza moduan erabilitako pianoak eta teklatuak ere paper "bereziki garrantzitsua" izango dute oraingoan. Musikak eta ahotsak bat egin dezaten, Iker Martinezekin batera Joseba Aranburu, Iñigo Biain, Jimmy

"MELODIA ETA INSTRUMENTUAK MEDIO, ENTZULEEN BELARRIRAKO ATSEGINA IZANGO DA"

Irizar eta Iñigo Ugarte izango dira agertoki gainean.

Grabaketak hainbat lekutan egin dituzte: Andoaingo Garate eta Beasaingo Pottoko estudioetan, baita Oñatiko Eltzian eta Tolosan, besteak beste.

Dagoeneko eskuragarri

Aurrerantzean, Elkar argitaletxearen dendetan eskuratu ahal izango da *Lurralde berriak*. Oñatin, Aker eta Boga tabernetan ere salgai egongo da, 10 euroren truke, eta sare sozialetan ere entzungai dago jadanik.

Emanaldiei dagokienez, aurkezpen modura egingo dutenaz gain, Tolosako Bonberenea gaztetxean kontzertua eskainiko dute datorren urriaren 18an.

Musikaria, gaztetatik

Latzen taldean hasi zuen ibilbide musikala Martinezek, nerabea zela. Gerora, Potemkin, Amonal eta Lenao taldeetan ere aritu da. Azken taldearekin diskoa kaleratu zuen 2018ko irailean.



Aloña Mendiko areto futboleko talde berria. YURA PEREZ

Aloña Mendik areto futboleko talde berria izango du aurten

Ingou Aloña izena hartu du taldeak, eta urriaren 19ko asteburuan jokatuko dute estreinako partidua, Zaldibian

M.S. OÑATI

Iaz gazte mailan jokatzen zuen taldeak senior mailara egin berri du jauzi. Hala, gazte mailako talderik ez da egongo aurten; bai, ordea, senior mailako talde berri bat.

Sei urte pasa dira Aloñako senior taldeak jokatzeari utzi zionetik, eta oraingoan indarrez bueltatu direla azaldu du Mikel Saiz talde berriko entrenatzaileak: "Maila oneko taldea sortu dugu, eta garaipenak lortzea espero dugu". Bestalde, infantil mailan ere izango du ordezkaritza aurten, Aloñak.

Taldea, osatuta

17 eta 28 urte bitarteko hamasei jokalaria arituko dira aurrerantzean taldearekin entrenatzen. Gehienak aurreko denboraldietan gazte mailan jokatzen dituzten arren, taldekide berri batzuk batu zaizkie aurten: lau

jokalaria eta entrenatzaile laguntzaile bat dira azkenengo sartu direnak, hain zuzen,

Entrenatzaile lanak Aitor Sanchezek egingo ditu; halere, Mikel Saiz eta Iñaki Iglesias -azken hau berria da- entrenatzaile laguntzaile lanetan arituko dira.

Partiduak, asteburutan

Ohikoa den moduan, asteburuetan jokatuko dituzte norgehiagokak, etxean zein kanpoan. Gipuzkoako hirugarren mailako ligan arituko dira; beraz, lurraldeko beste talde batzuk izango dituzte aurkari. Bi astean behin jokatuko dute etxean, Zubikoa kiroldegian, hain zuzen ere.

Urriaren 6ko asteburuan hasiko da liga, berez, baina Oñatiko jaietako Herri Egunarengatik, Ingou Aloñak bigarren jardunaldira arte ez dio liga jokatzeari ekingo.

Urriaren 4ko bertso jaialdirako sarrerak eskuragarri daude

Txokolateixan eros daitezke sarrerak: nagusiek 10 eurotan eta gazteek 8 euroren truke.

Zubikoa kiroldegian izango da saioa, 22:30ean, eta Txinparta Bertso Eskolia arituko da gai-jartzaile lanetan. Parte hartuko duten bertsolariak, hauek: Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal, Unai Agirre, Andoni Goitia eta Iker Zubeldia.

Bihar jokatuko da Herriko Pilota Txapelketako finala

17:00etan izango da hitzordua, plazako pilotalekuan. Emakumeen finala jokatuko da lehenik: Mireia Mugarza eta Ixone Lizarrak bikotea Miren Intxaustiren eta Jone Larrearen aurka lehiatuko da. Jarraian, gizonezkoen txanda izango da. Mikel Amilletak eta Ander Zumaldek Aitor Tatiegi eta Ander Irizarren aurka jokatuko dute.



Mondragon Unibertsitatea, Euskal Kopako lehenengo jardunaldian. BASKETBASKO.COM

Txapela etxean defendatzera

SASKIBALOIA Euskal Kopako lauko finala Arrasatera ekartzea erabaki du Ointxe! klubak; hala, etxeko taldeak, Mondragon Unibertsitateak, Iturripen defendatu ahal izango du iaz irabazitako txapela. Baskonia, Santurtzi eta Tabirako dira kontrarioak

Xabier Urzelai ARRASATE EBA mailan ez dute oraindik liga hasi, baina asteburuan Mondragon Unibertsitateak aukera paregabea du bailarako saskibaloizaleak poltsikoratzeko. Izan ere, EBA mailako lauko finala herrira ekartzeko ardura hartu du Ointxe!-k, eta, gainera, MU sailkapen faserako sailkatu da: "Ez pentsa erraza izan denik, azken partiduan lortu dugu-eta txartela. Zarautzen kontra hasierako minutuetan urduri egon ginen, baina minutuek aurrera egin ahala partiduen kontrola gureganatu genuen", adierazi dio GOIENARI MUKO entrenatzaile Iñaki Ogara *Arri*-k.

Hala, iaz Santurtzin irabazi zuen Euskal Kopa MUK, eta asteburuan txapel horren defentsa herritarren aurrean egin ahal izango du: "Baina halako faseetan talde bakoitzak zale asko

ekartzen ditu, eta guk ere herriko eta bailarako saskibaloizaleen babesa izugarri eskertuko dugu. Iaz, partidu asko horregatik irabazi genituen".

Lauko finalaren aurkezpena

Eguaztenean egin zuten prentsaurrekoan esku hartu zuten Euskadiko Saskibalo Federazioko presidente German Mongek, Arrasateko Kirol zinegotzi Ander Garaik, Ointxe!-ko Kirol zuzendari Iñaki Ogara Ortiz de Arrik eta torneoko babesle diren Arrasateko Laboral Kutxako zuzendari Josean Apariciok eta

"IAZ, PARTIDU ASKO ZALEEI ESKER IRABAZI GENITUEN; ASTEBURUAN ERE BEHARKO DITUGU"

Ikerlango Marketin zuzendari Jon Etxeberriak.

Mongek Euskal Koparen gainera informazioa eman zuen, eta Garaik, besteak beste, Ointxe!-k herri mailan duen garrantzia nabarmendu zuen. *Arri*-k, ostera, asteburuan Iturripen egongo dena azaldu zuen, eta, Udalaren partetik izan duten laguntza nabarmentzearekin batera, eskerrak eman zizkien Laboral Kutxari eta Ikerlani: "Saskibaloia jai honetara batzea erabaki dutelako".

Zapatuan eta domekan

Zapatuan 18:00etan hasiko da jai. Baskoniak Tabirako hartuko du ordu horretan, eta 20:00etan Santurtzik eta MUK jokatu dute. Domekan, berriz, 18:00etan borrokatuko dira hirugarren postuagatik, eta finala 20:00etan izango da.

Lauko finaleko kontrarioak:



Santurtziko jokalaria barneraketa egiten. SANTURTZIBASKET.COM

Santurtzi MUK eta Bizkaiko taldeak oso ondo ezagutzen dute elkar: "Iazko Kopako finalistak dira, ondo indartu dute barruko jokoa eta euren kontrako partiduak defentsan oinarritutakoak izaten dira", dio MUKo entrenatzaile Iñaki Ogara *Arri*-k.



Tabirako Baque, talde erretratuan. TABIRAKO.EUS

Tabirako Baque Durangarrak ez dira berriak EBA kategorian: "Lehen ere egon izan dira maila honetan, eta harrobiarekin oso lan ona egiten dute, bertako jokalariek euskal ligetatik pasatakoak izaten dira. Zornotzako jokalaririk onak fitxatu dituzte aurten".



Baskonia, talde erretratuan. BASKETBASKO.COM

BASKONIA Gaztetasuna eta kalitatea batzen ditu talde gasteztarrak: "Bertako jokalariek batzuk izarrak izatera deituta daude. Gazte mailako jokalariek dira gehienak, baina profesional moduan dabilte jada. Joko anarkikoa dute, aurreikusteko zaila".

Anporreta enduroaren paradisu izango da etzi

MENDIKO BIZIKLETA Domekan egingo dute Arrasateko Enduro Lasterketaren laugarren edizioa (08:00). Aurtengoa Espainiako Openerako puntuagarria da, eta azken urteotako maila igo egingo du horrek. Lau zatietako hiru publiko egin dituzte jada

Xabier Urzelai ARRASATE

Laugarren edizioa inoiz baino indartsuago dator; izan ere, Arrasateko lasterketa Espainiako Openaren barruan egonda, domekan erabakiko dituzte sailkapen orokorretan zeintzuk izango diren nagusi.

Hala, asko dago jokoan, Arrasatera etorriko diren batzuk Openeko proba guztietan izan dira eta: Tortosan (Tarragona), La Adradan (Avila), Mugardosen (Coruña) eta Teror-en (Kanaria Handia). Arriskatzea izango da batzuen asmoa eta orain arte batutako puntu kopurua defendatzea beste batzuen.

Anporreta, kokaleku nagusi

Antolatzaileek atzo, eguna, eman zituzten ibilbideak aditzera: "Guztira, lau tramu izango ditu lasterketak, eta horietako hiru segurua da Anporretan egongo direla. Badakigu aspaldian jendea Anporretan entrenatzen dabilela, baina azken momentura arte ez dute jakingo ze jaisiera egingo ditugun, eta egubakoitza eta zapatua izango dituzte horiek entrenatzeko. Tramuetako bat, berriz, sekretupean gordeko dugu lasterketa egunera arte", dio Asier Rosadok.

Geroago eta ikusle gehiago

Urtetik urtera Arrasateko Enduro Lasterketan ikusle kopuruak gora egin izan du, eta hori ez da erraza, DHko lasterketa batekin alderatuta –jaisieretako lasterketa– enduroan publikoak zati batetik bestera oinez joan behar du eta. Eta zatietako bat sekretupean egoteak ere ez du laguntzen: "Horregatik, ikusleei begira, mapa bat argitaratuko dugu, proba bertatik bertara jarraitu gura dutenek erreferentzia batzuk izan ditzaten, baina lasterketaren mamia Anporretan egongo dela aurrera genezake", adierazi du Asier Rosadok.



Pilotu bat, iazko lasterketan, Anporretan. IMANOL SORIANO

"Espainiako Openean aurrean dabilzan guztiak datoz Arrasatera"

ASIER ROSADO LASTERKETAKO ANTOLATZAILEA

Arrasateko lasterketako antolatzailea lanpetuta dabil egunotan, telefonotik zintzilik. Federazioko ordezkariekin detaile guztiak lotu, babesleekin hartu-emanak... Domeka eguerdian hartuko du arnasa.

la 200 pilotu batuko dira Arrasateko lasterketan. Kopuru polita da, ala?

Bai, ezin gara kexatu. Gainera, tartean egongo dira hamar neska, eta, iaz lau emakumezko egon zirela kontuan hartuta, gorakada nabarmena da. Egia esateko, Espainiako Openeko azken proba izanda, jende gehixeago etorriko zela aurreikusten genuen, baina lasterketa borobila egiteko kopuru polita dugu. Madril aldean lasterketa batzuetan 400 pilotu ere batu izan dira; hemen ez gara horrenbeste; kar, kar, kar.



X.U.

Diozu Openean aurrealdean dabilzanek ez dutela kalerik egingo.

Hori da, podiumaren bueltan ibiliko diren pilotu guztiak Arrasaten izango ditugu; parte-hartze kopuruaren %25 inguruan da kanpokoa, gainontzekoak pilotu euskaldunak dira. **Ikusleendako gomendiorik?** Etor daitezela Anporretara animatzeko gogoz! Baina pilotuen ibilbidean sartu barik, zintak errespetatuta, mesedez.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Anaitasuna-Mondra

Zapatua. 17:00. Azkoitia.

Bergara-Urola

Zapatua. 16:00. Agorros.

Aretxabaleta-Euskald.

Zapatua. 17:15. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

Antzuola-Ilintxa

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Getariako

Zapatua. 17:00. Azkoaga.

Zumaia-Aretxab.UDA

Zapatua. 17:00. Zumaia.

Mondra-Tolosa

Zapatua. 17:30. Mojtategi.

LEHEN ERREGIONALA

Eibartarrak-Aloña Me.

Zapatua. 17:45. Unbe.

Bergara-Aretxabaleta

Zapatua. 15:30. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

Urki-Bergara

Zapatua. 15:45. Eibar.

Anaitasuna-Aloña Men.

Zapatua. 15:30. Azkoitia.

Amaikak Bat-Aretxaba.

Zapatua. 10:00. Deba.

Burumendi-Mondra

Zapatua. 15:30. Mutriku.

EMAKUMEZKO SENIOR.

Leintz Arizm.-Urnieta

Zapatua. 15:30. Mojtategi.

Urola-Bergara

Zapatua. 15:30. Zumarra.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Batzarre-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Gasteiz.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Tolosala

Zapatua. 17:30. Musakol.

Aretxabaleta-Goierri

Zehaztu barik.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ugeraga-Ford Mugarri

Domeka. 12:00. Berango.

Urnieta-Fagor Industri.

Egubakoi. 20:30. Iturripe.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Muskiz-C. Ugarte Aloña

Domeka. 12:00. Muskiz.

SASKIBALOA

EBA, EUSKAL KOPA

Baskonia-Tabirako B.

Zapatua. 18:00. Iturripe.

Santurtzi-MU

Zapatua. 20:00. Iturripe.

3.eta 4. postua:

Domeka. 18:00. Iturripe.

Finala:

Domeka. 20:00. Iturripe.

GIP. SENIORRAK

Easo-Soraluce BKE

Zapatua. 18:00. Donostiai.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Iruñea-ART

Zapatua. 17:00. Iruñea.

FUTBOLA Bergarak eta Aretxabaletak etxean dute hitzordua

Ohorezko erregionalean, San Migel jaiak tarteko, UDAk zapatuan (17:15, Ibarra) jokatu du Euskaldunaren kontra, eta egun berean Bergarak Urola hartuko du (16:00); ondoren, klub mahoneroak talde guztiak aurkeztuko ditu berdegunean (18:00). Mondrak kontrario indartsua izango du zapatuan Azkoitian, Anaitasuna (17:00).

ARETO FUTBOLA Bihar hasiko dute liga ibarreko taldeek

Maila nazionalean jokatu duen Eskoriatzak eta Euskadiko Txapelketan lehiatuko diren Mondratek eta Aretxabaleta UDak asteburuan hasiko dute liga. Eskoriatzarrek Gasteizen jokatu dute zapatuan (18:00). Maila bat beherago, Mondratek Musakolan jokatu du zapatuan (17:30). Aretxabaleta UDak, berriz, atsedena du oraingoan.

ESKUBALOA Berango eta Urnieta dira hurrengo kontrarioak

Euskadiko Txapelketan, Ford Mugarri Arrasatek eta Fagor Industrial Aloña Mendik etxetik kanpora jokatu dute. Oñatiarrak ligako lehen bi puntuen bila joango dira Urnietara gaur bertan (egubakoitza, 20:30). Arrasatearrek, berriz, joan den astean etxean irabazi eta gero, Berangon jokatu dute domeka eguerdian (12:00).

MENDI BIZIKLETA Unai Larrea antzuolarra, DHn onena

Euskadiko Jaitsieretako (DH) Openeko irabazlea izan da –23 urtez azpikoek kategorian– Unai Larrea antzuolarra. Ez da izan, baina, jaitsieretako modalitatean nabarmendu den herrikide bakarra, Manu Castro bigarren sailkatu da eta 40 urtetik gorako mailan. Eta Jon Larrea ere bigarren izan da, baina kadete mailan.



'La trinchera infinita' filmeko lantaldea, domekan, Donostia Zinemaldiko photocall-ean. DONOSTIA ZINEMALDIA



Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendariak, Txepi Larari Zinemira saria ematen. D. Z.



Iban del Campo, Zinemaldian. I. C.

Zinemaldiko txalo asko debagoiendarren lanei

Bihar, Kurasaalen egingo duten galan banatuko dituzte Donostiako 67. Zinemaldiko sariak; ikusteko dago jasoko duten saririk, baina ikusleen artean "oso harrera ona" izan dute 'La trinchera infinita', 'Agur, Etxebeste!' eta 'Glittering Misfits' filmek

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE "Harrituta nago. Ze ona zentzu guztietan"; "Gogorra da oso, gerra zibilaren beste ikuspegi bat erakusten digu"; "Aktoreak oso onak dira"; "Hunkituta, negarrez atera naiz aretotik". Halako iritziak jaso zituen Donostia Zinemaldian GOIENAKO berriemaile Imanol Gallegok, domekan, *La Trinchera infinita* filma ikustera joan ziren ikusleen artean. Aurpegi eza-gunen iritziak ere jaso zituen: Imanol Uribe zine zuzendariak "zoragarria, oso ona iruditu zait, aparta!" zioen; bide bere-tik erantzun zuen Nagore Aranburu aktoreak: "Ikaragarri gustatu zait, oraindik hunkituta nago, denak bezala"; "Ede-rra, oso ona", gaineratu zuen Telmo Esnal zuzendariak.

Txalo zaparrada handiak jaso zituen Moriarti-koek egindako lanak ikusleen artean. Aitor Arregiren esanetan, horrek ez du bermatzen epaimahaiaren iritzia bera izango den: "Inpre-sioak onak dira, uste dugu filma gustatu dela, ikusle asko gertu-ratu zaizkigu zoriontzera. Ka-zetarien artean ere ikusten dugu, orokorrean, gustatu dela; beraz, zer gertatuko den jakin barik, filma Zinemalditik indartuta aterako dela sentitzen dugu".

Kinielak egitea, zaila

Iritzi berekoa da GOIENAKO berriemailea, sarritan ez direla bat etortzen ikusleen iritziak eta epaimahaikideen erabakiak: "Moriartikoek sariren bat jaso-tzeko aukerak dituztela uste dut, baina egia da, oso gauza poten-teak ikusi ditugu Sail Ofizialean, askotarikoak, oso ezberdinak; batzuk aipatzearen, adibidez, *Próxima*, *The other lamb*, *Mano de obra* eta *A dark-dark man*.

Sail Ofizialeko sariez gain, askotariko gehiago banatuko dituzte biharko galan -20:30-; horien artean, euskal ekoizpenak saritzen dituen Irizar saria; *La trinchera infinita* filmaz gain, Asier Altunak eta Telmo Esna-lek zuzendu duten *Agur, Etxe-beste!* eta Iban del Camporen *Glittering Misfits* ere lehian dira.

'Agur, Etxebeste!'-rekin, barre Martitzenean egin zuten Euskal Zinemaren Galan, *Zinemira* sa-ria jaso zuen Txepi Lara ekoiz-leak, urte askoan lankide izan dituen Asier Altunaren eta Tel-mo Esnalen eskutik, eta ondoren eskaini zuten etxebestetarren istorio berriak jasotzen dituen filma. "Denborak hobetu egin du filma eta baita zuzendarien lan egiteko modua ere", dio Gallegok, eta bide bere-tik erantzun zuen ikusleen artean zen Iñigo Urkullu lehendakariak: "Pasa-dizo oso barregarriak ditu; oso ondo pasatu dut. Polita eta era-kargarria da".

Gaur, egubakoitza, zinema areto komertzialetan estreina-tuko dute; asteburuan, Bergaran eta Arrasaten eskainiko dute.

"Negozioetarako egunak"

Arrasatearraren *Glittering Misfits* lanak ere aretoak bete ditu: "Oso ondo saldu dira sarrerak eta zoriontzera jende asko etorri zait. Bilera asko egin ditut, filma atzerriko jaialdietara eta areto komertzialetara ere eramatea lortzeko asmoarekin".

SARIRIK JASOKO DUTEN EZ DAKITEN ARREN, DEBAGOIENAKO ZUZENDARIAK POZIK DAUDE HARRERAREKIN

OROIMENEAN

GOIENA TELEBISTA, GANBARA FAKTORIAREN
ETA HOTS ABESBATZAREN IKUSKIZUNA

IRAILAREN 28AN, ZAPATUAN, 17:00ETAN ETA 22:00ETAN
IRAILAREN 29AN, DOMEKAN, 11:30EAN ETA 21:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Hamargarren Kooltur Ostegunak, abiatzear

Izaki Gardenak, Niña Coyote eta Chico Tornado, Motosierra eta The Volcanics musika taldeak izango dira, hurrenez hurren, urriko eguenetan Arrasateko gaztetxeko agertokian; emanaldiak 22:00etan hasiko dira, eta sarrera bost eurotan izango da

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Esperimentu moduan hasi zen Kooltur Ekintzak ekimena eguenetan kontzertuak antolatzen orain dela hamar urte, eta, hurrezkerok, Arrasateko zein Debagoieneko beste herrietako musikazaleentzako asteroko hitzordu finko bilakatu da.

Hamargarren aldia abiatzear da, eta antolatzaileek hau diote: "Hori posible egin dute jende askoren lanak eta ekimenari babesa eman dioten guztiek". Hori horrela, hamargarrenean ere orain arteko bide beretik jarraituko dutela gaineratu dute; hortaz, jaiegun edo jai bezperetan izan ezik, eguenero izango dira kontzertuak, 22:00etan hasita, eta bost euroko sarrera ordainduta.

Hasteko, Izaki Gardenak

Martxoan Amaia antzokian izan zen Jon Basaguren gidatzen duen Gasteizko taldea kaleratu berri zuen *Dena Oskol* lana aurkezten, eta oraindik ere hala jarraitzen dute, "arrakastaz" kantu berriak eta bilduma zaharragoetakoak ere zuzenean eskaintzen. "Euren sasoi onenean daude sekulako kontzertuak ematen", dio Kooltur Ekintzak taldeko Iker Barandiaranek, eta zera gaineratu du: "Pop-rock



Izaki Gardenak taldeak zabalduko ditu aurtengo Kooltur Ostegunak. GALDER IZAGIRRE

dotore-dotorea egiten dute, americana printzak ere badituena. Urteetako ibilbidearen ondoren kantu arrakastatsu eta borobilekin beti, behingoz lortu dute publiko handiaren onospena".

Bateria eta gitarra, hurrengoan

Kooltur Ostegunak ekimena barrutik ezagutzen duen orain dela hiru urte ere gonbidatu zituzten- Niña Coyote (Ursula Strong) eta Chico Tornado (Koldo Soret) hartuko dute urriaren 10ean gaztetxeko agertokian lekukoa. "Rock gogorra, stonerra

psicodelia ukituekin egiten dute. Indarra, sentimendua, iluntasuna eta, batez ere, intentsitatea".

Atzerritik etorritakoak ere bai

Euskal Herrian birak egiten dituzten taldeei ere tokia egiten diete; horren erakusle dira urria borobilduko duten Motosierra eta Volcanics. "Uruguaioko punk-rock *makarra* eta gogorraren aitzindari da Motosierra; eta Australiatik etorriko diren The Volcanicsek ere ibilbide luzea du high-energy indartsua egiten. Luxua gurera ekarri ahal izatea".

Haus Of Beats musika zigilua aurkeztuko dute gaztetxean

Egiako Telmo Trenor musikariaren 'Heat remixed' lana da zigilu sortu berriarekin kaleratu duten lehenengoa

A. A. BERGARA

Asteleheneroan 20:00etan Txapa Irratian (FM 97.2) *Balza-k*, *Buda-k* eta Kepa Zabaletak egiten duten saioa da *Haus Of Beats*. Aspalditik zuten irratsaioaren izenean musika zigilu bat ate-

ratzeko gogoa, eta asmo hori gauzatzea lortu dute.

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute, kartzela zaharreko patioan egingo duten jaian, 20:00etatik 01:00etara. Diskoak jartzen ibiliko dira hainbat lagun; ondoren, Telmo

Trenorrek kontzertua eskainiko du, Oriol bateria-jolea eta *Pelax* gitarra-jolea lagun dituela.

Hainbat euskarritan

Lana biniloan, kasetean eta digitelean argitaratu dutela azaldu du Zabaletak: "Hip-hop eszenan urteetako ibilbidea du Telmok, baina iaz, boogie, funk, eta house estiloetako bilduma argitaratu zuen, eta bihar aurkeztuko dugun diskoan kantu horiek beste artista batzuek interpretatuta jaso ditugu".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko iraileko sariak!

Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



Sarrerak

Amikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Amikutz

ARRIKUTZ



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harte-mandanda.org

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LDFD 15/1999 legearen arabera, jokatzen den zozketaren datu pertsonalik Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko dira. Datu-biloki horien helburu bakarra indarrean dagoen arazapen gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak ez erabiltzeko, horiek zuzentzeko edo ezabatuzko, helbide honetan idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkideku zaitetz 2019ko irailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazte, dirak irabazte!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaleta. Bertako bikotea, langileak, errentan hartzeko etxebizitza bila. Presazkoa da. Telefona: 688 67 86 67

Arrasate. Apartamentu txiki bat behar dut ikasurte honetarako. Telefona: 687 46 24 47

Arrasate. Hiru logela eta igogailua daukan etxebizitza hartuko nuke errentan, Musakolan. Kontakua: 688 85 44 78

Baserría. Arrasateko lau gazte langile eta arduratsua gara eta Debagoienean baserri bat errentan hartu nahian gabiltza. Kontakua: 638 85 53 26 (Leire), 646 296023 (Antton)

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro arte ordain dezaket. Konfiantzazkoa naiz eta bermeak aurkez ditzaket. 610 34 97 88

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Kontakua: 650 67 16 91

Bergaran edo Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Kontakua: 695 12 06 79

Debagoiena. Errentan hartzeko baserri bila ga-

biltza, bailaran. Kontakua: 665 71 19 71

105. ETXEA OSATU

Aramaio. Baserri berri baten logelak dauzkaten errentan emateko. Leku zoragarria, ikusmira ederrekin. 618 02 02 98

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Kontsultarako gelak Arrasaten. Arrasateko terapia zentro baten, kontsultarako gelak ematen dira errentan. Hilabeteka, egunka edo orduka, beharren arabera. Kontakua: zentroat@gmail.com

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo inguruak. 55 urteko emakume euskalduna gertu nagusiak zaindu, pasean lagundu, ospitalean egunez edo gauez zaindu eta abarretarako. Autoarekin. 619 42 75 21

Arrasate eta inguruak. Egunean zehar garbiketaren edota umeak eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 15 urteko esperientzia eta autoarekin. 697 20 00 86

Arrasate. Arratsaldeetan, 15:00etatik aurrera, zaintza eta etxeko lanak egingo nituzke. Derrigorrezko

ikastaro eta agiri guztiak dauzkat. Erreferentzia onak. 632 89 09 42

Arrasate. Esperientzia duen neska gertu zainzan edota taberna lan egiteko. 603 17 56 58

Debagoiena. Egunez zein gauez nagusiak zainduko nituzke. Baita ospitalean ere. Etxeko lanak ere bai. 661 48 86 74

Debagoiena. Erizain laguntzailea zaintza lanak egiteko gertu. 620 23 58 15

Debagoiena. Erizain laguntzailea zaintza lanak egiteko gertu. Kontakua: 631 98 15 50

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 688 74 02 01 (Gloria)

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko eta garbiketaren edota asteburuetan goizez zein arratsaldez. 622 24 86 64

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketaren edota asteburuetan goizez zein arratsaldez. 622 24 86 64

Umeak zaindu Oñatin. Neska euskalduna, ma-

izaten edo bestela. Kontakua: 631 72 30 57

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia daukat. Ordegi arazo barik. 631 19 02 54

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketaren esperientzia duen neska lanerako gertu. Kontakua: 612 27 82 34

Debagoiena. Orduka, egun osoz edota egunka lan egingo nuke. Kontakua: 632 33 19 27

Debagoiena. Sozioanitariotitulu daukat eta lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. 600 01 48 81

Debagoiena. Zaintza eta garbiketaren lanak egiteko gertu nago. 631 19 12 64

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke orduka, asteazkenetan edo asteburuetan goizez zein arratsaldez. 622 24 86 64

Umeak zaindu Oñatin. Neska euskalduna, ma-

gisteritzako ikaslea, goizetan umeak zaindu eta eskolara eramateko prest. 634 41 86 61

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Ingelesa Bergaran. Maila guztiak. Baita ikastaro trinkoak edo Cambridge eta HE0eko azterketak prestatzeko ere. Talde txikietan edo banaka. Kontakua: 618 91 32 89

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra. Land Rover Defenderra erosiko nuke. Berdin dio ze egoeratan dagoen: matxurata, kolpearekin edota IAT gabe. Interesatuok jarri harremanetan: 623 17 95 37

8. DENETARIK

802. EROSI

Eskusoinua. Pigiñi B100 eskusoinua erosiko nuke.

618 06 91 80 edo 686 68 04 46

Oihalezko pardelak. Kaixo. Haurrendako neurri handiko oihalezko ardelak erosiko nituzke. 615 73 68 07

Piano bertikala. Piano bertikala erosiko nuke. 627 13 26 14

806. GALDU

Txamarrá Bergaran. Txamarrá galdu genuen maiztean edo ekainean. Roxy etxekoa, 14 neurrikoa eta laranja da. Oso gutxi erabilia dago. Ja-bearen izena jarrita dauka: June H. 661 94 06 06

807. AURKITU

Giltzak aurkitu ditut. Zapatuan, irailak 21, Aretxabaletatik Eskoriatzara bidean, bide bazterrean giltza multzo bat aurkitu nuen. Mazda etxeko auto baten giltza, beste batzuen artean. Zureak badira deitu telefono zenbaki honetara: 679 16 41 65

ESKER ONA



Maria Etxebarria Altuna

2019ko irailaren 19an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zaretan guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, irailaren 29an, 12:00etan, Aramaio San Martin parrokiaren. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Aramaion, 2019ko irailaren 27an.

ESKER ONA



Jose Maria Altuna Gallastegui

2019ko irailaren 25ean hil zen, 87 urte zituela.

Udazken hontako lehen haizeak eraman zaitu gure artetik, baina sekula ez zaitu eramango gure bihotzetatik.

Eskerrik asko urte zoriontsu hauetan zehar Jose Mariren bidelagun izan zaretan guztioi eta bereziki, momentu honetan familiaren ondoan egon zaretenoi.

Arrasaten, 2019ko irailaren 27an.

ESKER ONA



Maria Luisa Unamuno Lizarralde

Jesus Letamendiren alarguna

2019ko irailaren 19an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zaretan guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2019ko irailaren 27an.

ESKER ONA



Julian Uribeetxeberria Olalde

2019ko irailaren 12an hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zaretan guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 28an, 19:30etan, Oñatiko Agustinndarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2019ko irailaren 27an.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK BEHAR DU DEBAGOIENERAKO

KAZETARIA

ESKATZEN DA:

- Kazetaritza, komunikazio edo pareko unibertsitate-titulua.
- Euskaraz ondo idaztea.
- Interneten jakintza: sare sozialak (Twitter, Facebook, Instagram, Youtube), webgintza...
- Gidabaimena.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Inudik grabatu eta editatzeko edota argazkiak ateratzeko gaitasuna.
- Ingelesez moldatzea.
- Lan eskarmentua komunikazio alorrean.

Curriculumak aurkezteko epea: 2019ko urriaren 2an

Nora bidali: personala@goiena.eus

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

IRAGARKIA

IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALOAI

BERGARA:

- Zubiola, 80 m², 2 logia, igogailu, berotegi, bitzara sartako. 140.000 €.
- Martak, 67 m², 2 logia, erakargarri bertan, traxelak, igogailu. 125.000 €.
- Bala, 65 m², traxelak, igogailu, bitzara sartako. 145.000 € Gorpuzi aukeran.
- Zubiola, 80 m², 2 logia, berotegi eta bitzara sartako. 177.000 €.
- Urtegi, 92 m², 3 logia, terraza 40m², garaje berriz, bitzara sartako. 219.000 €.
- Martak, 96 m², 4 logia, terraza, igogailu. 149.500 € PREZIO JETSEARA.
- Martak, 86 m², 2 logia, zokora berotegi. Baita eta bitzara berotegi 145.000 €.
- Anarrok, 82 m², 3 logia, traxelak. Bitzara sartako. 95.000 € PREZIO JETSEARA.
- Martak, 80 m², 3 logia, traxelak, igogailu. Bitzara sartako. 210.000 €.
- Martak, 81 m², 3 logia, bi traxelak, garaje, igogailu. 240.000 €.
- Abantegi Etxe, 360 m², duplex, terraza. Bertan. 350.000 € PREZIO JETSEARA.
- Urtegi, 94 m², 3 logia, traxelak eta garaje berriz. Bitzara sartako. 250.000 €.
- Martak, 102 m², 4 logia, 2 baloi, igogailu. 180.000 € PREZIO JETSEARA.
- Zubiola, 65 m², 3 logia, bertan. Bitzara sartako. 96.000 €.
- Zubiola, 120 m², duplex, 4 logia, igogailu. 100.000 € PREZIO JETSEARA.
- Berriz, (Lalagorri) 59 m², 3 logia, traxelak. 70.000 €.
- Martak, 66 m², 2 logia, terraza, bitzara sartako. 115.000 €.
- San Antxon, 69 m², 2 logia, igogailu, traxelak, garaje. Bitzara sartako 155.000 €.
- Artekak, 180 m², duplex, 4 logia, igogailu. Bitzara sartako. 373.500 €.
- Berriz, 70 m², 3 logia, eguzkiak, bitzara sartako. Garaje berriz aukeran. 135.000 €.
- Martak, 100 m², 3 logia, igogailu. Bitzara sartako. 178.000 € PREZIO JETSEARA.
- Martak, 100 m², 4 logia, traxelak, igogailu. 180.000 €.
- Berriz, 80 m², 3 logia, berotegi. Bitzara sartako. 98.000 €.
- Zubiola, 55 m², 3 logia, bitzara sartako. 90.000 €.

ANGIOZAR:

- Etxeak 40 m², 2 logia, erakargarri. Traxelak. 80.000 €.
- Berriz 233 m², lan sakelak eta bi etxebizitza egiteko permitoak. 250.000 €.

OSINTXU:

- Oñatin, 87 m², 3 logia, igogailu. 70.000 €.
- Oñatin, 70 m², 2 logia eta igogailu. 42.000 € AUKERA ONA.
- Oñatin, 63 m², 3 logia, traxelak. Bertan. Berriz. 49.000 € PREZIO JETSEARA.

IBERRA:

- Berriz eta 15 hektareako lurralde (jauki, zaldiak) 340.000 € PREZIO JETSEARA.


ANTZUOLA:

- Etxeak, 94 m², 3 logia, igogailu. Igogailu. 99.000 € PREZIO JETSEARA.
- Berriz, 80 m², 2 logia, traxelak, bitzara sartako, igogailu. Igogailu 125.000 €.
- Etxeak, 90 m², 3 logia, igogailu, bitzara sartako, garaje aukeran 140.000 €.
- Antzuta, 71 m², 3 logia, bitzara sartako, traxelak. 74.000 € PREZIO JETSEARA.
- Etxeak, 70 m², 2 logia. Eru eta obrak behar. Auzoak berriz. 125.000 €.
- Berriz, 45 m², 2 logia. Ez du obrak behar. 145.000 € Gorpuzi aukeran.

ELGETA:

- San Baka, Duplex 83 m², terraza duen etxea, 3 logia, behelak. 310.000 €.
- Torraldeak 77 m², 3 logia. Berriz. Oso ondo.
- San Baka, 72 m², 3 logia, igogailu. 174.000 €.
- San Baka, Duplex 140 m², 3 logia, igogailu, garaje 50 m² berriz. 250.000 €.

OROIGARRIA


Urko Egidazu Berrioategortua 

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.

*Gero arte, Urko.
Hire alaitasunak eta adiskidetasunak gudan diraute.*

Arrateko Andra Mari Herri Eskolako hezkuntza komunitatea.
Eibarren, 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA

Urko Egidazu Berrioategortua 

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.

*Zuk emandako maitasun eta alaitasuna lagun
bizitzan aurrera egingo dugu,
egunen batean berriro elkartu arte.
Ez adiorik, Urko.*

Arantzeta-Egizabaltar lehengusu-lehengusinak.
Elgetan, 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA

Urko Egidazu Berrioategortua 

(Elgeta Herri Eskolako gurasoa)

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.

*Samindurik dugu bihotza,
zure oroimena beti izango da gure artean.*

Elgeta Herri Eskolako ikasle, guraso eta langileak.
Elgetan, 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA

 **Eneko Iturbe Galdos** 

2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.



Beti izango zara gure bihotzean.



Arrasate Herri Eskolako Komunitatea:
ikasle, guraso, irakasle eta ez-irakasleak.

Arrasaten, 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA

 **Eneko Iturbe Galdos** 

2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.

Munduko aitaxo, bikote eta lagun onenai.

Imanol, Lierni eta Eli.
Arrasaten, 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA



 **Eneko Iturbe Galdos** 

2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.

*Hutsune bete ezina utzi diguzu,
baina inork ez digu zure irribarrearen oroitzapena lapurtuko.
Gure bihotz barreanean eramango zaitugu betiko.
Ez adiorik!*

Murgialdaiko lehengusu-lehengusinak.
Arrasaten, 2019ko irailaren 27an.

ESKER ONA

 **Eneko Iturbe Galdos** 

2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA


 **Eneko Iturbe Galdos** 

2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.

Soraluce-ko lankide eta lagunak ez zaitugu ahaztuko.

Bergaran (Osintxu), 2019ko irailaren 27an.

OROIGARRIA



Eneko Iturbe Galdos 

2019ko irailaren 20an hil zen, 41 urte zituela.

*Zure proiektu zoruak egi bihurtetan pasau gauen ume sasoi.
Zure bizipozak bultzatuta antolatuta ditugu gaztetako parrandak.
Zaharketan garenian, Eneko, ez zara gure aldamenian egongo,
baiña, danon goguan iraungo dozu betiko.*

Termitak.
Arrasaten, 2019ko irailaren 27an.

ESKER ONA

 **Susana Iza Urquijo** 

'Biltoki'
Juan Mari Aspiazuren alarguna

2019ko irailaren 24an hil zen, 93 urte zituela.

*Zoriontsu izan zaituz
gaur heldu berri zaren planeta erraldoi horretan,
bertatik gure bidea argitzen jarraituko duzulako.
Beti bezala. Zorionez.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko irailaren 27an.

URTEURRENA

Candida Umerez Oianguren 

Manuel Etxanizen alarguna

2018ko irailaren 29an hil zen, 94 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 28an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Beti eramango zaitugu bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2019ko irailaren 27an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1




2



3



4



5



6



7

1. Mexikora, bi hilabetez
Oñatiko eta Bidasoako campusetako ikasleak dira irudikoak, eta bi hilabete egingo dituzte Mexikon, ikasketak osatzen. "Asko ikasi!".

2. 50 urte ezkontuta
Pili Gurrutxaga eta Luis Elorza bergarrek irailaren 27an urrezko ezteiak beteko dituzte. "Zorionak, familiaren partetik!".

3. Berrito ezkontuko dira
Rafi Maravarrek eta Jose Maria Bañosek bihar ospatuko dituzte urrezko ezteiak, eta berrito ezkontuko dira. "Familiaren partetik, zorionak, bikote!".

4. Urrezko ezteiak
Hilario Guerra eta Piedad Cordero 1969ko irailaren 27an ezkontu ziren Arrasateko parrokian. "Egunak merezi duen bezala ospatuko dugu".

5. Urrezko ezteiak
Rita Urrutia eta Aureliano Matilla arrasatearrek familia osoarekin batera ospatu dituzte urrezko ezteiak. "Guztion partetik, zorionak, bikote!".

6. Ezkonberriak
Ane eta Aitor irailaren 20an Arrasaten ezkontu ziren. "Usobiagarren eta añibarrotarren partetik, zorionak, bikote! Izan zoriontsu!".

7. Bihar ezkontuko dira
"Elgetako kuadrillaren partetik, zorionak, Aitor eta Aintzane! Egun zoragarria pasa, eta disfrutatu zuen ezkontza eguna!".

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'OROIMENEAN' IKUSKIZUNA

'Berezia' Zapatua, 17:00 eta 22:00; eta domeka, 11:30 eta 21:30



GOIENA

SANMIGELAK, OÑATIN ETA ARETXABALETAN

'Jaiak' Martitzena, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 27	ZAPATUA, 28	DOMEKA, 29
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 123 Hemen da Miru	09:00 Txantxariak 23
11:00 Elkarrizketa: Mikel Iurria	09:30 Txantxariak 23	09:30 Kantari 24
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari 24	10:00 123 Hemen da Miru
12:30 Elkarrizketa: Itziar Garate	10:30 123 Hemen da Miru	10:30 Txantxariak 23
13:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Ordizia	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Kantari 24
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Osoko bilkura: Oñati	11:30 Ikuskizuna: Oroimenean
14:30 Albisteak	13:00 Elkarrizketa: Laka eta Amonarriz	13:30 Elkarrizketa: Elena Laka eta Kike Amonarriz
14:45 Harmailatik	13:30 Bertsolari Txapelketa 2019: Zumaia	14:00 Asteko errepasoa
15:15 Hemen Debagoiena	14:00 Debagoiena eraldatzen 4	14:30 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak	14:30 Hemen Debagoiena eraldatzen 4	15:30 Debagoiena eraldatzen 4
16:30 Kantari 23	15:30 Asteko errepasoa	16:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Ordizia
17:00 Albisteak	16:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Ordizia	16:30 Bertsolari Txapelketa 2019: Zumaia
17:15 Debagoiena eraldatzen 4	16:30 Bertsolari Txapelketa 2019: Zumaia	17:00 Osoko bilkura: Oñati
17:45 Albisteak	17:00 Ikuskizuna: Oroimenean	18:00 Debagoiena eraldatzen 4
18:00 Hemen Debagoiena	18:30 Asteko errepasoa	18:30 Elkarrizketa: Itziar Garate
19:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Ordizia	19:00 Hemen Debagoiena	19:00 Hemen Debagoiena
19:30 Elkarrizketa: Mikel Losada	20:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Zumaia	20:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Ordizia
20:00 Hemen Debagoiena	20:30 Bertsolari Txapelketa 2019: Ordizia	20:30 Lotsagabe: Maialen Guelbenzu
21:00 Bertsolari Txapelketa 2019: Zumaia	21:00 Elkarrizketa: Laka eta Amonarriz	21:00 Iragana gogoratu: Fagorren sorrera
21:30 Elkarrizketa: Elena Laka eta Kike Amonarriz	21:30 Debagoiena eraldatzen 4	
22:00 Hemen Debagoiena		

ASTEBURUAN

OÑATIKO OSOKO BILKURA

'Bereziak'

Zapatuan, 12:00/ Domekan, 17:00

EGUBAKOITZA, 27

AMONARRIZI ETA LAKARI ELKARRIZKETA


'Elkarrizketa'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ASTELEHENA, 30



GOIENA

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEA

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 2

GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA

'Bereziak'

21:00/23:00

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Maria Eugenia Urroz Arruabarrena
Urriaren 3an, 69 urte.
Zorionak, amama!
Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu potolo bat, familia osoaren partetik. Batez ere, Izar, Unax eta Ionxu.



OÑATI
Eneko Ugarte Kortabarria
Urriaren 3an, 8 urte.
Zorionak, Eneko, etxekoekin partetik!
Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu halako mutiko jatorra izaten.



OÑATI
Lukene Sanchez Chapado
Urriaren 3an, 11 urte.
Zorionak, polit hori!
Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, zure laguneren partetik.




OÑATI
Anartz Arregi Camino
Urriaren 1ean, 8 urte.
Zorionak, Anartz! Ondo ospatu zure eguna eta muxu potolo bat, gu denon partetik.



BERGARA
Eritz Larrañaga Iñurrategi
Urriaren 1ean, 5 urte.
Zorionak, Eritz! Patxo potolo bat zure lehengusina-lehengusuen partetik!
Jator hori! Asko maite zaitugu!



BERGARA
Naroa Markina Urizarbarrena
Irailaren 30ean, 4 urte.
Zorionak, maizia!
Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat Ekiren, Haizearen eta familia osoaren partetik!




ANTZUOLA
Gabi
Irailaren 30ean, 4 urte.
Zorionak, txapel-dun, eta ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat. Zure lehengusinen eta lehengusuen partetik.



ARAMAIO
Nahia Reguero Osinaga
Irailaren 29an, 9 urte.
Zorionak, Nahia maizia!
Ondo pasatu zure eguna eta topera disfrutatu. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik. Pila bat maite zaitugu!



ARRASATE
Beñat Hernandez Iturbe
Irailaren 29an, 10 urte.
Zorionak, mutikote, eta urte askotarako.
Belarritik tirakada bat eta muxu potolo handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Axel Urzelai Hernandez
Irailaren 29an, 7 urte.
Zorionak, Axel. Urte askotarako, denon partetik.



BERGARA
Naia Gabilondo Kapelastegi
Irailaren 29an, 10 urte.
Zorionak, Naia!
Disfrutatu hamargarren urtebetetzea. Muxu potolo bat aita-xoren, ama-xoren eta Juneren partetik.




OÑATI
Hodei Ruiz Martin
Irailaren 29an, 9 urte.
Zorionak, txapel-dun!
Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat danon partetik. Bereziki ama, aita eta Lur.



OÑATI
Beñat Ríos Valderas
Irailaren 29an 4 urte beteko ditu. Zorionak gure bihurritxoari!
Asko maite zaitugu, pittin. Etxeko guztien partetik.



ANTZUOLA
Amets eta Oinatz Larrea Garitano
Ametsek, irailaren 29an, 10 urte eta Oinatzek urriaren 1ean, 8 urte. Zorionak, bikote! Ondo ospatu zure urtebetetze egunak. Muxu handi bana, etxekoekin partetik!




BERGARA
Maddi Lopez Usaola
Irailaren 28an, 4 urte.
Zorionak, maizia! Ze handia zaren jada!
Asko maite zaitugu. Muxu pila bat!



ARRASATE
Ane Gorosabel Espinosa
Irailaren 27an, 19 urte.
Zorionak! Oso ondo pasatu zure egunean. Etxekoekin partetik!




OÑATI
Oihane Idigoras Ugarte
Irailaren 27an, 7 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Oihane!
Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna lagunekin eta familixakuekin.
Belarritik zazpi tirakada, etxekuen partetik.



BERGARA
Maia Ugalde Iruin
Irailaren 27an, urtebete. Zorionak, Maia! Asko maite zaitugu. Jaso patxo handi-handi bat, familia osoaren partetik.




ARRASATE
Eskarne eta Mirari Garitaonandia
Eskarnek irailaren 20an eta Mirari 27an bete dituzte urteak. Zorionak!




ARETXABALETA
Inar Isasmendi Zabala
Irailaren 27an, 4 urte.
Zorionak gure etxeko erregetxuari! Lau urte honezkero! Ze handi zauden, pitxin! Muxu bat, etxeko guztien partetik!




OÑATI
Enaitz Zubia
Irailaren 26an, 6 urte.
Zorionak, potxolo, eta patxo pilo bat etxekoekin partetik!



OÑATI
Iker Rodriguez
Irailaren 26an, 10 urte.
Zorionak, Iker! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Segi horrela. Etxekoekin partetik.




ARRASATE
Eider Dominguez Garai
Irailaren 25ean, 5 urte.
Zorionak, printzesa!
Neska handixa zabitz eitten! Ederto ospatuko dugu. Mila patxo, etxekuen partetik.




ELGETA
Mikel Mandaluniz Fernandez
Irailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak, Mike!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo bat, etxekuen partetik.



ARRASATE
Aimar Domingos Garay
Irailaren 24an, 4 urte.
Zorionak, Mike!
Etxeko piratxoak lau urte bete ditu. Muxu handi bat, familia osoaren eta, batez ere, Nahiaeren partetik.



ARETXABALETA
Amaiur eta Manex Arana Usandizaga
Manexek irailaren 24an, 11 urte eta Amaiurrek 29an, 8 urte. Zorionak, bikote! Ondo ospatu egun eder hau. Mila patxo, etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Oinatz Garro Larrañaga
Irailaren 23an, 7 urte.
Zorionak, Oinatz!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, familixakuen partetik!



OÑATI
Eñaut Beitia Maisterrena
Irailaren 22an, 8 urte.
Zorionak, Eñaut! Ondo pasatu zure egunian! Patxo handi bat ama-xoren, aita-xoren eta Uxueren partetik!



OÑATI
Enara Garcia Calzada
Irailaren 21ean, 7 urte.
Haurren danborrada zu zoriontzeko prest!
Zorionak, sorgintxo!
Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat Aneren, Hegoiren, aita-xoren, ama-xoren eta familia osoaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 27

ARRASATE Klima larrialdia salatze, manifestazioa
Fridays For Future Arrasate taldeak deituta.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ELGETA Yoga ipuinak
5 urtetik aurrerako neska-mutikoendako, Alazne Azkaraterekin.

Liburutegian, 17:00etan.

BERGARA Haurrendako jolasak
Kultura Kalera ekimenaren baitan, Jardunen eskutik.

San Martin plazan, 17:00etan.

ARETXABALETA Txokolate-jana erretiratuendako

Basotxokoen Kultura Astearren baitan.

Basotxon, 17:30ean.

ARETXABALETA Klima aldaketaren aurkako ekintza
Plastikoa Buruan taldearen eskutik. 18:00etan, plastiko bilketa; 18:30ean, batutako plastikoa erakustea; eta 18:40an, eserialdia eta komunikatua irakurtzea.

Herriko Plazan.

ARRASATE Gudari Eguneko manifestazioa

Herritar guztiendako.

Herriko kaleetan, 18:30ean.

ARRASATE Nobenaixue

Ardoa eta gazta probatzeko aukera egongo da. Oraingoan, Musakolako jai batzordea omenduko dute.

Maritxupear, 18:30ean.

ARRASATE Garagartzako San Migel jaiak

19:00etan, etxafuegoak; 19:30ean, buzkantz-festa; 22:00etan, Kañeria 13, Txerrikumeak eta Repelencia taldeen kontzertua; eta 02:00etan, berakatz-zopa.

Garagartzan.

BERGARA Angiozarko San Migel jaiak

19:00etan, antzezlan musikatua eta erakusketa; 19:30ean, etxafuegoak; 20:00etan, patata-tortilla lehiaketa; eta 23:00etan, No Limits, Istilu eta

Gordon Calling taldeen kontzertua. Ostein, Txulos DJa.

Angiozarren.

ARAMAIO San Migel jaiak Etxaguenen

19:00etan, jaien hasiera; eta 21:00etan, Aitor Sarriegirekin eta Iban Urdangarinekin bertso-afaria: *Etxaguenen.*

ELGETA 'Baile en el sindicato' pelikula

Ostein, solasaldia egongo da.

Udaletxean, 19:15ean.

ARAMAIO Charlie Cosh & Mikel Gaztañaga

Santiñako Musika Festibalaren baitan.

Sastiñan, 19:30ean.

BERGARA Bergarako Orkestra Sinfonikoaren entsegu irekia

Kultura Kalera ekimenaren baitan.

Musika eskolan, 20:30ean.

ESKORIATZA Dantza latinoak ikasteko ate irekiak

Bachata modernoa, saltsa eta txa-txa-txa dantzatzeko aukera izango da.

Pilotalekuan, 21:30ean.

ARETXABALETA Oihan Vega

Disko-festa egingo du nerabeendako, San Migel jaietan.

Foruen plazan, 23:00etan.

OÑATI Su Ta Gar

San Migel jaiak.

Foruen plazan, 23:00etan.

ZAPATUA 28

ARAMAIO Mendi martxa

Izen-ematea, 07:30ean.

Kiroldegian, 08:00etan.

ARRASATE Garagartzako San Migel jaiak

10:00etan, diana gaiteroekin; 11:00etan, jolasak; 12:00etan, meza, 13:00etan, bermuta; 15:00etan, auzo-bazkaria; 17:00etan, auzotarren arteko jolasak; 18:00etan, Gorriti eta bere animaliak; eta 20:00etan, pintxo-poteoa.

Garagartzan.

ARAMAIO San Migel jaiak Etxaguenen

10:00etan, kanpai errepikak; 12:00etan, meza; 13:00etan, poteoa; 17:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, umeendako puzgarriak eta bolo txapelketa; 19:30ean, sokamuturra; eta 22:30ean, Lander DJaren emanaldia.

Kiroldegian, 08:00etan.

BERGARA Angiozarko San Migel jaiak

11:00etan, umeendako zeramika tailerra; 13:00etan, gizon-emakume probak; 14:30ean, herri-bazkaria; 16:30ean, puzgarriak; 17:30ean, afrikar giroa; 18:00etan, mus txapelketa; 21:00etan, Julen Narbaizaren dantzaldia; eta 00:00etan, argi festa.

Angiozarren.

BERGARA Mahai-ingurua: 'Etxebizitza problematika'

Lubaki (Langile Elkartasun Sarea) elkartearren eskutik.

Kartzela Zaharrear, 12:00etan.

BERGARA Bisita gidatua

Bergara hobeto ezagutzeko ibilaldia.

Izen-ematea: *laboratorium@bergara.eus* edo 943-76 90 03.
San Martin plazan, 12:00etan.

BERGARA Kontzertua

Bergarako Orfeoa eta Orfeoi Gaztea, Aritzeta abesbatza eta San Joxepe abesbatza, Kultura Kalean ekimenaren baitan.

San Martin plazan, 19:05ean.

BERGARA 'Kubako dantzak umorearekin' emanaldia

Irekia, herritar guztiendako.

Osintxon, 19:30ean.

ARRASATE Txorbela Otxotea eta Los Templarios abesbatza

Arrasateko eta Castro Urdialesko abesbatzek elkartruke kontzertua egingo dute.

San Frantzisko elizan, 19:30ean.

OÑATI Broken Legacy taldea

San Migel jaiak.

Txosnagunean, 21:00etan.

ARRASATE Kontzertua

Subversion, El Exterminio De La Raza Del Mono eta Traspotin Y La



IMANOL SORIANO

ARRASATE Goikobaluko Gazteluaren jaiak

11:30ean, ibilbide gidatua; 12:30ean, Goikobalura igoera; 13:00etan, umeendako jolasak eta dantzaldia; 13:45ean, herri olimpiadak; 15:00etan, bazkaria; 16:00etan, kontzertua; 17:15ean, dantzak eta 17:45ean, dantzaldia.
Bihar, zapatua, Goikobalu Gazteluan.

Boletobanda taldeak. Sarrerak, leihatilan, bost eurotan.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 29

ARRASATE Udalatxera igoera

Natura ingurunean delako bisita gidatua.

Udala auzoan, 09:00etan.

ARAMAIO San Migel jaiak Etxaguenen

10:00etan, kanpai errepikak; 12:00etan, meza; 12:30ean, luntxa erretiratuendako; 13:00etan, bolo txapelketa; 17:00etan, briska txapelketa; 17:30ean, umeendako jolasak; eta 19:00etan, bukaera.
Etxaguenen.

BERGARA San Migel eguna

10:30ean, kalejira erraldoiekin; 11:00etan, meza, eta ostein, erretiratuendako abesbatzaren emanaldia; 14:00etan, Angiozarko alkate aldaketa; 12:30ean, luntxa; 12:45ean, pilota partiduak; 17:30ean, kale-antzerkia; 18:30ean, briska txapelketa; 19:00etan, txokolate-jana; eta 20:00etan, jaien bukaera.
Angiozarren.

ARRASATE Garagartzako San Migel jaiak

10:45ean, meza nagusia; 11:00etan, zaldian ibiltzeko aukera; 12:00etan, euskal dantzak; eta 13:00etan, luntxa.
Garagartzan.

ESKORIATZA Erretiratuaren omenaldia

11:00etatik 12:30era, salda; 12:30ean, meza; eta 14:00etan, bazkaria, dantzaldia eta oparien banaketa.
Pilotalekuan, 11:00etan.

BERGARA Alai taldearen kalejira

Kultura Kalera ekimenaren baitan.

Herriko kaleetan, 11:00etan.

BERGARA Tailerrak eta informazio mahaiak

Taila elkarte, zeramika eskola, argazki taldea, Beart, parpailarien elkarte, erraldoi konpartsa, Jardun eta Musika Eskola.

San Martin plazan, 12:30ean.

OÑATI Olaiturriren antzerkia

I. Karlistadari amaiera eman zion itunaren inguruko antzerkia. Sarrerak salgai daude Txokolateixan: aurrez zazpi euro eta egunean bertan, hamar.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

OÑATI Andres Penabad Folk taldea

San Migel jaiak.
Foruen plazan, 23:00etan.

ASTELEHENA 30

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko elkartuko dira. Ostein, manifestazioa egingo dute.

Foruen plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Joskintza ikastaroa

Gaur egingo dute lehen saioa. *Iralabari plazan, 18:00etan.*

BERGARA Bergarako Orfeoiaren ezohiko batzarra

Legedi berriari egokitzeko bere estatutueta burutu beharreko aldaketei buruz jardungo dute. *Oxirondo plazako sakristau etxean, 20:30ean.*

MARTITZENA 1**BERGARA 'Passion for Wolframium' hitzaldia**

Kimikako Nobel saridun Dudley Herschbach-ek egingo du berba. Maria Vallet kimikaria eta Pedro Miguel Etxenike izango ditu lagun. *Seminarixoan, 10:00etan.*

OÑATI 'Begi-bistan' erakusketa Ilunpetan argazki taldearen eskutik, emakume kirolarien bilduma. *Foruen plazako arkupetan, 09:00etan.*

ARETXABALETA 'Mimarte' antzezlana

DBHko bigarren mailako ikasleek egingo dute Peter Roberts-en izen bereko lanaren moldaketa. *Zaraia aretoan, 12:45ean.*

ARRASATE Odol-ematea

Urriko lehenengo deialdia. Hurrengo, urriaren 31n izango da. *Osasun zentroan, 16:30ean.*

ARETXABALETA Aretoko dantza ikastaroa

Basotxokoen eskutik. *Zainduz lokalean, 16:30ean.*

OÑATI Aire zabaleko margo lehiaketako erakusketa

XVII. lehiaketako margolanen bilduma ikusgai, urriaren 13ra arte. *Kultura etxean, 18:00etan.*

EGUAZTENA 2**ARRASATE Ipuin kontaketa**

Nagore Txintxurretaren eta Mireia Delgadoren eskutik, 6 urtetik gorako neska-mutikoendako. *Kulturaten, 18:00etan.*

ESKORIATZA Berbalagunak, hamar urte

Hamarkada horretan berbalagun izan direnen testigantzak, eta Imanol Iturberen magia. *Zaldibarren, 19:00etan.*

ELGETA 'Elgetako bost emakume gerra garaian' hitzaldia

Manolo Cainzosek egingo du berba. *Udaletxean, 19:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren produktuak eta garaiokak erosteko aukera. *Oxirondon, 19:00etan.*

EGUENA 3**ARRASATE 'Itzuli barik' erakusketa**

Alazne Zubizarretaren, Daniel Lliariaren eta Natalia Suarezzen lanak ikusgai, hilaren 19ra arte. *Kulturaten, 17:30ean.*

ARRASATE Ipuin kontaketa ilustratua

Nagore Txintxurretaren eta Mireia Delgadoren eskutik, 6 urtetik gorako neska-mutikoendako. *Santa Marinako bibliotekan, 18:00etan.*

ELGETA 'Emakume eta errepublika' hitzaldia

Txema Urrutiak egingo du berba, Elgeta Erresistentziaren Memoria Jardunaldien baitan. *Udaletxean, 19:00etan.*

ARRASATE Izaki Gardenak taldea

Kooltur Ostegunetako denboraldi berria hasiko du Jon Basagurenen taldeak. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 4**ARETXABALETA Argazki erakusketa**

ArtGazkiko taldekideen zuri-beltzeko argazkien bilduma ikusteko aukera, hilaren 31ra arte. Gaur egingo dute inaugurazio ekitaldia. *Arkupen, 17:00etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Agur Etxebeste! Egubakoitza: 20:00. Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.
Elkano eta Magallanes Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

Agur Etxebeste! Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 17:30, 19:30. Astelehena: 20:30.

EIBAR**COLISEO**

Mientras dure la guerra Zapatua: 17:00, 19:45. Domeka: 17:00.

Anna Zapatua: 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

Agur Etxebeste! Zapatua: 19:45, 22:30.

Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Mientras dure la guerra Zapatua: 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

Mascotas 2 Domeka: 17:00.

GASTEIZ**GORBEIA****A dos metros de ti**

Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30. Domeka: 12:00, 20:10. Astelehena: 20:00.

Ad astra Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 18:50, 20:00, 21:20, 22:30. Domeka: 17:30, 18:50, 20:00.

Agur Etxebeste! Egubakoitza eta zapatua: 16:55, 18:45, 20:40, 22:30. Domeka: 16:55, 18:45, 20:40.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Angry birds

Egubakoitza eta zapatua: 16:40. Domeka: 12:00, 16:40. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Dora y la ciudad perdida

Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 11:45, 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Downton abbey

Egubakoitza eta zapatua: 19:05, 21:30. Domeka: 19:05. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El rey leon

Egubakoitza eta zapatua: 16:30. Domeka: 11:45, 16:30. Astelehenetik domekara: 20:00.

Erase una vez en Hollywood

Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 21:30. Domeka: 18:20.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30.

It

Egubakoitza eta zapatua: 18:50, 22:00. Domeka: 18:50. Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30.

Mascotas 2

Egubakoitza eta zapatua: 16:30. Domeka: 12:00.

Mision Katmandu

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:20. Domeka: 12:15, 16:30, 18:20.

Padre no hay mas que uno

Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 20:30, 22:30. Domeka: 12:15, 18:35, 20:30. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:40.

Quien a hierro mata

Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 20:25, 22:30. Domeka: 18:15, 20:25.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:40.

Rambo

Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:30, 20:20, 22:20. Domeka: 16:40, 18:30, 20:20. Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30.

Tory story 4

Domeka: 12:00.

FLORIDA**Ad astra**

Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30. Zapatua: 16:35, 19:45. Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30. Eguena: 17:30, 20:00.

Agur Etxebeste!

Egubakoitza: 16:40, 18:35, 20:30, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40, 18:35, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Autorretrato Zapatua eta domeka: 12:00.

Dora y la ciudad perdida

Zapatua eta domeka: 12:00.

Downton abbey

Egubakoitza eta domekara: 17:00, 19:45, 22:30. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00, 22:30.

Erase una vez en Hollywood

Egubakoitza eta domeka: 16:40, 21:50. Zapatua: 16:40. Astelehenetik eguenera: 21:40.

Hasta siempre, hijo mio

Egunero: 17:45, 21:15.

Mientras dure la guerra

Egubakoitza eta domekara: 17:30, 20:00, 22:30. Astelehenetik eguaztenera: 17:15, 20:00, 22:30. Eguena: 17:00, 20:00, 22:30.

KRITIKA**Mientras dure la guerra ★★★★★**

Zuz.: Alejandro Amenabar. **Herr.:** Espainia (2019). **Aktoreak:** Karra Elejalde, Eduard Fernandez, Santi Prego. **Iraupena:** 107 minutu.

Unamuno eta Espainiako gerra**ANTONIO ZABALA**

Mientras dure la guerra-k parte hartu du oraindik bukatu ez den Donostiako Zinemaldian. Gaurtik aurrera zinema-aretoetan egongo da ikusgai. Filma 36ko gerraren lehenengo garaian kokatzen da, nazionalak bigarren errepublikaren kontra estatu-kolpea jotzen dutenean. Alegia, guda hasten denean. Amenabarrek, batez ere, gatazkaren aurrean Unamunok duen portaera lantzen du. Bada, Francok nazionalen artean boterea lortzeko erabilitako estrategia ere erakusten digu. Jeneralak guda luzatzea erabaki zuen, tarte horretan, jeneral izatetik nazionalen buruzagi izatera heldu arte. Bitartean, Salamanca, Unamuno daukagu: errepublikaren jarraitzaile izatetik, nazionalen aldera pasako da, lehenengoen



EUROPA PRES

portaeraz desengainatuta. Nazionalen jokaera suntsitzaileari aurre egingo dio Salamancako Unibertsitatean emandako hitzaldian.

Filma Unamunoren izaera azaltzen ahalegintzen da. Kultura gizona, burugorria, baina pentsamendu ezberdinekoekin berba egiteko prest. Horrekin

guztiorrekin, Amenabarrek lortutako emaitza gatzgabekoa da. Eszena ikusgarrietan hobeto moldatzen bada ere, eszena barnekoiei zirrara falta zaie. Esate baterako, irakaslearekin duen eszena nagusia estanpa hutsean geratzen zaio; eta bere emazteari buruz dituen ametsak ere nahiko eskasak dira.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Iruña-Veleia eta ondarea

Hasi orduko oharra: Ez dut Iruña-Veleian euskararen inguruko aztarnekin sortutako aferan sakonduko. Ikertzaile independente batzuen lanak argi asko eman lezake eta Arabako Foru Aldundiak hori egin nahi ez izatea ulertezina egiten zait. Jokoan dagoena -egia izan ala gezurra izan- gehiegi da euskararentzat, sakontzeari uko egiteko. Igandean izan nintzen Iruña-Veleian. Inguruetako herri erromatar garrantzitsuena omen zegoen eta dago han eta eremuaren %2an bakarrik egin omen dituzte indusketak. Orain ere ez da mugimendu askorik ikusten bertan.

Ondare oso garrantzitsua dagoela bertan esaten dizute eremura hurbiltzen zarenean, baina aldi berean ondare hori azaleratu, ikertu eta argitzeko bideratzen diren baliabideak hutsaren hurrengoak direla ere esaten dizute. Ikusi besterik ez dago.

Pena da. Ondare historikoa balio handiko ondarea da edozein herrirentzat eta guk gurea albo batera uzten dugu.

AHTan sartutako euroak horrelakoetan inbertituko balira, harrotasunez esan ahal izango genuke garapenaren mesedetan inbertitutakoak direla.

BUKATZEKO



Aiert Alberdi, Antena3 kateko *La voz kids* saioan abesten. ANTENA 3

"Asko markatu nauen esperientzia izan da"

Aiert Alberdik Antena3 kateko 'La voz kids' programan parte hartu du Amaral-en 'Cómo hablar' abestiarekin. Oñatiarrak 13 urte ditu eta betidanik izan du antzerkirako eta musikarako zaletasuna. Esperientzia hori "emozio handiz" bizi izan zuela dio

Amaia Zabala Tolosa OÑATI

"Esperientzia polita eta berezia izan da, asko ikasi dut bai profesionalki eta pertsonalki zentzu askotan. Asko markatu nauen esperientzia izan da", dio Aiert Alberdi abeslari oñatiarrak. 13 urte ditu, eta astelehenean Antena 3 telebista kateko *La voz kids* saioan parte hartu zuen; honelako saio

batean parte hartzen zuen lehen aldia izan da.

Aretxabaletako lehengusinarekin bitartez izan zuen saioan parte hartzeko *casting*-aren berri, eta izena ematera ausartu zen; gerostik, hainbat *casting* pasatu ditu, horietako batzuk Madrilen, eta, azkenik, *La voz kids* saioa lortu zuen. *coach*-en aurrean abestera iritsi zen.

Familia osoa gerturatu zen saiora eta une oro alboan izan zituen. "Nire gurasoek eta familiak beti babestu izan naute; zerbait benetan lortu nahi badut, beti laguntzen didate", dio Alberdik.

Abeslari oñatiarrak dio "nahiko urduri" zegoela antzeztokira ateratzeko unean, nahiz eta aurreko egunean oholtzan bertan

entseatu izanak "asko lasaitu" zuen: "Oholtza oso handia, da, argi eta foku askorekin, inoiz ez nintzen horrelako oholtza batean egon. Esan behar da errespetua ematen duela, baina, aldi berean, izugarri disfrutatu nuen, oso gustura aritu nintzen".

Alberdik gaineratu du oso mezu politikak jaso dituela eta oso eskertuta dagoela: "Ezagutzen dudana eta ez dudana jendearengandik oso hitz politikak iritsi zaizkit nire emanaldiaren inguruan, eta, egia esan, horrek asko motibatu nau egiten dudana egiten jarraitzeko, nire lana baloratu egin dela eta gustatu ere egin dela ikusi baitut".

Hurrengo faserako patea

Aiert Alberdi abesten hasi eta berehala, segundo gutxira, Vanessa Martin *coach*-ak buelta eman zuen. Martinen esanetan, "abesten entzun orduko pertsonalitate handia" zuela nabaritu baitzion. Ondorioz, "batailen" faserara igaroko da Alberdi, eta oso pozik dago. Bertan, Vanessa Martin irakasle izango duen hamabost laguneko taldean izango da eta kantu ezberdinak landu eta entseatuko dituzte hiruko taldeetan, bigarren fase-rako emanaldia prestatzeko.

Txikitatik datorkion zaletasuna

"Betidanik jo izan dut gitarra, eta antzerkia egin ere bai, eta abestea ere betidanik pila bat gustatu izan zait, baina ez nuen hartzeko orain hartzeko moduan. Poliki-poliki aukerak sortzen joan zitzaizkidan eta kontzertu txikitetan abesten joan nintzen, eta, azkenean, une honetan ni betetzen nauena bihurtu da", dio Alberdik.

SANMIGELAK OÑATIN ETA ARETXABALETAN

GOIENA TELEBISTA, JAIK

URRIAREN 1EAN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.

